

IKUSMIRAN

egoeraren azterketa

2014 iraila - 2015 martxoa

AURKIBIDEA

I. SARRERA

II. NAZIOARTEA

1. SISTEMA KAPITALISTAREN KONTRAESAN NAGUSIAK

- 1.1. EGUNGO EGOERA ULERTZEKO GAKOAK
- 1.2. GEROZ ETA DESORDENA HANDIAGOA UDA BERO HONETAN

2. EUROPAR BATASUNA

- 2.1. EUROPAR BATASUNA ETA AEB: MERKATARITZA LIBREKO ITUNA (TTIP)
- 2.2. EUROPAKO PROZESU SOBERANISTAK

3. AZKEN HAUSNARKETA

III. ESTATUAK

1. ESTATU ESPAINIARRA

- 1.1. GAUR EGUNGO EGOERA
 - 1.1.1. Egoera ekonomikoa
 - 1.1.2. Lurralde antolaketa
 - 1.1.3. Konstituzioaren erreforma
 - 1.1.4. 2015 kurtso elektorala
 - 1.1.5. Errepresioa
- 1.2. AZKEN HAUSNARKETA

2. ESTATU FRANTZIARRA

- 2.1. EGUNGO EGOERAREN ADIERAZLE NAGUSIAK
 - 2.1.1. Estatu soziala eraisteko erreforma prozesua aurrera
 - 2.1.2. Gatazken artean lurralde erreforma aurrera
 - 2.1.3. Frantses integrazioaren porrota, yihadismoarenganako beldurra
 - 2.1.4. Ezker eta herri-klaseen ordezkaritza krisia

IV. EUSKAL HERRIA. BALDINTZA SOZIOEKONOMIKOAK

1. EGOERA OROKORRAREN ARGAZKI LABURRA

- 1.1. TESTUINGURU OROKORRA
- 1.2. EREDU EKONOMIKOAN ALDAKETAK AZKEN URTEOTAN.
- 1.3. DESBERDINTASUNEN ETA DUALIZAZIOAREN SEDIMENTAZIOA.

2. EUSKAL HERRIKO PANORAMA EKONOMIKOA

- 2.1. LANGABEZIA ETA BIZI BALDINTZEN PREKARIZAZIOA
 - 2.1.1. Langabezia behera eta prekarietatea gora.
 - 2.1.2. Emakumeak eta gazteak, prekarietatearen jo puntuan.
- 2.2. BIRBANAKETA ETA BABES MEKANISMOAK AHULTZEN
 - 2.2.1. Soldatak zein prestazioak murrizten
 - 2.2.2. Babes sozialaren pribatizazioa
 - 2.2.3. Aurrekontuak: behar sozialetatik geroz eta urrutiago
 - 2.2.4. Kutxabank: kontrol publikotik pribatura
- 2.3. EREDU EKONOMIKOAN ALDAKETAK. INDUSTRIAREN GALERA
- 2.4. LAN HARREMANAK ETA AKTORE EKONOMIKOAK
 - 2.4.1. Lan harremanak
 - 2.4.2. Krisia patronalean edo botere lehiak Confebask barnean?
- 2.5. EREDUEN TALKA

3. EKONOMIA SOZIALAREN PROPOSAMENA

4. AZKEN HAUSNARKETA

V. EUSKAL HERRIA. DINAMIKA POLITIKO INSTITUZIONALA

1. ALDAKETA SOZIALAK ETA BERE ERAGINA EREMU POLITIKOAN

- 1.1. GLOBALIZAZIO KULTURAL ETA EKONOMIKOA
- 1.2. AUSTERITATEA ETA ESTATUEN KRISI POLITIKO ETA SOZIALA
- 1.3. ASKAPEN PROZESUAREN LOGIKA ALDAKETAREN IRISMENA ETA ONDORIOAK

2. EUSKAL HERRIAREN EGITURATZE POLITIKO-INSTITUZIONALA: AITORTZA ETA ESTATUS BERRIA EDO DESLOTURA ETA ASIMILAZIOA.

- 2.1. EUSKAL HERRIAREN EGITURATZE POLITIKO - INSTITUZIONALA
- 2.2. DINAMIKA INSTITUZIONALA: AZKEN HILABETEETAKO GERTAKARIAK
- 2.3. ESTATUS POLITIKOAREN INGURUAN ERAGITEN DUTEN DINAMIKA NAGUSIAK.
 - 2.3.1. Gure esku dago.
 - 2.3.2. Estatugintza ardatz, akademiatik ekarpena.
 - 2.3.3. Herri galdeketak.
 - 2.3.4. Nazio egituratzea: Udalbiltza.
- 2.4. AZKEN HAUNARKETA

3. ERAGILE POLITIKOEN POSIZIONAMENDUAK ETA PROPOSAMENAK.

4. GATAZKAREN ONDORIOEN KONPONBIDEA: PROPOSAMENAK MAHAI GAINEAN DAUDEN ARREN IMPASE EGO-ERA BATEN SENTSazioA.

- 4.1. AIETETIK LAU URTETARA GATAZKAREN KONPONBIDERAKO ARKITEKTURAREN BILAKAERA
- 4.2. PRESO ETA IHESLARIEN ESPARRUAN EMANDAKO GERTAERAK.
- 4.3. ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK.
- 4.4. ELKARBIZITZA ETA MEMORIAREN ERAIKUNTZA, BIKTIMEN AITORTZA ETA ERREPARAZIOA.
- 4.5. AZKEN HAUSNARKETA

5. DINAMIKA SOZIALA.

- 5.1. LAN GATAZKAK ETA PREKARIETATEAREN AURKAKO ASKOTARIKO DINAMIKA.
- 5.2. EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA.
- 5.3. MUGIMENDU FEMINISTA.
- 5.4. MUGIMENDU EKOLOGISTA.
- 5.5. ETORKINAK ETA ANIZTASUNA.
- 5.6. EUSKARA.
- 5.7. HEZKUNTZA.
- 5.8. AZKEN HAUSNARKETA.

VI. ERANSKINA (1). POSTSINDIKALISMOAREN INGURUAN.

Antxon Lafont Mendizabal. (Bertsio originala gaztelaniazkoa. Itzulpena ipar hegoa fundazioak)

VII. ERANSKINA (2). HERRI-GINTZA: DEMOKRATIZAZIO ETA BOTERETZE PROZESUAK.

Olatz Dañobeitia Ceballos eta Zesar Martinez Garcia. Joxemi Zumalabeko kideak.

I. SARRERA

Konstatazio argi batek bultzatu gaitu IKUSMIRAN egitera: Euskal Herria sistemikoa eta orokorra den trantsizioan murgildua dago, mendebalde kapitalistako gainontzeko lurralde eta Estatuetan modu ezberdinetan bada ere ematen den bezala. Kapitalaren ofentsiba historikoa bizi dugu; Europar Batasuna bere mapa politiko eta ezaugarri ekonomikoak itxuraldatuko dituen aldaketa prozesu baten baitan sartua dago; eta Estatu Espainiar eta Frantziarrak, krisi eta kontraesanen artean, eredu neoliberaleranzko ibilbidea kudeatzen ari dira, gure nazioaren aitortzaren gainetik eta gatazka politikoaren konponbide osoari uko egiten. Testuinguru honetan, Euskal Herriaren, bere egitura eta jendartearen, ezaugarriak aldatzen ari dira.

IKUSMIRANen bidez, gure iparra diren Euskal Herriaren burujabetza osoa eta balore kapitalistetan oinarrituko ez den eredu soziala eraikitzea helburu izanik, aldaketa hauek ezagutu, jarraitu eta horietan eragiteko azterketa eskaini nahi dugu.

Euskal jendartea, objektu eta subjektua da trantsizio honetan. Neoliberalismoaren eta demokrazia faltaren ondorioak begi-bistakoak dira, baina era berean, testuinguru honetan erresistentzia, protesta eta ahots propioaz burujabe aritzeko prozesuak ere abian dira. Galdera litzake ea ahalegin hauek nahiko indar ote duten, nahiko determinazio biltzen ote duten, estrategia oso batean elkartzen ote diren, berkonfigurazio prozesu horietan eragiteko, dugunaren defentsatik harago, komunitate eta Herri gisa biziraun zein demokratikoki garatzeko bide propioa abiarazteko.

Era berean, koiuntura edota gertakari esanguratsuetan jartzen dugu ikusmira, Euskal Herriaren konfigurazio politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean ze norabidetan eragiten duten aztertzeko asmoz, gertakariok osatzen baitute bizi dugun errealitatea.

IKUSMIRANek errealitatea ikusteko moduan ekarpena egin nahi du beraz. Maiz gertakariak era isolatuan aztertzen dira, muinean dauden interesak edota norabideak antzeman gabe, jendarteko eremu ezberdinetan ematen diren gertaeren arteko loturari garrantzirik eman gabe. Guztiz mediatizatua agertzen zaigun eztabaidak ez du egoera honetan laguntzen eta IKUSMIRANek Euskal Herriaren eta euskal komunitatearen konfigurazioa kezka eta eztabaida politikoaren erdigunean kokatu nahi ditu. Hau baita gure ustez gidatu behar dugun funtsezko abiapuntua, komunitate gisa abiatu beharreko bidea taxutzerakoan konfiantza eta segurtasuna eskainiko diguna bizi dugun trantsizio egoera honetan, non sektore ugari posizio eta logika berriak bilatzen dituzten, non proiektuen arteko disputa inoiz baino biziagoa den, krisi soziala eta ezegonkortasuna hainbat eremuetan nagusitzen ari diren eta gure Herria ziklo berri bati atea irekitzeko ahaleginean dagoen. Norabide horretan, IKUSMIRANek ahalegin bat egin du ondorengo elementuetan:

- Euskal Herria bere osotasunean aztertzeko, lurralde eta sektore ezberdinetan dauden ezaugarri bereziak agertuz.
- Azterketarako eskema klasiko bat erabili dugu: nazioartea, Estatuak, Euskal Herria. Elkarlotu eta baldintzatzen diren eremuak direlako. Aitzitik, Euskal Herriaren azterketa egiterakoan egoera ekonomiko eta soziala abiapuntu gisa ezarri dugu, burujabetza eta bideragarritasun ekonomikoan eta euskal jendartearen bizi baldintzetan atentzioa ezarri.
- Baina hauek ezin dira modu isolatuan aztertu, dinamika politiko eta bilakaera sozialarekin lotura zuzena baitute, elkar eragiten dira. Era berean, jardun ekonomikoa, esparru honetan ematen diren interes borrokak eta aldaketa eraikitzeo aukerak gure Herriaren estatus politikoarekin, burujabetza ahalmenarekin, baldintza demokratikoekin eta nola ez, gatazka politiko-armatuaren bilakaerarekin lotuta daude. Esparru hauek guztiak kontutan izan ditugu.
- Bestetik, koiuntura azterketa egiterakoan, eremu ezberdinetan sortu diren dinamikak eta horietan aktore diren eragileen diskurtso eta proposamenak agertzen saiatu gara. Ez soilik presentzia gehien duten aktore politiko eta ekonomikoena, baizik eta egoeraren aurrean erresistentzia eta alternatibak proposatzen dituzten sektore eta eragile sozialena ere. Guretzat azken hauek lehenengo planoan ezartzea lehentasuna da, euskal jendartearen dagoen aberastasun eta dinamismoari balioa emanez eta aldaketa politiko eta soziala helburu duten eragileen arteko aliantza eta konfluentziaren aukeran sakontzeko.

- Aztertu ditugun esparruetan sakontzean, hauek dinamikoak direla, mugimenduan daudela baieztatu dugu. Horrekin, hauetan eragiteko aukerak irekiak daudela baieztatu dugu, aldaketarako abagunean gaudela eta gehiengo zabal batek horrela barneratua duela. IKUSMIRANek aukera hauetan era positiboan eragin ahal izateko ekarpena egin nahi izan du.

IKUSMIRAN hausnarketarako ekarpen bat da. Ahalik eta modurik zorrotzenezan saiatu gara begiratzen errealitatea. IKUSMIRANen elaborazioan parte hartu dugunon balorazioak eztabaida kolektiboen emaitzak dira, eremu ezberdinetan eragile diren pertsonenak. Hala ere, dokumentu hau, aurreko eta etorriko diren ale berriak bezala, ez dago itxia eta hausnarketarako ekarpena da, are orokortasuna bilatzeak bere arriskuak dituela kontziente izanik (besteak beste, garrantzia duten gertakari hainbat kanpoan uztea edota beste batzuk modu arin baten lantzea). Beraz, berriz diogu, IKUSMIRANen balioa pentsamendua astintzen, begirada zabaltzen eta praktika politikoa indartzeko lagungarria izatean datza.

Bukatzeko, eskertu nahiko genituzke lanaren osaketan parte hartu duten Ipar Hegoako Gabineteko kideak, Gaindegia (Euskal Herriko Koiuntura Adierazleak bideratzearen), Antton Lafont Mendizabal, Olatz Dañobeitia Ceballos eta Zesar Martinez Garcia beraien ekarpenengatik, Nekane Jurado Pérez aurrekontuen azterketara bideratu izanagatik eta oro har eremu ezberdinetako kideak bideratutako informazio zehatzagatik.

II. NAZIOARTEA

1. SISTEMA KAPITALISTAREN KONTRAESAN NAGUSIAK

XX. mendean zehar, klaseen arteko indar korrelazio berdintsuago batek behartuta eta Sobiet Batasunak lideratutako poloak indartuta, Mendebaldeko zenbait Estatu kapitalistetan Ongizate Estatuak deituriko ereduak indartu ziren. Eredu paradigma-tiko bakar batez hitz egiterik ez dagoen arren ezaugarri orokor batzuk azpimarratu genitzake: klaseen arteko hitzarmen sozialaren instituzionalizazioaren eskutik enplegu masiboa, zerbitzu sozialak eta masa kontsumoa hedatu ziren eta hauek jendarte kohesiorako bitarteko bilakatu ziren. Hori horrela, askoz ere trinkoagoak ziren jendartearen baitako multzo sozial eta identitateak (langilea, burgesia) eta klaseen arteko kontraesan hegemonikoak jendartean gertatzen ziren gainontzeko kontraesan sozial zein nazionalak itzaltzeko joera egon zen.

Berlingo harresiaren erorketa itxurazko egonkortasun honen krisiaren mugarriztat hartzen da; honek Kapitalismoaren mundu mailako hegemoniaren ideia eta nazio zein kontraesan sozial berrien indartze politikoa ekarri zituen. Kapitalismoaren indartzeak politika neoliberal eta inperialismo basatiari atea irekiko dizkie, gatazka eta desoreka berriak sortuz. Hala nola Sobiet Batasunaren zatikatzek Estatu berrien sorrera ekarri zuen, Estatu kapitalistetako ezker mugimendua identitate krisian murgildu, sozialdemokraziak haustura alboratu eta sistemaren kudeatzaile bilakatu zen. Honekin batera, neoliberalismoaren gogortasuna oldarraldi sozial berrien aroa irekitzera etorri zen.

Egun, sistema kapitalistak mundu mailako egiturazko krisia bizi du. Arrazoi nagusien artean kapitalismoaren barne logika bera dago: diru irabazi geroz eta handiagoaren beharra du. Diru azkarraren bila, burgesiak ekoizpen erreala alboratu eta kapitala finantza eremuan inbertitzera jo zuen, zorpetze orokorra honetarako bitarteko nagusienetakoa izanda. Honek, kontsumo gaitasuna jaistearen ondorioz, gainproduktzio krisia ekarri zuen. Hau gutxi balitz, aurretik ere bazetozen bestelako krisi batzuk joan dira esleitzen, besteak beste, lehengai eta baliabide energetikoen agortze zantzuak.

Edonola ere, ezin ditzakegu gutxietsi kapitalismoak dituen birkokatze gaitasuna eta baliabideak. Hegemonia ideologikoa zein berau iraun-arazteko mota ezberdinetako tresnak ditu: indar militarra, kulturaren globalizazioa edota komunikabideen monopolioa. Horrela ba, zailtasun nagusienei aurre egiteko gaitasuna eta tresnak ditu: sistemaren aurreko alternatibak xurgatzeko, esparru politiko eta instituzionala maneiatzeko, baita kapitalismoa olioztatzen jarraitzeko energia iturri berriak ustiatzeko.

1.1. EGUNGO EGOERA ULERTZEKO GAKOAK

Sistema kapitalistaren mundu mailako egiturazko krisiak bere horretan dirau. Politika neoliberalak arazo berriak sortu eta kapitalismoaren egiturazko krisia ez duela konpondu ondorioztatu dezakegu. Eta berreskuratze ahotsen gainetik, krisialdiaren zantzuak geroz eta sakonagoak dira. Zantzu horien artean, nagusiena, irabazien batz besteko tasaren beherakada dago. Edonola ere, burgesia boteretsuenak oraindik orain aberasten ari dira, langileria zein herri sektoreen pobretze orokortuari esker.

Atzeraldi honen atzean dagoen arrazoi nagusienetako bat zera da: ekoizpen gaitasuna eta kontsumo gaitasuna ez direla parekoak. Langile eta herritarren eros-ahalmena hain urria izateak ekonomiaren hazkundea oztopatzen du. Egoera honen aurrean, gainera, Mendebaldeko burgesiak ematen dituen erantzunak ez dakarte atzeraldian sakontzea besterik: batetik, hazkunde ekonomikoa murrizketen bitartez (soldatak, babes soziala, politika publikoak) gauzatu nahiak beraien irabazi tasa handitzen du, baina langileen eros-ahalmena gutxitu, esplotazioa biderkatzearekin batera; eta bestetik, oraindik orain, produktzio errealean inbertitu beharrean, kapitalak finantza esparruetan egiten jarraitzen du.

Petrolio eta erregai fosilen beharrak ofentsiba inperialistak indartu egin ditu. Alta, era berean, erregaiekiko dependentzia honek potentzia energetikoen boterea handitu du. Ameriketako Estatu Batuak (AEB), fracking-a bezalako metodoak erabiliz, independentzia energetikoa bilatzen ari diren bitartean, Saudi Arabia bezalako petrolio ekoizleek, beraien ekoizpena bizi-kortuta, prezioak merkatzea eragin dute. AEBren aurkako erantzun gisa ez ezik, etorkizunean beste herrialde batzuekin aliantza berriak egiteko asmotan ere bai. Zentzu honetan ulertu behar da 2014ko udan zehar gertaera militarrek gogortu eta are-agotu izana.

Krisi testuinguru honetan, agerikoa da mundu mailako potentziak birkokatzen ari direla botere hegemonikoa eskuratze-ko lehian. Egun, nabarmena da azken hamarkadetan botere hegemonikoa izan duten AEBak lekua berreskuratzen ahalegintzen ari direla, maila ezberdinetan, baina bereziki bi esparrutan: interbentzio militarren areagotzea eta Europarekin eraikitzen ari diren Merkataritza Ituna. Baina birkokatze ahalegin honetan, ezin ahaztu ez direla AEBak mundu mailan bere lekua egiten ari den bakarra, baizik eta lasterketa horretan etorkizuneko potentzia hegemoniko moduan azaltzen ari diren bestelako herrialde batzuk ere badaudela. Horien artean, eta gaur gaurkoz AEBekin lehia zuzenean, Txina edota inperialismo neoliberala ez den alternatiba sortzen eta egonkortzen saiatzen ari diren Hego Amerikako Estatu eta Gobernantza berriak leudeke

Kapitalismoaren aurpegi zorrotzena erakusten duten krisiok, populazioak bere logikaren kontzientzia hartzeko aukerak biderkatzen dituzte, sistemarekiko loturak eta beldurrak areagotzen badira ere. Berez, klase borroka gaur egun argiagoa dela esan daiteke eta esan genezake subjektu politiko berrien sortze prozesuan dagoela jendartea; ez, baina, kontraesan maila goreneko egoerek dakartzaten gatazka bortitzik gabe.

Demokrazia burges klasikoa ulertzeko moduetan aldaketak gertatzen ari dira. Horrela, merkatuak lortu duen nagusigoarekin batera, herri borondatea adierazteko mekanismo formalak ahultze prozesu sakon batean sartu dira (Troikaren edota teknokrazia politikoaren nagusitasunarekin). Erreakzio gisara, erabakitze eskubidearen eta demokraziaren defentsa egiten duten mota ezberdinetako eragileek ere indarra hartu dute. Maila politiko eta ideologikoan ere aldaketak izan dira. Sozialdemokraziaren krisitik harago, ohiko alderdi politikoak ere kolpe elektoral handiak bizitzen ari dira. Eskuma klasikoa eta muturreko eskuma, ostera, goranzko joera erakusten ari da. Honekin guztiarekin batera, ezkerak berrantolaketa prozesua bizi du.

Bitartean, aipagarriak dira sezesio eta independentzia prozesuak, Europar Batasunaren barneko Estatu kapitalistetan ematen ari direnak. Izan ere, testuinguru orokor honetan, estaturik gabeko nazioen aldarrikapenak areagotzearekin batera, burujabetza bidean urratsak egiten ari dira hainbat nazio. Besteak beste, Katalunia eta Eskoziako kasuak ditugu aipagai.

1.2. GEROZ ETA DESORDENA HANDIAGOA UDA BERO HONETAN

Aurreko edizioan aipatu bezala, mundu mailako potentzien arteko harremanak tentsioan oinarrituta daude. Mugimendu hauetan guztietan aktore nagusi bat NATO da. Era ezberdinetan saiatu izan da herrialde ezberdinetako egoera ezegonkortzen, Mendebaldearen interbentzioa eta boterea ziurtatzeko, base militarrek zein gobernu txotxongiloak ezarritik. Mugimendu ezberdinak mobilizatu ditu eginkizun horretan, hasi bakezaletasunetik eta faxismoraino.

Honetan, leku berezia hartu du **Ukrainako egoerak**. Europa eta Errusiaren arteko muga, beti izan da helburua Mendebaldeko herrialdeentzat. Urte hasieran lehen gatazkak ikusi genituen. Udaberrian, egoera baketzeko asmotan, gatazkaren parte diren aktore nagusien artean (AEB, EB, Errusia eta Ukraina) Ginebrako Akordioa sinatu zen. Hala ere, udan zehar gatazkak gora egin du, batez ere ikuspegi militarretik. Gatazka hauen kariatara, beste maila bateko ondorioak ere izan dira, eta, horien artean, esaterako, Krimeako, Donetskoko edota Lugansko Herri Errepubliken sorrerak.

Baina Ukraina ez da konfrontazio gune bakarra izan; Siria eta Palestinaren aurkako erasoaldiak ere bortitzak izan dira. Eta Estatu Islamikoak eremu horietan sortutako egoera ere kontuan hartu beharrekoa da, sakonago aztertu beharreko gaia iruditzen zaigu.

Inperialismoa bestelako eremu batzuetan ere interbentzioak egiten ari da. Oro har, **Hego Amerikan eta Kariben**. Lekuaren arabera estrategia ezberdinak erabiltzen ari badira ere, kontinentearen hegoaldearen gaineko kontrola eskuratzeko da helburua, bertako lehengaiak ustiatzeko bereziki. Venezuelaren gainean jarritako presioa da nabarmenezkoa. Bertako petrolio erreserbak eskuratzeko asmotan, egoera ezegonkortzeko ahalegin ezberdinak egin dituzte. Ahalegin horien artean, bertako burgesiaren bidez Maduroren gobernuaren aurka buruturiko guda ekonomikoa dago batez ere, oinarritzeko lehengaien banaketan aurrera eramandako boikot sistematikoarekin.

Erasoaldiak eraso, badira historikoki inperialismoari erantzuna eman izan dioten herri erresistentzia eta askapen mugimenduak. Horien artean, **Kolonbiakoa** dugu. 2012ko udazkenetik aurrera Kolonbiako Gobernua eta FARC-EP erakunde

armatuak negoziazio prozesuan murgilduak daude La Habanan, Kuban. Elkarriketa hauen helburua gatazka armatua eragin duten arazo sozial, politiko eta errepresiboei irtenbidea ematea da. Horretarako, ondoko eremuetan, banaka baina guztiak lantzeko konpromisoarekin, akordio politikoak lantzen ari dira: 1. Nekazal garapenerako politika integralak. 2. Parte hartze politikoa. 3. Gatazkaren bukaera. 4. Legez kontrako drogak. 5. Biktimak. 6. Akordioen garapena, egiaztatzea eta berrespen bitartekoak. Kolonbiako Gobernuaren helburua, besteak beste, dibergentzia mugatzea bada ere, Amerikar Kontinentean jendarme papera indartu ahal izateko, gatazka armatuaren konponbidea Estatu erabaki eta aldaketak ekarriko duen prozesu politikoaren eskutik datorrela onartu behar izan du. FARC-EP erakundeak, berriz, askapen prozesuan aitzinatzea bilatzen du, baldintza politiko eta objektibo berriak eskuratu. Ikuspegi honetan, Elkarriketa hauetan Kolonbiako jendarteak parte hartzeko prozedura adostu da. Kolonbiako Unibertsitate Nazionalaren eta Nazio Batuen gidaritzapean, Foro sozialak bultzatzen ari dira, non akordio eremu bakoitzean sartu aurretik eragile eta jendar-tearen ekarpenak biltzen diren.

Bestetik, **Kuba eta AEBen arteko harremanen berritzea** dugu aipagai. Kubako herriak gogor eutsi dio 1960tik gaur arte inperialismoak ezarritako zigor, blokeo eta baita mota ezberdinetako eraso etengabeei. Erresistentzia borroka horrek azaltzen du orain blokeoarekin bukatzeko asmotan zabaldu berri dituzten negoziaketak. Edozein kasutan, eta Kubako agintariek adierazi bezala, blokeo egoera gainditzeko borroka gogorra eta luzea izango da.

2. EUROPAR BATASUNA

Aurreko argitalpenean aipatzen genuen bezala, **Europar Batasunaren (EB) eraikuntzaren funtsa ekonomikoa izan zen**. Ondorioz, EBren konfluentzia eta hedapen prozesuan kontraesan etengabeak izan dira: Estatuaren autonomia eta interdependentziaren artean edota konfluentzia ekonomikoak derrigorrez ekarri duen batasun politiko-administratiboaren eraginez. Funts ekonomikoarekin batera, EBk Mendebaldeko kapitalismoaren jendarmea ere izan da eta bada, Sobiet Batasunaren, Afrikako ekialdearen eta, egun, Errusiaren edo islamismoaren aurrean.

Politika neoliberalak eta egungo krisi testuinguruak EBren sorkuntzaren zergatiaren argipena ekarri dute. Ekonomikoki indartu eta lehiatzeko erabaki politikoetan sakontzen ari da, austeritatea inposatuta, Troikari erabaki ahalmen osoa eskainita eta Atlantikoko Merkatu Libreko Itunari bide emanda, besteak beste. Aitzitik, bidea kontraesan eta konfliktuz betea agertzen ari da berriz ere: oldarraldi sozial eta politiko ezberdinek Estatu nagusien egonkortasun instituzionala zalan-tzan jarri dute, ultra-eskuina, populismoa edota ezker berriaren bidez jendartearen ezinegon botere politikoan lehiatzen ari da.

2015ko urtarrilean Charlie Hebdo aldizkari satirikoaren aurkako ekintzaz gain, Frantziar Estatu, Belgika eta Alemaniako gertatutako **ekintza islamiarrek** aipatu beharrekoak dira. Izan ere, gertaeron garrantzia txikitu edota gertaera isolatutzat jotzetik harago, islamiar munduaren baitan sektore ezberdinek abian jarri dituzten erresistentzia eta eraso ofentsiboak, zein hauek izan dezaketen garapena, aztertu beharrekoak dira, arabiar herrialdeetan eta Europarekiko harremanetan ere bai.

Gertaerok aski ongi probestu ditu europar botereak, Mendebaldeko demokraziaren bandera harturik, ondorengo egunetan Parisen, mundu mailako mandatariak lehen lerroan, mobilizazio jendetsua burututa. Eztaba daezina da islamiarren ekintza hauen aitzakia erabilia izango dela Europako herritarren gaineko eguneroko kontrola, errepresioa eta eskubideen murrizketa areagotzeko.

Oraingo honetan Mendebaldeko demokrazia eta balioak goraiatu eta hauekin lerrokatu arren, ezin dugu ahaztu **eskuin muturra eta neofaxismoa gora** egiten ari direla Europan. Zentzu honetan, Europako azken hauteskundeek joera horiek berresten dituzte, besteak beste, sozialdemokraziaren galerarekin batera, Europako Estatuetan eskuin eta, batez ere, eskuin muturraren gorakada aipagarria baita. Fenomenoa ez da berria eta herrialde ezberdinetan gertatzen ari da. Gorakada hau nabarmena izan da Frantzia (FN), Finlandia (Benetako Finlandiarrak), Hungaria (Jobbik) eta Grezian (Amanecer Dorado).

Bukatzeko, aipatzekoa da, balizko ondorio ezberdinengatik, **ezkerraren birkokatzea Europan** eta, batez ere, Greziako kasuan, Siryaren garaipenak ekar dezakeena. Alde batetik, Europa hegoaldeko ezkerrarentzat, bereziki, hauspoa izan

daiteke, gobernu aldaketa ezkerretik posible dela baieztatzen baitu. Baina, bestetik, oraindik orain nazioarteko instituzioek interbenitutako herrialde bateko gobernuak, ezkerrekoa izanik ere, aldaketa gauzatzeko duen edo ez duen margenaren adierazlea izango baita.

2.1. EUOPAR BATASUNA ETA AEB: MERKATARITZA LIBREKO ITUNA (TTIP)

AEB eta EBren arteko Merkataritza Libreko Itunaren negoziaketak aurrera doaz. Orain arte bezala, isilpean gauzatzen ari dira, itunak ekarriko duenaren aurrean herritarrek asaldatzea oztopatzeko, bereziki. Itunaren ideia aspaldikoa izan arren, 2013ko ekainean eman zuten negoziaketen hasieraren berri eta, nahiz eta dagoeneko EBeko mandatarari batzuek Itunaren alde onen inguruan jendaurreko adierazpenak egin, publikoki, behintzat, ez dago hitzarmen itxirik.

Mundu mailako testuinguru zabalean kokatu bezala, itun honek Mendebaldearen eta, batez ere, AEBren hegemonia krisiari erantzuten dio. Itun honek mozkin ahalik eta azkarren eskuratzeko beharrari, Mendebaldeko hegemonia berreskuratzeko beharrari eta, bereziki, kapitalaren existentziaren arrazoia den irabazien batz besteko tasa hazkunde-fase baten jartzeko beharrari erantzuten die.

Itun honek AEB eta EBren arteko merkatu komuna osatzea du helburu nagusi. Marko berri honetan kapital transnaziional maila ezberdinetako erabakiak hartzeko botere osoa emango zaie. Izan ere, itunarekin, Estatuak, oro har, baina, bereziki, Europako Estatuak marko orokorrago baten azpian geldituko lirateke eta politika ekonomikoa arautzeko boterea galduko lukete kapital finantzarioen mesedetan.

Hemen egon daiteke, neurri batean, Itunaren itxiera atzeratzeko arrazoia, egoera honen aurrean EBean erresistentziak egon baitaitezke. Itunarekin, EBk ez ezik, EB osatzen duten herrialdeek ere galtzen dute, geroz eta ahulagoa den burujabetza kolpe latza hartuko baitute.

Edonola ere, begi bistakoa da afera honetan kolpatuena Europako langileria eta herri sektoreak izango direla. Lehen ere gogorrak izan diren murrizketen aurrean, honek merkatuaren desarautzearekin batera, esplotazio, prekarietate zein desberdintasun sozialak handiagotzea ekarriko baitu.

2.2. EUROPAKO PROZESU SOBERANISTAK

Europar Batasunaren abian diren prozesu soberanisten artean bi nagusitu dira azken hilabeteetan. Bata Eskozia, 2014ko irailean burura eramandako erreferendumarekin; eta bigarrena Katalunia, azaroan burututako kontsultarekin.

Biak ala bietan, Estatuak erabilitako mehatxua praktika erreala izan da. Batez ere mehatxu ekonomikoa, herri horiek aurrera egin ezkerre izango dituzten zailtasun ekonomikoak eta ondorio latzak azpimarratuz. Eta horrek herritarren subjektibitateetan eragina izan du.

Eskozia

Eskoziaren kasuan, independentziaren inguruko erreferendumaren ariketa Britainia Handiarekin adostua izan da, baina baita mehatxu ekonomikoak hartu duen pisua ere. Hemen kolokan egon dena ez da izan ariketaren zilegitasuna edo ez, eta ordea, pisua hartu duena, balizko independentziak eskoziarren bizi baldintza eta bideragarritasun ekonomikoan izango duen eragin negatiboa izan da.

Guzti honekin, eta nahiz eta independentismoaren gorakada nabarmen batekin eta baita ezkerreko independentismoaren indartze batekin, eskoziarren gehiengoak Britainia Handiaren parte izaten jarraitzeko hautua egin zuten.

Katalunia

Kataluniaren kasua korapilatsuagoa izaten ari da. Izan ere, Estatu Espainiarraren bete beteko krisiaren baitan, lurralde krisiak leku berezia hartzen baitu. Horregatik, Eskozian ez bezala, Kataluniako prozesuaren garapena Espainiar Gobernuaren zein botere judizialaren esku hartzeaz zipriztindua egon da.

Hasierako asmoa independentziaren inguruko galdeketa bat egitea bazen ere, Auzitegi Konstituzionalak jarritako behararen ondotik, prozesu parte hartzaile bat burutu zen hasierako galderak mantenduz. Estatuaren aldetik etorritako mehatxuen ondorioz, prozesu parte hartzailearen antolaketa ardua nagusia herritar boluntarioek hartuko dute.

Kontsulta prozesu parte hartzaile baten ordeztatzeak alderdi soberanisten artean krisia sortu zuen. CiUk izandako jarraia beste alderdiek salatu egingo dute, emandako hitza ez betetzeagatik. Edozein kasutan, hasierako batasunarekin ez bada ere, guztiek egingo dute prozesu parte hartzaile indartzearen alde. Emaizak ere halakoxeak izango dira, parte hartze handi batekin eta independentziaren aldeko gehiengo batekin. 2.305.290 bozkatzailetatik, Kataluniako Estatuaren aldeko bozka 2.092.182 herritarrek eman zuten, horien artean 1.860.000 Estatu independente baten aldekoak izan zirelarik eta 232.182 ez. Aukera bat zein bestearen aurreko ezezkoak 104.772 izan ziren.

Edonola ere, aurrera begirakoan gauzak ez dirudite hain argi. CiUren irmotasuna ezbaian, hurrengo mugarria 2015eko irailan dago kokatua, hauteskunde arruntak plebiszitario bihurturik. Handik ateratako emaitza independentziaren aldekoa izanez gero, Legebiltzarrean independentzia aldarrikatzeko asmoa legoke.

Dena dela, oso kontuan hartzekoa da CiU beraren aldetik eman diren urratsak eta baita urrats horien norabidean proiektatzen duten eredu sozial eta ekonomikoa. Maila politikoan Estatuarekin egin edo adostu dezakeena argi egon ez arren, balizko Estatu Katalanaren oinarritzko zutabeak diseinatu eta eraikitzeari ekin baitio prozesu konstituziogile baten baitan: Estatu katalanarentzat konstituzioa, ogasun eta segurtasun sozial sistema propioa, kanpo harremanetarako legea eta plana, estrategikoak diren azpiegiturak babesteko plana edota plan ekonomiko eta soziala zehazten ari da.

Ataka honetan mugimendu soberanistak zeregin bikoitza izanen luke. Batetik, denboran iraunarazi duen mugimendua zein mobilizazioa mantendu eta hurrengo erronka nagusirako indarrak biderkatzea, alderdi politiko nagusiek eta bereziki CiUk ez dezan izan independentziaren inguruko kontsulta ez den bestelako maniobrarik egiteko gaitasunik; eta bestetik, aurrekoarekin lotuta, prozesu eratzailearen agenda eta edukietan eragitea.

Irlanda

Sinn Féinek hazten jarraitzen du, bai uharteko Iparraldean eta bai, batez ere, Hegoaldean. Izan ere, haren sostengua nabarmen handitu da azken hilabeteetan. Hala, Fianna Fail, Fine Gael eta Alderdi Laboristak bultzatutako austeritate-politiken alternatiba erreal bakar gisa agertzen da. Datozen hauteskundeak (2016) inflexio-puntu erabakigarria izango dira norabide horretan.

Ostiral Santuko Akordiotik izandako negoziazioak eta sinatutako akordioak, Weston Park, St. Andrew's, Hillsborough Castle eta orain dela gutxi sinatutako Stormont House Agreement (SHA) barne sartuta, Irlandako gatazka konpontzeko lan zailaren adierazle dira. SHAk adiskidetzeko bidearen zorua jarriko du. Urte hauetan lortutako aurrerapen ukaezinak gorabehera, ezin ahaztu dezakegu prozesuak zailtasun nabariak aurkitzen dituela oraindik ere, hala nola akordioen zati bat inplementatu gabe egotea, Sinn Féinen buruzagi garrantzitsu batzuen kriminalizazioa, Gerry Adamsen atxiloteta barne sartuta, eta abar.

Belgika-Flandes

N-VA, Flandesko alderdi nazionalista, lehengo Volks Unie-ren oinarreko politikoa, botoen % 3,1 lortzetik (2003) Flandesko eta Belgika osoko alderdi bozkatuena izatera (2010 eta 2014) pasatu da hamarkada batean. 2010eko hauteskundeetan ostean ez bezala, 2014an N-VA gai izan zen gobernu-akordio bat lortzeko Belgikan ere –Flandesen bazegoen gobernuan-. N-VA alderdi independentista da, argi eta garbi, eta gero eta liberalagoa bere proposamen politiko, ekonomiko eta sozialetan; bere ustez, Estatu Flandestar bat Europar Batasunaren baitan eratu aurretik, beharrezkoa da estatu belgikarra sakon erreformatzea eta Belgikako Estatu Federala Estatu Konfederal bihurtzea. Flandesen eta Belgikan gobernatzen badu ere, ez dirudi legegintzaldi honetan gai izango denik estatuko erreforma mardulik egiteko, zeren horretarako sostengu sendoak behar baititu Flandesen eta Walonian, eta gainerako indar politikoak erreforma horren aurka azaltzen dira gaur egun.

Korsika

Ekainaren 25ean FLNC Korsikako Erakunde Armatuak borroka armatua behin betiko uzteko erabakia jakinarazi zuen. 38 urteko bilakaera ostean, aldebakartasunez hartutako desmilitarizazio eta klandestinitatetik irteteko prozesua abian jarri du. Erabaki honen muinean azken urteetan Korsikan eztabaida politikoak izan duen bilakaera, bertako mugimendu abertzaleak bizi duen indartze eta gorakada eta profil ezberdinetako eragileen artean adostasunez hartzen ari diren erabaki poli-

tiko-instituzionalen garrantzia daude. Horrela aitortu du FLNCK, hartu duen erabakiak Korsikan eraikitzen ari den testuinguru berria hauspotu nahi duela esanez, Korsikaren independentziarantz abiatzeko borroka politikoa lehenetsiz.

Frantziar Gobernuak ez du FLNCK hartu duen erabakiaren inguruko posizio publikorik adierazi, segur aski Korsikan nagusitzen ari den giro politikoa gutxiesteko edo bederen ez dimentsionatzeko helburuarekin. Bitartean, 2014. urtean militante abertzaleen atxiloketak mantendu dira eta preso politikoei dagokionez (egun 26) elkarte eta sentsibiltate ezberdineko hautetsik eskatzen duten Amnistia eta irlara hurbiltzeko prozesuari muzin egiten dio.

Esan bezala, Korsikako Lurralde Asanbladak elkarrizketa sustatu era urrats politiko erabakigarriak hartzen dabil. Honako hauek lirateke azken hilabeteetako azpimarragarrienak:

- 2014ko abenduan Korsikako Lurralde Asanbladak Ganbera bakarreko Kolektibitate baten sorreraren aldeko erabakia hartu zuen, asanbladaren gehiengoaren oniritziarekin (42 baiezko 51ko kideen gainez). Kolektibitate honek egungo bi departamendu eta Lurralde Asanbladaren ganberak eta eskumenak bilduko ditu, nazio batasunean urrats handia emanez. Otsailaren erdialdean Frantziako Asanblada Nazionalak berresten du erabakia, instituzio berria 2018ko urtarrilerako martxan izatea aurreikusten da.

- 2014ko apirilean Korsikako Lurralde Asanbladak Egoiliar Estatutua sortzeko proposamena burutzen du. Korsikako nazionalitatearen aitortzan urrats inportantea da eta higiezinaren espekulazioari aurre egiteko modua. Egoiliar Estatutua, korsikarraren ofizialtasuna eta Zerga Sistemaren Estatutua bezala Korsikako Lurralde Asanbladak hartu baina Frantziar Gobernuak oraindik onartu ez dituen neurri politikoak dira. Bistakoa da halere, Frantziar Gobernuak bertako autonomia aldarrikapenari nolabaiteko aitortza egiten duela, eta hexagonoko gainontzeko nazioekin ez bezala (Bretainia, Katalunia, Euskal Herria, Alsazia) martxan duen Lurralde Erreforma ez dela Korsikaren batasun eta ahalmentze prozesuan oztopo izango.

3. AZKEN HAUSNARKETA

Ikusi ahal izan dugun bezala, mundu mailan kapitalismoak bizi duen krisialdia oinarri, ezegonkortasuna da egungo egoera orokorraren ezaugarri nagusia. Honek ondorengo esparruetan sortuko dituen eszenatokiak aztertu beharko dira:

- Azken hamarkadak polo bakarreko hegemoniak ezaugarritu ditu, baina orain, egoerak osagai multipolarrak ditu. AEBen hegemoniaren aurrean Txina edota bestelako herrialde batzuk indarra hartzen ari dira, arlo ekonomikoan zein militarrean.
- Potentzien birkokapena eraso militar eta inperialisten bidetik izaten ari da. Honek ezegonkortasun eta oldarraldi egoerak indartuko ditu mundu osoan.
- Kapitalismoaren forma ekonomikotik harago, kapitalismoaren bidez eraikitako zibilizazio eredua bera dago kolokan (sozialki, politikoki, ekologikoki...). Honen aurrean badira alternatiba gisara eraikitzen ari diren proposamenak, besteak beste, Hego Amerikako herrialde batzuetan. Hauen bilakaera tentuz aztertu beharko da.

Bestetik, Euskal Herriak komunitate politiko gisara dituen erronkei loturik eta martxan dagoen prozesu politiko eta independentistan izan dezaketen eragina aztertzei begira, mundu mailan gertatzen ari diren ondorengo egoerak jarraitu beharrekoak direla deritzogu:

- Europaren baitako prozesu politiko eta ekonomikoen eragina, bereziki Euskal Herriaren burujabetza aukera egituratze eta ondorio sozialen ikuspegitik.
- Gatazkaren konponbideari dagokionez, Kolonia edota Korsikako kasuetan bezala, mundu mailan burutzen ari diren negoziazio prozesuen jarraipena. Besteak beste, nazioarteko komunitate eta jurisprudentzian izango duten eragina.
- Erabakitzeko eskubidearen ikuspuntutik, mundu mailan eta Europan bertan burutzen ari diren Estatu berrien edota burujabetza prozesuen (Katalana, Eskozia, Flandria...) jarraipena.
- Mendealdeko estatuetan "status quo" zalantzan jartzen duten mugimendu politiko eta tendentzia sozial berrien jarraipena.

III. ESTATUAK

1. ESTATU ESPAINIARRA

Espainiar Estatuak kontraesan politiko eta ekonomikoan murgilduta jarraitzen du, Estatuari berari eusten dioten oinarriak zalantzan jartzeraino. Ahuldade hau hiru eremu nagusitan laburbil dezakegu: eredu produktiboaren ahuldade estrategikoa; lurralde antolamenduaren krisia; eta trantsiziotik eratorritako eredu politiko - instituzionalaren krisi politiko zein soziala (alderdi bitasuna, monarkia...).

Egoera honek zenbait arazo sortzen dizkio aurrera begirakoan. Batetik, ez du inongo autonomia ekonomikorik, ondorioz bere egin ditu Europar Batasunetik behartutako neurri guzti - guztiak; bigarrenik, lurralde antolamendu eredu sendorik ez izatea, hortaz, krisi ekonomikoak gabezi politiko handiak erakutsi duen Autonomien Estatua lehertu du; eta azkenik, "bake sozialik" ez izatea, izan ere, egoeraren aurrean mobilizazio/ezinegon soziala nabarmena izateaz gain, sektore ezkertiar edo aurrerakoien eta soberanisten berrantolaketa suertatzen ari da.

Estatuak oraingoz bi norabidetan planteatu ditu erantzunak: batetik, protesta mugimendu ezberdinak irmoki zapaltzea (bake prozesua blokeatu, Kataluniaren aurrean entzungor, errepresio estrategian sakondu); eta, bestetik, Estatu soziala desagerraraziz, kapitalen kontzentrazioa eta zentralizazio politikoa bultzatzea.

1.1. GAUR EGUNGO EGOERA

Aurrez aipaturikoak egoeraren izaera edo ezaugarri orokor eta egiturazkoak adierazten ditu. Baina begiratu dezagun errealitate hauek ze sakontasun maila daukaten.

1.1.1.-Egoera ekonomikoa. Austeritate politika, aberastasunaren kontzentrazioa, soldaten debaluazioa eta enplegu prekarioaren nagusitasuna

Alor ekonomikoari dagokionez, Espainiar Estatuko erakunde ofizial ezberdinetatik zabaltzen ari diren mezua hazkunde ekonomikoarena da. Adierazpen hori egiteko 2014ko azken hiru hilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta izandako BPGren %0,7ko hazkundearen emaitza darabilte. Bereziki etxeetako kontsumoaren igoerarekin lotzen den igoera. Aldi berean, aurreko urtearekin alderatuz gero, landunen kopuruak gorakada txiki bat izan baitu.

Edonola ere, eta Espainiako Bankuaren datuen arabera, etxeetako kontsumoan izandako igoera hau diru sarreretan izandako igoera baino askoz altuagoa da, eta horrek esan nahi dezake herritarrek konfiantzazko giro batean beraien aurrez-kietatik egin dutela gastua, eta ez, ordea, soldatak igo edo lanpostu berriak sortu direlako.

Honetaz gain, badaude adierazle batzuk kontsumo pribatuaren maila honi eustea ezinezko egin dezaketenak. Zehazki, herritarren eros-ahalmena gutxituko duen soldaten debaluazio prozesua, eta sortzen ari den enplegua txikia dela eta gainera prekario eta partziala.

Enplegu partzialarena nabarmentzen ari den errealitatea da. 2008tik 2014ko erdialdera lanaldi osoko kontratuak %20 jaitsi diren bitartean, lanaldi partzialaren kopuruak %11,8 izatetik %16,4 izatera pasatu dira. Honekin lotuta, oso kontuan hartzeko datua da lanaldi partzialetan lan ordu bakoitzagatik ordaintzen dena, lanaldi osoagatik ordaintzen dena baino %37 baxuagoa dela. 2013an soldaten batz besteko maila baxuena izan zen azken 22 urteetatik hona. Egoera honek **pobreziaren arazoa hedatzen** ari dela ematen du aditzera. Hau da, langabezia ez ezik, enplegu prekario eta soldata baxuak ere badi dira pobreziaren iturria. Eta honek dakartzan ondorio sozialak tamainakoak dira: esate baterako, lan egiteko moduan dauden pertsonen %30 pobrezia egoera absolutuan egotea.

Kontrapuntu gisara, **kapitalaren irabaziak gora** egin izana dugu. Pobrezia hedatzen ari den bitartean, Espainiar Estatuko finantza elite zein enpresa buru nagusienak geroz eta kapital handiago kontzentratzen ari dira. Horren adibide dugu 2007

eta 2012. urteen alderaketa: gehien irabazten zutenek gutxien irabazten zutenek baino %17,6 gehiago irabazten bazuten, 2012. urtean alde hori %18,9koa izatera pasatu zen. Edota beste adibide bat: 2010-2013 artean kapitalak akziotan zuen ondasunen balioak %3,6ko gorakada izan zuen bitartean, urteko soldata "masaren" bolumena %16,4 jaitsi zen.

Bitartean, Estatu Espainiarrak austeritatean oinarritutako politikak aplikatzeari ekiten dio. Bertsio ofizialaren kontrara, neurriok ez dute inongo zerikusirik Espainiako ekonomia ber-indartzearekin. Europaren presioa tarteko, Espainiak Europako banketxe nagusienekiko duen zorpetze maila altuari erantzutea bilatzen da, banketxe hauei ez ordaintzeak, bereziki alemani (bertako banka kolapsatzeko arriskuarekin), kalte handia egingo liekeelako. Gogoratu krisialdiaren aurreko garaian Estatuaren motor ekonomikoa eraikuntza zela, eta motor hori ekonomikoki estimulatzeko atzerriko banketxei egin zitzaizkiela eskaerak. Orain ordea, burbuilak eztanda egin ostean, Espainiak Europako banketxe hauekin duen zorraren dimentsioa ordainezina da.

Austeritate politikak ideologia neoliberalaren oinarri ekonomikoen ezarpena dira. Botere publikoak gastu sozialean oinarrituriko politika egiteari uko egiten dio, enpresariei behar duten neurrirako merkatua garatzeko lege erreformak errazten dizkieten bitartean. **Hamaika izan dira kapitalaren mesedetara egindako lege aldaketak:** lan merkatua desarautzeko legeak; izaera erregresiboa duten zerga legeak; gastu publiko eta soziala mugatu eta gastu hori enpresa nagusiak finantzatzeko legeak; ondasun publikoak liberalizatu zein pribatizatzen laguntzeko legeak.... Finean, kapitalaren aberastea langileen soldataren zein bizi baldintzen kaskartzearen lepotik egiten ari da.

1.1.2.-Lurralde antolaketa. Eredu autonomikoaren krisi politiko eta ekonomikoaren aurrean: egitura administratiboa mehetu, eskumen eta boterearen zentralizazioan urratsak egin

1978an lurralde antolaketa zein nazioen aferari erantzuna emateko diseinatutako Autonomien Estatuaren krisia bizkortu da azken urteetan, krisi ekonomikoak zein Estatu nazioetako prozesu soberanistek bultzatuta.

Estatuaren ikuspegitik bertatik ereduak porrot egin duela esaten da, alde batetik, ekonomikoki sostengaezina egiten zaio-lako, eta bestetik, ez duelako lortu Estatuaren baitako nazioen aspirazioak eta eskaerak itzaltzea. Gaur gaurkoz, PPren gobernuaren bidez emandako erantzuna zentralizazioaren norabidean doa, bai Erkidego Autonomikoen zein bestelako egituren eskumenak murrizturik.

Administrazio autonomikoak gehiegizko gastua dakarkio Estatuari eta, halaber, erkidegoek beraiek ere eskumen gehiago eskatzen dituzte egoera ekonomikoari zein euren zorpetze mailari aurre egiteko. Horretaz gain, badira gatazka iturri diren bestelako arazo garrantzitsu batzuk, horien artean, eskumenen gaineko talka edota eskumenen bikoizketa arazoak. Honen aurrean, PPren Gobernuak orain arte burutu duen politika babes ekonomikoa negoziatzea izan da (besteak beste, Valentzian, Murtzian, Gaztela-Mantxan, Balearrean eta Andaluzian) eta, horren truke, administrazioa pribatizatu eta gutxitzeko plan zorrotzak ezarri ditu hauetan. **Gatazka autonomikoa honela atzeratu eta kontrolatu nahi izan du.**

Ondorioz, lurralde antolaketaren inguruko ageri-agerizko eztabaida politiko orokorrik gabe, PPren Gobernuaren administrazioaren antolaketan aldaketak burutzen ari da. Lege eta proposamen ezberdinez osatutako erreforma hau 2012tik aurrera, CORA (Comisión para la Reforma de las Administraciones Públicas) komisioren bitartez gidatzen ari dira. Komisioren sortze agirian azaltzen den bezala, bere eginkizun nagusia "espainiar administrazioak dituen desorekak zuzendu eta bere funtzionamenduan akatsak dituzten sektoreak eraldatzera" bideratua dago.

Hartara, hainbat ekinbide planteatuko ditu eta, horien artean, nagusietako bat "egitura administratiboa mehetzeko plan integrala" izan da. 2014. urteko datuekin, 2.000 organismo publiko, erkidegoetako 715 enpresa publiko eta administrazio publikoko 53.000 lanpostu baino gehiago desagertzea izan da ondorioa.

Honekin batera, administrazio publikoak bere funtzionamendurako beharrezko dituen zerbitzuen kontratuak zentralizatu egingo dira, besteak beste garbiketak, telekomunikazioak, higiezin horniketa edo posta bezalako zerbitzuak. Urrats honek lehiakorragoak diren eta erakundeei zerbitzu merkeagoak emango dizkien enpresa handiak sarituko ditu; kontrara, enpresa txikiak edota pymeak kaltetu eta ekonomia txiki eta lokala deuseztatuko du. Neurriok salatuak izan ziren Merkatu eta Lehiakortasun Nazionalaren Komisioren aldetik 2014ko irailean, baina bere horretan dira.

Esan bezala, lurralde antolaketaren ereduaren inguruko eztabaidan sartu gabe ere, dagoeneko eskumen eta boterearen zentralizazioan oinarritutako eredu oso bat gorpuzten ari da, eztabaidak eta kontraesanen artean.

1.1.3.- Konstituzioaren erreforma. Presentzia mediatikoa galdu duen eztabaida, ziklo elektoralak ekarriko duen klarifikazioaren zain

Konstituzioaren erreformaren inguruko eztabaidan, lurralde antolaketa ereduaren erreformarekin batera, bestelako hiru gai garrantzitsu ditugu: Estatu sozialaren oinarri konstituzionalen desagertze nahia, sistema politiko - instituzionalaren berritzea eta egiturazko ustelkeriarekin bukatzeko hartu beharreko erabakien ingurukoa.

Estatuko indar politiko nagusiek afera honen inguruan duten posizioa ezberdina den arren, aurrera begira egin beharreko urratsak bateratasunez eta Estatu mailako akordio handi baten bidez egiteko egonkortasun politiko gehiago dagoen uneari itxaroten ari direla dirudi, hau da, Estatu mailako hauteskundeak pasatzeari itxaroten ari direla.

PPren jarrera erreformak egitearen aldekoa izan arren, hauek isilean burutu nahi ditu, lege zein dekretu ezberdinen bidez egiturazko aldaketak eginez, eztabaida sozialari lekua eman gabe. Honenbestez, 2011an burututako erreforma konstituzionalarekin austeritate ekonomikoari eta diziplina fiskalari bide eman zieten. Honekin batera, Konstituzioan bermatzen ziren hezkuntza, osasuna zein pentsioak bezalako berme sozial nagusiak deuseztatzen ari dira praktikan. PPren baitan aldaketa nola gauzatu behar den inguruan ikuspegi ezberdinak daude, azkarrago edota mantsoago joan edota isilpean joan nahi dutenen artean. Aitzitik, errealitatea da egiturazko aldaketak egiten ari direla eta etorkizunean gehiago egingo dituztela, gainera.

PSOEri dagokionez, funtsezko gaietan PPren Gobernuak egin dituen aldaketekin adostasuna agertu du. Lurralde Antolaketaren inguruko Erreformari dagokionez, 2013an "Estatuaren egitura federal baten bidean etorkizuna irabazi" idatzia aurkeztu zuen, "Espainian soberania ezberdina duten subjektu politiko nazionalak Estatu Federal berdin baten baitan artikulatzea" helburutzat agertzen zuena. Proposamen honetan ez da, ez erabakitze eskubideaz, ez autodeterminazioaz, hitz egiten. Pentsatzekoa da proposamen hau posizio taktikoa dela, eta oinarrian gai honetan PPrekin adostasuna bilatuko duela.

Osterantzean, bi alderdi nagusien ondoan, Podemosek Konstituzioarekin haustura eta prozesu eratzaile berri bat proposatu du orain arte. Gainera, bere diskurtsoan garrantzia handia hartzen du erasoaldi neoliberalak deuseztatu dituen berme sozialen berrezartzeak eta, horrekin batera, prozesu eratzaile horretan herritarrek izan behar duten paper protagonistak ere bai. Itxuraz, egun dagoen ereduaren aurrean haustura aldarrikatzen du, nahiz eta lurralde antolaketaren inguruko proposamenean ez duen ezer sakontzen, herritarrek izan beharreko parte hartzeaz zein nazioen "erabakitze eskubidearen" inguruko aldekotasunaz gain. Esan beharra dago azken hilabeteetan Podemosek hausturaren aldeko diskurtsoa apaldu egin duela, aldaketa sozialak ekarri dezakeen gestioaren ingurukoa indartuz.

1.1.4.- 2015 kurtso elektoralak marraztuko duen egoera, gakoa aurrera begira

Urte honetan udal hauteskundeak, erkidego autonomikoetako hauteskundeak (Euskal autonomia Erkidegoan eta Galizian izan ezik) eta Espainiar mailako hauteskunde orokorrak iragarrita daude. Zentzu ekonomikoan zein politikoa, Estatu alderdien arteko indar korrelazioek asko izango dute esateko. Bide horretan, 2015ean diren hauteskundeek pisu handia hartuko dute, alderdi bitasunean oinarritu den mapa politikoaren aldaketa ekarri dezaketelako.

Hitzordu elektoral bakoitzak bere berezitasun eta garrantzi propioa duen arren, Espainiako hauteskunde orokorretan ikusmin handia dago, izan ere, gobernu aldaketaren aukera mahai gainean dagoen zerbait baita. Krisi orokorrak jota eta ustelkeria kasuek ukituta, PPren beherakada itxaroten da eta, aldi berean, baita PSOErena ere.

Azken Europar hauteskundeak erreferentzia gisa, eta bestelako joera batzuk tarteko, ikusteko dago Podemosek ze indar hartuko duen, eta beste norbaitekin batera, gobernua osatzeko aukera duen, PP gobernutik kenduta. Edozein kasutan, argi dagoena da inor ez dela gai izango bakarrik gobernatzeko, eta ondorioz aliantzak egin beharko direla. Beste aukera bat da, "status quo"aren defentsan eta egonkortasunaren alde, PSOEek PPri babesa ematea, baina hori PSOErentzat bere

buruaz beste egitea izan liteke. Bestetik, ikusi beharko da ere CIUDADANOSek ordezkatzeko duen alternatiba liberal-populista ze gaitasun izango duen eskuin eremua berrantolatu eta panorama orokorrean eragiteko.

Ezkerreko edo aldetaren aldeko fronte bat osatuko balitz eta gobernu eskuratzeko, -aurrera Sirizaren kasuan aipatu gisara-, ikusteke legoke ze programa osatuko den krisi ekonomiko zein politikotik ateratzeko eta programa hori gauzatzeko margena zein izango den, Europa zein Alemaniaren ezaugarriak lehen momentutik gainean egongo direla kontuan harturik.

1.1.5.- Errepresioa. Kontrol bitartekoak berritzen eta zorrotzen

Hasieran aipatu bezala, erantzun sozialaren gorakadari errepresioaren gorakadak jarraitu dio, ohiko errepresioaren handitzearekin batera, egoera berriari egokitutako legedia berria sortuta. Horien artean, **Mozal Legea**, protesta sozialaren adierazpen minimoena ere zigortzea xede duena. Esku artean dituzten bestelako lege errepresiboaren artean, kode penaren erreforma, prozesu kriminaleko legearen erreforma edota komunikazio pertsonalak aurretiazko baimen judizialik gabe kontrolatzeko eskumena handiagotzea daude. Gainera, lege proposamenetatik harago, jardura errepresiboak isla praktikoa du. Kale mobilizazioaren aurkako oldarraldiez gain sare sozialetan herritarrek egindako adierazpenak "terrorismoaren gorazarretzat" hartuta honezkero tankera eta izen bereko (Armia) bi polizia operazio burutu dituzte eta guztira, bi operazioen artean, 40 herritar atxilotu dituzte.

Bukatzeko, sektore islamiarrek Europar eta bereziki Frantzia egindako ekintza armatuak aitzakia hartuta, Estatu espainiarrek berak ere salbuespen neurriak hartu ditu. PP eta PSOEren arteko Estatu mailako itun gisa irudikatu den **Akordio Antiterrorista** berriak Kode Penaren terrorismo arloan erreformak dakartza eta ordena juridiko, politiko edota sozialaren hausten dituzten edozein ekintzen aurkako zigorrak handiagotzea ere badakar.

1.2. AZKEN HAUSNARKETA

Ikusi dugunez, Estatu eredu bat eta beste baten arteko trantsizioa burutzen ari da. Esparru ekonomikoan Estatu neoliberal bateranzko bidea azeleratu egin da, lurralde eta erreforma politikoan mantsuago doazen bitartean (besteak beste Europaren presioa ez dagoelako). Eremu honetan ez dago indar korrelazio argirik eta kontraesan politikoak (sozialak, erkindago ezberdinetako elite politikoen artekoak eta nazio ukatuetatik sortzen direnak) kudeatzea zailagoa egiten ari zaie. 2015. urteko ziklo elektoralek aterako den jokalekuak trantsizio prozesu honen ezaugarriak baldintzatu ditzake. Norabide honetan, hauteskunde orokorren ondorengo egoerak garrantzi berezia izango du, sortu daitezkeen agertokiaren artean:

- Status quoari eutsi nahi dioten alderdien arteko koalizioa.
- Berdinketa tekniko edo ezegonkortasun handiko egoeraren aurrean finantza botereek edo Europar Batasunak zuzenean izendatutako gobernu teknokrata.
- Aldaketa politikoa bultzatzen duten alderdien aliantza gerta daiteke edota PODEMOS ordezkatzeko duen alternatibaren asimilazioa.

Horrekin batera, PODEMOS-en inguruan egituratzen ari den aldaketa politikoa eta berau bultzatu duen desentente mugimenduaren eboluzioa atentzioz jarraitu beharko da:

- Estatuaren krisi politikoan nahasten diren 3 kontraesan nagusiak zein lotura edo konfluentzia biziko duten. Hau da, PODEMOS-en inguruan egituratzen den erregenerazio demokratikoaren aldeko mugimenduak, Kataluniatik eta EHTik bultzatzen diren burujabetza prozesuek eta Euskal gatazka politiko - armatuaren konponbiderako prozesuak zein konfluentzia izango duten Estatu mailan, ea elkar elikatu diren. PODEMOSek zein jarrera izango duen gatazka hauen aurrean.
- PODEMOSek kudeaketa instituzionala egiteko aukera irabazten duen heinean defendatzen duen proiektu politiko eta ekonomikoak zein konkretio eta eboluzio izango duen.
- Espainiar Estatuan sortu den aldetaren aldeko mugimendu sozial eta politikoak dimentsio elektorala irabazi bai, baina herri mailako dinamika eustea lortuko ote duen.
- Beste maila batean, perfil ideologiko ezberdinetako sektoreetan indartu den desententeak, hasiera batean

PODEMOSek ordezkatu nahi zuenak izango duen bilakaera. CIUDADANOSen alternatiba liberalerantz norabidetu daiteke, PODEMOSek gestioan sakontzen duen bitartean urrundu egin daiteke, edota sektore hauen ideologizazioan indartze bat eman daiteke aldaketa aukera indartuz.

2. ESTATU FRANTSESA

2.1. EGUNGO EGOERAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Estatu Frantsesa egiturazko aldaketak ekarriko dizkion erreforma prozesuan murgilduta dago. Frantziak bizi duen atzeraldi ekonomikoa zein bere egitura produktiboak dituen arazoak (sektore industrialaren eta oro har beste lan merkatuekin konparatuz lehiakortasunaren jaitsiera, enpresa handiekiko eta kanpo multinazionaliekiko dependentzia) politika liberekin konpondu nahi izatea ez da berria.

Alta, aurreko erasoekin alderatuta, Europatik inposatzen den austeritate politikoa gauzatu behar denaren aitzakian, II. Mundu Gerra ostean eraikitako Estatu Sozialaren zutabeak eraldatzea erabaki du. Prozesu honen aktore nagusia, Hollandek zein Valls-ek gidatzen duten Gobernu sozialista da eta honek, sozialdemokraziaren prestigio galeran sakontzean, krisi sozial eta politikoa indartzen du. **Era berean erreformaz erreforma beraz, hamarkadetan hala moduz iraun duen arkitektura politiko, instituzional eta ekonomiko oso bat eraldatzen ari dira.**

Ekonomia globalizatuaren garaian berebiziko garrantzia du Frantziarentzat bere egungo kolonien (Amerikan, Ozeano Barean eta Indiako Ozeanoan) eta antzinako inperio kolonialaren (Afrikan nagusiki) gaineko eragina mantentzeak. Are gehiago, AEB eta Txina bezalako potentziek lehiatu, Afrikan eragina galdu eta, European, hegemonia politiko eta ekonomikoa galdu duenean Alemaniaren aurrean.

Frantziak politika neo-kolonialean sakontzen du beraz, injerentzia militar eta kontrol ekonomiko-politikoaren bidez. Helburua nazioarteko potentziaren estatusa mantentzea eta bere interes geo-estrategikoak defendatzea da (urania, petrolio, nikela). Norabide horretan, XX. mendean kolonia ohi batzuen independentzia eta beste batzuen autonomia onartu egin ditu, haienganako menperatze ekonomiko zein militarra ziurtatzeko estrategiak lehenetsiz. Horretarako, inperio kolonial gisa mantendu ahal izateko, Frantziak, bere legedi eta lurralde antolakuntza egokitzen joan behar izan du.

Bitartean, metropolian edo Frantzia kontinental moduan izendatzen den lurraldeko nazioen aitortza eta beren eskubideekiko politika erabateko ukazioan mantendu da. Bi printzipio hauek, **neo-kolonialismoan sakontzea eta Estatua berritzeko edozein prozesutan metropoliko nazioen ukazioa, azken hilabete hauetan garrantzia hartu duten erreforma eta gertakarien muinean daude.**

Sakondu ditzagun egungo egoeraren adierazle nagusiak:

2.1.1. Frantziar nazioaren ezaugarri eta identitatearen zutabe izan den Estatu Soziala eraisteko eta eraldatzeko erreforma prozesua aurrera

Frantziar Gobernuak egungo koiuntura historikoa baliatu nahi izan du, egiturazko erabakien bidez, Estatu Sozialaren ikur eta ezaugarri nagusiak modu planifikatuan eraldatzeko. Alde batetik, zerbitzu eta babes sozialak gutxitu edo eraisteko prozesua du martxan. Bestetik, lan merkatua erregulatzen duten kode eta babes prozedurak ahultzeko erabakia hartu du: sektore publikoa pribatizatuz, lan kodea aldatuz, negoziazio sindikala lan-tokietara eramanez eta ordezkaritza sindikala oztopatuz. Azkenik, fiskalitate-politikan eragin nahi du, batez ere, enpresek eta nagusiek jasaten duten karga fiskala gutxituz. Egiturazko erreforma hauen ondorio sozial eta ekonomikoak luzean neurtu beharko badira ere, soldatek behera egiten jarraitzen dute, prekarietatea eta ezberdintasunak igotzen eta langabezia zabaltzen.

Kontraesanak kontraesan, erreforma hauek Estatu-erabaki direla esan dezakegu. Eskuinak konplexurik gabe Pakto Sozialaren modernizazioa, hots deuseztapena, aldarrikatzen du. François Hollandek berriz, politika ekonomikoaren helburua hazkunde ekonomikoa eta aurrekontuen oreka behar duela izan eta ezkerak aberastasunaren birbanaketa moduko aldarrikapenak alboratu behar dituela aldarrikatu du. Aitzitik, honek guztiak alderdi sozialistaren barne- eta Gobernu-

krisia eragin ditu.

2014ko abuztuan Hollandek, Vallsek behartuta, perfil ekonomikoa eta kohesio liberala dituen Gobernu Talde berria osatu zuen. Modu honetan, politika liberalak kudeatzeko kohesioa ziurtatzeaz gain, aurretik parlamentario sozialisten herenaren ezezkua jaso zuen "Erantzukizun Paktua" onartu ahal izan zuten. "**Erantzukizun Paktuaren**" helburuak gastua aurrezte eta enpresen kotizazio fiskalak gutxitzea dira (funtzionarioen eta pentsionisten soldatak izoztuta mantentzen diren bitartean).

Norabide berean, 2015eko otsailean, **Makron legea** dekretu bidez onartu behar izan dute, parlamentuaren ezezkua aurreikusi ondoren. Lege honek igandeko lana legeztatzen du, justizia arloan kanporatzeko prozedurak erraztu, sindikatuen ordezkarien defentsa mekanismoak zaildu eta zenbait sektoreen liberalizazioa bultzatzen ditu (garraioak).

Hollandek, 2017ko hauteskunde presidentzialak mugarri, 2015ean azkartze liberala burutu nahi duela aurreikusten da, 2016ean zehar perfil sozialago bat izango lukeen Gobernu berria ezartzeko asmoa hipotesi posible bat da.

2.1.2. Gatazken artean, Lurralde-Erreforma aurrera doa

Gobernuaren esanez Lurralde-Erreformaren helburu nagusia Frantziaren egitura administratibo-instituzionalak egun osatzen duen "lurralde hostopilaren" geruzak gutxitzea eta egitura hauen arteko funtzioen osagarritasuna hobetzea dira. Erreforma gidatzen duten ildo nagusiei dagokienez:

- Eskualdeak gutxitu eta indartzeko erabakia hartu da. 2014ko abenduan onartu den legearen arabera 2016tik aurrera 22 eskualde izatetik 13 izatera pasatuko da.
- Udal mankomunitateak indartzeko erabakia hartu da.
- Departamenduak ahultzeko edo desegiteko erabakia hartu da (departamenduen funtzio nagusienetarikoa babes sozialen kudeaketa eta laborantza eremuaren ordenantza direlarik). Erreforma hau egun blokeatua dago.
- Udalak edukiz husteko erabakia hartu da (Administrazio Lokalaren Erreformaren bidez).

Erreforma prozesu honen muina aurrezte eta ekonomiak egitea da. Eskualdeko kontseilu eta kontseilariak gutxitzeak; Departamenduen kontseilu, kontseilari eta funtzionario publikoen desagertzeak; udaletxe eta Eskualdeko funtzionario publikoen gutxitzeak eta udaletxeetako mankomunitateak (ura, garraioa, zaborra zerbitzuak kudeatzen dutenak) 13.400tik 5.000ra pasatzeak aurrekontu publikoen aurrezte kualitatiboa dakarte. **Bide batez, Europari mezua luzatzen zaio: Frantziak egiturazko erreformak egiteko konpromisoa hartzen duela.**

Prozesu guztia kontraesanen artean gauzatzen ari da. Gobernuak Eskualdeen erreforma aplikatzea erabaki duen arren IFOPen arabera (Institut Français d'Opinion Publique) frantsesen %58ak, egin diren fusioak onartu ahal izateko erreferenduma eskatzen zuten. Gobernuaren arabera, erreforma honen bidez ekonomikoki indartsuagoak izango diren Eskualdeak sortzea bilatzen da, lurralde hedapenari dagokionez handiak, nazioartean dimentsioa izango dutenak eta nazioarteko inbertsio ekonomikoa jaso dezaketenak. Ezaugarri identitarioekiko errespetua ez da kontuan eduki. Alderantziz, Estatuak argi du nazio gatazka indartuko dituen fronte berriak ez dituela ireki nahi.

Ipar Euskal Herrian ematen den eztabaida instituzionalak ezaugarri propioak ditu ("Pays" egituraren desegiteak gobernazio eredu berri bat eskatzen duelako). **Hau da, Lurralde Erreforma Prozesua martxan den bitartean, Ipar Euskal Herriaren egituratzea erabakitzen ari da.** Gobernuak bi marra gorri ezarri ditu, egungo legediak ahalbidetzen duen instituzioa izan behar duela eta izaera autonomo/berezitua ez izatea (Lurralde Elkargo baten aukera ukatu ondoren). Frantzia mailako erreforma prozesuak, halere, eragin zuzena izango du etorkizuneko instituzio ereduaren eta Ipar Euskal Herriak izango dituen konpetentzia-ahalmenetan.

2.1.3. Frantses integrazio ereduaren porrota eta ekintza yihadisten beldurra

Frantziar Estatuaren integrazio estrategiak porrot egin du. Frantziar jendartearen lurraldearen arabeko segregazio sozial

eta etnikoa bistakoa da eta, gaur gaurkoz, **Estatuak ez du bere iragan koloniala alboratzeko edo honen irakurketa kritikoa egiteko inongo borondaterik adierazi**. Alderantziz, jendarte eredu eta kohesio baloreak ezberdintasun eta eskubide etniko, erlijioso, sozial zein kulturalen ukazioen gainean eraiki dira. Egoera hau modu berezian kristalizatu da sektore eta eremu musulmanetan, maiztasun iraunkor batez oldartzeak sortuz.

Ezker frantsesak, salbuespen batzuk kenduta, guztiz barneratua du ikuspegi hau, balore errepublikanoen eta laikotasunaren aldarrikapen baztertzaila eta harroa burutuz. Mentalitate kolonial batetik hurbil, zapalduari, kasu honetan sektore musulmanei, mendebaldeko askatasun eredu behartu ahal zaionaren ikuspegia barneratua du. Honek guztiak, objektiboki ezkerrekin bat egin dezaketen sektore askok uxatu eta islamismo politikora hurbiltzen ditu, era berean, sektore hauek Frantziar instituzioekiko duten deslotura eta urruntasuna handituz. Bitartean, Frantziar elkarbizitzaren diren komunitate politiko ezberdinek beren ohitura eta ezaugarri berezituak espazio publikoan adierazteko eta abiarazteko eskubidea geroz eta indar gehiagoz aldarrikatzen dute.

Krisi honetan, Frantziak daraman politika interbentzionistaren itzuli-efektua gehitu behar da. Momentu honetan Al-Qaeda eta Estatu Islamiarraren jomugan dago, are gehiago Israelekin harreman politiko eta militarrek estutzea erabaki zuenetik. Estatu krisi hauen aurrean defentsibari agertzen da, maila goreneko gatazkak bihurtu dira berarentzat. Erantzunez, **segurtasun estrategietan eta errepresioan sakontzen du eta balore aberkoiak (errepublika, laikotasuna) goren bihurtuz**, ideologiak duen kontrol eta hertsatze gaitasuna indartu egiten du.

2.1.4. Ezker eta herri-klaseen ordezkartza-krisia

Azken udal eta europar hauteskundeetan eskuinak eta eskuin muturrak izandako igoera ikusirik, ezker bere historiaren une zailenean zegoela esaten genuen. Azkartu diren erreforma liberalen aurrean protestak areagotu diren arren, Departamenduko bozak (2015eko martxoan) gainbehera honen adibide bilakatu dira. Abstentzioa izan da nagusi (%50etik gora), batez ere ezker tradizioa izan duten langile auzoetan, non %70era arte iritsi den. Abstentzioak esanahi politikoa agertzen du hauetan, gobernuaren politikekiko eta alderdiekiko atxikitasun ezaren adierazle izanik.

Eskuinak, batez ere eskuin muturrak, herri-klaseen bozka erakartzeko duen gaitasuna ez da berria. Marine Le Penek Fronte Nazionala alderdi gisa homologatzeko estrategia abiatzen du 2000tik aurrera eta egun 1700 hautetsi baino gehiago dituzte (Europar Parlamentuan, udaletxeetan, alkateak, Eskualde eta Departamenduetan). Adibide bat jartzearen, Departamenduko azken boza hauetan parte hartu duten herri-sektoreen %43ak FN bozkatu zuen (langileen %49a).

Ezker-muturraren edota alternatiba osatu dezaketen zatiketa ez da berria. Modu bateratuan agertu direnean erantzuna aktibatzen dutela erakutsi da (2005ean Europako Konstituzioa baliogabetzea lortu zuten, erreferendumean ezezkotak irabaztean %55ekin). Orduz geroztik, Front de Gauchek (Alderdi Komunista eta Parti de Gauche) eta sektore antikapitalistek (NPA) bakarka egin dute aurrera. Oro har, alderdikeriak dira indar metaketa egonkortzeko oztopo nagusia, eta hauen artean esanguratsuenak, Alderdi Komunistak instituzioekiko eta ondorioz Alderdi Sozialistarekiko aliantzaz duen dependentzia organikoa da. Bere zuzendaritza, koadro politiko eta alderdi finantziarioa hautetsiengandik jasotzen duen diru sarreren menpekota da, alderdiak dituen baliabide ekonomiko guztien %46a (Berdeen kasuan %29a eta PSFn %26a).

IV. EUSKAL HERRIA. BALDINTZA SOZIO-EKONOMIKOAK

1. EGOERA OROKORRAREN ARGAZKI LABURRA

1.1. TESTUINGURU OROKORRA

XIX. mendetik 1970. hamarkadara arte industria sektorea nagusia bazen ere, XX. mendearen bukaeratik zerbitzuen sektorea nagusitu da Euskal Herri osoan. Nekazaritza oinarritzko jarduera izan da luzez, egun, ordea, oso gutxi dira sektorean ari direnak.

Azken hamarkadei so eginez gero, **Hego Euskal Herriaren** kasuan, 1970-1990 artean industrian jarduten zuten lanpostuen %39a deuseztatu zen. 70. hamarkadan mundu mailako "petrolioaren krisiak" gurean eragina izan zuen: birmoldaketa industrialean islatu zen, lehenengo 79an eta gero 92an, euskal ekoizpen industrialaren sarea deseginez. Honekin batera, 80. hamarkadan sare instituzional autonomikoa eratzearekin, honek aurreko egoera mozorrotu eta sektore publikoan jardungo zuen langile kolektibo egonkor bati bide eman zion.

Hartara, ekonomia industrialetik zerbitzuen ekonomiara pasatu ginen eta, horrekin batera, produktu bakarreko ekoizpe-nerako joera duten enpresa multinazional batzuk pisua irabazi zuten enpresa txiki eta ertainen aurrean, euskal kapitala deslokalizatzen zen bitartean.

Ipar Euskal Herriaren kasuan, bi fenomeno izan behar ditugu kontuan: turismoaren nagusitasuna eta hazkunde demografikoa eta zahartzea. Honek ekonomia egoiliarren nagusitasuna ekarri du. Alegia, behin behineko (turistak) eta behin betiko (biztanleak) egoiliarren asetzeko jarduerak, komertzial zein publikoak. Ekonomia eredu honen ezaugarriek oinarri ahulak dituzte: dependiente da, lurraldearen garapenean (barne-kosta) desoreka sortzen ditu, etxebizitzaren espekulazioa, kualifikazio baxuko lanpostuen sorrera eta langileen baldintzen prekarizazioa. Honi gehitu behar zaio Frantzia ere austeritate eta zerbitzu sozialen murrizketa politikak aplikatzen ari dela, eta hau bereziki barnealdean da ikusgarria.

70. hamarkadatik aurrera, II. Mundu Guda ostean ezarritako Ongizate Estatuaren ereduaren suntsiketa sistematikoa hasi zen, neoliberalismoaren indartzearen eskutik. Honek langile eta kapitalaren arteko harremanetan aldaketak ekarri zituen, langileen lan baldintzek okerrera egin eta langile-klaseak boterea galduko duelarik kapitalaren aurrean.

Azken krisialdia, ostera, erasoan sakontzeko eta eredu neoliberalaren oinarriak inposatzeko erabilia izan da. Horrela, aurreko garaia ezaugarrituko zuten eta herri sektoreen babes mekanismo gisara funtzionatzen zuten elementu nagusienetan aldaketak ikus ditzakegu: lan harremanetan, hitzarmen kolektiboetan edota babes sozialaren murrizketan. Bitartean, langabezia zabaltzen da, enpleguaren prekarizazioa eta behin-behinekotasunaren hedatzen da.

Egoerari aurre egin eta etorkizunari begiratzeko funtsezkoa dugu herri moduan dugun bideragarritasunaz hausnartzea. Egungo krisialdiari aurre egiteko bi forma planteatu daitezkeela ikusten dugu: bata, abian den modua, lan kostuak murriztuz lehiakortasuna bilatzen duena; eta, bestea, eredu propio bat sortzearen bidez lehiakortasuna, lurraldeak zein biztanleriak dituen gaitasunak handituz.

1.2. EREDU EKONOMIKOAN ALDAKETAK AZKEN URTEOTAN

Ekoizpen sektoreei dagokienez, guztietan aldaketak izan dira azken 6 urteotan. Lehen sektoreak pisu ekonomiko txikia du, eta azken urteotan beherakada bizi izan du. Sektore industrialari dagokionez, eta nahiz eta joan den urtean ekoizpe-na zerbait bizkortu, galera orokorraz jabetzeko, 2008-2012 bitartean ekoizpen gaitasunaren %30 galdu zela da kontuan hartzeko zifra. Halaber, industriaren %60 inguru maila teknologiko txiki edo txiki - ertainekoa dela jakitea ere garrantzitsua da. Zerbitzu sektorea da gora egin duen bakarra aipatu epealdian, nahiz eta enpleguaren datuek bere horretan iraun eta, gainera, txikizko merkataritza sektorean atzerakada izan.

Bestelako aldaketa estrukturalekin batera, **finantza-ekonomiak geroz eta nagusitasun handiagoa du.** Gertaera honek

dituen ondorioen artean, operazio espekulatiboen gailentzea dago, ekonomia errealekiko duen geroz eta alde handiagoarekin. Krisiarekin, sektore hau indartu egin da, kapitalak berrordenatu eta finantza talde handitan kontzentraturik. Gertaera garrantzitsu bilakatu dira, batetik, Nafarroan CANen desagerpena eta bestetik EAEko aurrezki kutxak Kutxabanken batu eta banku bilakatzeko prozesua. Ekarriko dituen aldaketa ezberdinen artean nagusienetakoa kontrolarena da. Izan ere, proposatzen den egituratze berriarekin, kutxa eta erakunde publikoek boterea galduko dute, finantza eremuko pertsonen boterea handituko den bitartean.

Honekin batera gainera, orain arteko gestio politikoa hegemonizatu dituzten bi alderdiek, **PNV eta UPNk, azpiegitura handien eta hirigintzako makro-proiektuen garapenean oinarritutako politika ekonomikoa garatu izana azpimarratu behar da**, sare industriala ahuldu eta kontsumo eta zerbitzuetan oinarritutako jendarte eredua bultzatzen zen bitartean, sozialki beharrezkoa ez ziren egiturak martxan jarri, instituzioen egungo eta etorkizuneko aurrekontuak hipotekatuz eta lurraldean txikizioa eraginez. Ereduek honek euskal instituzioen jardun osoa baldintzatu du, sare klientelarrak sortuz, gastua obra publikora bideratuz eta lobby zehatz batzuen pisua indartuz.

Kontuan izan behar den beste gauza bat da ea Euskal Herriko kapitala non inbertitzen den. Zentzu horretan, datuak argigarriak dira, 2008-2012 epealdian atzerrian 13.382 milioi euro inbertitu ziren eta gurean 1.527 milioi besterik ez.

Sektorekako argazki honek zera uzten du agerian: prekarizazio handia, maila teknologiko eskasa, eta kualifikazio txikiko zerbitzu sektorearen nagusitasuna eta, batez ere, kapitala atzerrian inbertitzen dela. Gainera, ezaugarriak hartzen duten pisua ikusirik, elementu hauek estruktural bihurtzen ari dira.

Guztiarekin, beharrezko deritzogu ideia bat indartzea: egitura ekonomikoan izan diren aldaketak ez daudela soilik merkatuaren mugimenduei loturik. Horren parean jarri behar ditugu botere gune ezberdinetatik hartu izan diren erabaki politikoak, eredu neoliberalaren oinarriak indartzen dituzten erabakiak, alegia.

1.3. DESBERDINTASUNEN ETA DUALIZAZIOAREN SEDIMENTAZIOA

Adierazle makro-ekonomikoen nolabaiteko hazkundearekin batera, pobrezia eta prekarietateak ere gora egiten ari da. Dinamika honek klase sozialen arteko geroz eta **dualizazio** handiagoa uzten du agerian.

Argazki orokor honen parte dira diru sarreren eta bereziki soldaten murrizketak, langabeziaren zein behin behineko kontratuen gorakada, lanaldi partzialaren hedapena eta austeritate politiken bidez zerbitzu publikoetan izandako murrizketekin babes sozialaren galera. Aldagaiak hauek dira eta beren ondorioak hurrengoak: bizi-prekarietatearen zabalpena, pobrezia hedatzea eta bazterketa arriskua areagotzea. Klase ertainek oraindik pisu nagusia izan arren, krisiak polarizazio joera ekarri du. Emakume, gazte, atzeritar eta lan egonkorrik gabeak dira, batez ere, gehien pairatzen dutenak.

Nola ulertu datu makro - ekonomikoen eta herri sektoreen egoera kaskartzearen artean dagoen kontraesan hau? Soldata errentak jaisten diren heinean, enpresa errentek gora egiten dute, kapitalak geroz eta botere gehiago duen egoeran.

Herri sektoreen egoera kaskartzen doan heinean, egoera hori arintzeko funtzioa izan dezaketen **birbanaketa elementuek** ere bide bera hartu dute, administrazio ezberdinetatik egiten den gastu publikoa, BPGarekiko erreferentzian, jaisten ari baita, edota, igo den kasuetan ez baita inondik inora proportzionala sortu den egoerarekin.

Egoeraren beste adierazle nagusi bi ditugu, batetik oraindik orain **zerga sistemak** enpresaburuen irabazien mesedetara dagoela, eta, bestetik, langileen babeserako den **negoziazio kolektiboaren esparrua** kaltetzeko erasoak areagotu direla, harremanak indibidualizatzeko saiakerak egiten diren bitartean eta geroz eta langile gehiago negoziazio kolektiboaren bidez araututa ez dauden lanbideetan dauden bitartean. Aipaturiko adierazleen egoerak argi uzten du Euskal Herrian ematen den aberastasunaren banaketa era bat desorekatua dela.

2. EUSKAL HERRIKO PANORAMA EKONOMIKOA

Ondorengo atalean, aurreko lerroetan estruktural gisara aurkeztutako aldagaiek azken hilabeteetan erakutsitako aldaketak azalduko ditugu, joerak mantentzen diren edo ez ikusteko. Baina, lehenik eta behin, hona hemen Euskal Herriko egoera sozioekonomikoaren argazki arin bat egiteko zenbait datu:

ENPLEGUA ETA LANGABEZIA			2013	2014
Jarduera tasa EH			73,5	73,6
Jarduera tasa EB28			71,9	
Aldi baterako kontratuen tasa			93,89	93,55
Langabezia tasa EH			16,5	15,8
Langabezia tasa EB28			10,8	10,2
Langabezia tasa HEH (INE)			16,9	16,2
Gazteen langabezi tasa EB28			23,6	22,1
Gazteen langabezi tasa HEH			26,7	25,4
Emakumeen langabezi tasa EH			16,5	15,7
Emakumeen langabezi tasa EB28			10,2	10,9
Emakumeen langabezi tasa HEH			17	16,1
ENPLEGU	ERREGULAZIOEK	KALTETUTAKO	2013	2014
Orotara			54.758	25.410
Aldea orotara			--	- 53,6
BARNE PRODUKTU GORDINA				
BPG EH (aldearen %)			-1,0	1,2
BPG EAE (aldearen %)			-0,6	1,9
BPG Nafarroan (aldearen %)			-0,6	2,1
BPG Europar Batasunean			1	1,3

2.1 LANGABEZIA ETA BIZI BALDINTZEN PREKARIZAZIOA

2.1.1.- Langabezia behera eta prekarietatea gora

2014. urtean, mantso bada ere, goranzko joera hartu du landunen kopuruak Euskal Herrian. **2014ko langabezia tasa** %15,8koa izan da, 2013koa baino 0,6 puntu txikiagoa. Dena dela, kontuan izan behar da 2007 eta 2014 artean **landunen kopuruak** %8,7ko beherakada izan duela.

langabeziaren
beherakada
txikia eta
prekarietatearen
gorakada
nabarmena

Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herriaren artean aldea dago. Oro har, krisialdiaren garai osoa kontuan izanik, krisiaren ondorioak arinagoak izaten ari dira Ipar Euskal Herrian. Hala ere, Baionako Merkataritza Ganberak bildutako 2014ko datuek langabezia igotzen ari dela adierazten dute, batez ere eraikuntzan eta ostalaritzan. Esaterako, 2014ko ekainean 11.746 langabetu gehiago zeuden, iazko urtetik alderatuta %2,5 gehiago. Gainera, horietatik %41,7k urtebete baino gehiago eman dute langabezian eta gehienak 50 urtetik gorakoak dira. Datuok kezagarritzat hartuak izan dira, batez ere Ipar Euskal Herriko ekonomia zerbitzuen sektorearen menpekoea baita eta enpleguaren zati nagusia zerbitzuetatik baitator.

Hego Euskal Herriko egoera bestelakoa da. Krisi garaiko zazpi urteetan izandako lanpostuen batz besteko beherakada %10ekoa izan da. 2014ko datuen arabera %16,2koa da langabezi tasa, Europako beste herrialdeekin alderaturik laugarren tasa altuena, Europako batz besteko tasa 6,4 puntutan gaindituz. Administrazio eremuei dagokionez, eta 2014ko datuei erreparatuta, EAEko langabezia tasa %16,6koa eta Nafarroakoa %14,9koa izan da.

Nafarroaren bilakaerari dagokionez, kontratuen igoera eman da. Krisiaren hasieratik hona industria indarra galtzen joan da eta, aldiz, zerbitzuen proportzioak gora egin du. 2014ko datuen arabera, aurreko urtean baino %136 kontratazio gehiago sinatu dira. Nafarroako eskualde gehienetan igo da kontratazioa. Dena den, argi ibili behar datuak irakurtzean, izan ere krisiaren bilakaera garaian Nafarroa izan baita kontratu mugagabeak gehien murriztu eta aldi baterakoak eta gainera oso epe laburrekoak handitu dituen herrialdea.

Langabeziaren izaerari dagokionez, nabarmentzeko datua da iraupen luzeko langabeziak duen pisua. Izan ere, Hego Euskal Herriko langabetu guztien artean %63k urte bat baino gehiago eman du egoera horretan, horrek dakarren egoera larriarekin.

Bestetik, langabezia tasaren beherakadaren arrazoiaren artean **migrazio saldoak** ere aurkitu ditzakegu. 2014an Hego Euskal Herrian 3.175 izan dira atzerrira joan direnak, etorritakoak baino gehiago eta, zenbaki hauek 2010etik joandakoei gehituz gero, Euskal Herriak kanpora joandako 48.038 pertsonaz ariko ginateke.

**langabeziaren
izaera:
iraupen luzeko
langabeziak
pisu handia**

2.1.2.- Emakumeak eta gazteak, prekarietatearen jo puntuan

2014ko datuen arabera **parekatu egin dira gizon eta emakume landunen kopuruak**: %53 gizonekoak eta %47 emakumezkoak. Horren arrazoia gizonen enplegua jaitxi izana da, emakumeen enpleguak hobeto iraun duen bitartean. Edozelan, oso kontuan hartzekoa da prekarietatea asko handitu dela, bereziki emakumeek lan egiten duten esparruetan.

Prekarietatearen adierazle nagusienetakoa **aldi baterako kontratazioa** dugu. 2014ko Euskal Herri mailako datuak eskuan, langileen %21,1a ari da aldi baterako kontratuekin lanean. Hala ere, generokako banaketa argigarria da: gizonen aldi batekotasun tasa %18koa izan den bitartean, emakumeena %24koa izan baita.

**emakumeak:
aldi baterako
kontratuak,
partzialak eta
eremu
prekarioan**

Kontratu partzialen kopurua, hau da, lanaldi ez osoak, lanaldi erdiak edota herenak, baldintza kaskarren adierazle garrantzitsua da. Hego Euskal Herriaren kasuan, 2014an sinatutako kontratuen %36,9 lanaldi partzialekoa izan zen. Bestetik, nahiz eta oro har Euskal Herriko landunen %17,5ak lanaldi partzialeko kontratua izan, **bost kontratu partzialetatik lau emakumeek betetzen dituzte**. Gainera, ekonomikoki hobekien sari-tzen diren lanetan gizonetakoak dihardute, emakumezkoak prekarizatuta dauden sektoreetan lan egiten duten bitartean: ostalaritzan, merkataritzan, garbiketa lanetan...

Aipatzeko datua da, Europar Batasunarekin alderatzerakoan, lanaldi partzialetan emakumeen tasa handia duten herrialdeen parean kokatzen dela Euskal Herria. Baina beste herrialdeekin duen ezberdintasunak garrantzia du: hauetan, Euskal Herriarekin alderatuta, gizarte politikek lanaldi partzialeko kontratua duten pertsonen gutxieneko autonomia bermatzen baitute.

Gazteen langabezia tasa oso altua da oraindik eta dagoen lana prekarioa da. 15-24 urte arteko gazteen jardura tasa %29,4koa da eta, aldi berean, langabezia tasa altua: 15-24 urte artekoan kasuan %43,3koa eta 25-34 urte artekoena %20,9koa.

Ipar eta Hego Euskal Herriko kasuen artean, tasa orokorren kasuan bezala, ezberdintasunak daude. Jardura tasari dagokionez, esaterako, Ipar Euskal Herrian 20-24 urte artekoen tasa %57,5koa den bitartean, hegoaldekoa %28,7koa da. Hego Euskal Herriko gazteen langabezia tasa %25,4koa da.

**gazteak:
langabezia
altua, kontratu
partzialak,
etorkizuna
kolokan**

Arazoa, langabezia ez ezik, lanaren kalitatea ere bada. Hego Euskal Herriaren kasuan bederen, **lana duten 15-34 urteko gazteen %22,6ak kontratu partziala** du, Euskal Herriko lan partzialaren tasa orokorra %16,4 den bitartean. Honek inpakto zuzena dauka soldatetan.

Hau guztia gertatzen ari da goi mailako ikasketadun gazteen proportzio altuko herri batean eta ondorioz, teoriarik, lana aurkitzeko erraztasun gehiago leudekeen herrialdean. Honen ondorioz, lan merkatuaren egoera ikusirik, gazteek ikasketaldia luzatu egiten dute, batzuek Euskal Herriatik ihes egiten duten bitartean.

Bukatzeko, oso kontuan izateko datu bat da Hego Euskal Herrian langabezian dauden pertsonen erdiak dagoeneko ez duela langabezia saririk jasotzen eta, ondorioz, baldintza gogorrei egin behar diete aurre. 2008ko irailean langabezian zeudenetatik %67,4ak langabezi saria bazuen, 2014ko garai bererako %49,4a jaitxi zen zifra hori. Langabezian dauden 100.000 langile baino gehiagok ez du inolako babesik jasotzen eta, gainera, prestazioaren diru kantitateak ere behera egin du: 2012an 924 euro izatetik, 2014an 864 euro izatera. Urtez urte langabezia saria betetzera bideratutako gastua murriztuz joan da, eta murrizketa hau ez dator bat langabeziaren bilakaerarekin, langabetuen kopuruak gora egin baitu urteotan.

**langabezian
dauden perso-
nen erdiak
dagoeneko ez
du jasotzen
langabezi saririk**

2.2. BIRBANAKETA ETA BABES MEKANISMOAK AHULTZEN

Atal honetan Euskal Herrian sortzen den aberastasun ekonomikoa nola banatzen den arakutzen da, horretarako dauden banaketa modu ezberdinak azterturik.

2.2.1.- Soldata zein prestazioak murrizten

**soldatak
behera eta
enpresarien
irabaziak gora**

Soldatetatik kendu eta enpresaburuen irabazietara pasatutako diru kopurua goraka joan da, batez ere 2009 eta 2011. urteetatik aurrera. Hamarkada bateko ikuspegiaz, Euskal Herriak sortutako aberastasun orokorra (BPGa) erreferentzia moduan erabilia, aberastasun horretatik 2001ean soldatak ordaintzeko %51,5a erabiltzen zen bitartean, 2012an zenbaki hori %46,7ra jaitsi zen. Europan ere bilakaera beheranzkoa izan arren, batetik besterako aldea ez da hainbestekoa: 2001ean %50,2 eta 2013an %49,4.

Krisiaren bilakaeran zehar **soldaten beheranzko joera orokorra** izan da, eta oraindik orain izaten ari da. Areago, errekupeazioaz hitz egiten den garaiotan, soldatek beheranzko joera erakusten jarraitzen dute.

2013eko datuen arabera, esate baterako, Hego Euskal Herrian langileen %21,5a (INE-ren datuen arabera) ez zen hilabeteen 1000 euro irabaztera heltzen. Guzti honetan lanaldi motak zeresan handia du. Lanaldi osoa zutenetatik, %9ak 1043 euro baino gutxiago irabazi zuen; lanaldi partziala zutenetatik %80a izan zen bitartean.

2010 eta 2013 urte artean, batz besteko soldata Nafarroan %1,3a eta EAEn %3,1a igo zen. Baina kontuan hartzen baldin badugu epealdi berdinean inflazio metatua %7,1ekoa izan zela, horrek esan nahi du soldata bidezko eros-ahalmena nabarmen jaitsi dela.

Edozein kasutan, argi izan behar da soldaten devaluazioak ez dietela pertsona guztiei berdin eragiten eta kasu honetan soldata baxuena dutenak dira zigortuenak. 2010-2013 epealdian soldatarik baxuenek %28,6ko batz - besteko galera izan dute, gehien irabazten dutenen jaitsiera soilik %2,2koa izan den bitartean.

Horretaz gain, **soldata baxuenen eta altuenen arteko aldea** hazi egin da. 2010ean soldata baxuenaren hilabeteko sarre- ra batz bestekoa 488,55 eurokoa zen bitartean, altuenarena 4.312,54an zegoena. Egoera hobetu beharrean, alderantziz- ko norabidea hartu du: 2013an gutxien irabazten dutenen batz bestekoa 383,64 eurotara jaitsi den bitartean, gehien ira- bazten dutenena 4.522,54 eurotara igo da.

Gainera, Hego Euskal Herrian, Espainiako patronalak eta sindikatu nagusiek sinatutako akordioetan, erabili izan den indi- ze nagusia, KPIa, soldata igoeren kalkulua egiteko tresna gisa ezabatu nahi dute, horrela langileek erreferentzia finkorik izan ez dezaten. Nahiz eta oraindik orain forma osoa ez hartu aldaketak, dagoeneko negoziazio mahaietara eramaten hasi dira. Honek, soldaten jaitsiera dakar, enpresariak ekoizpenaren araberrako errenta banaketa inposatu nahi baitute, eta ez ordea bizitza errearen kostearen araberrakoa.

Aldiz, **laguntza edo prestazio izaera (diru kopuru oso gutxiko laguntzak) duten diru laguntza hartzaileen kopurua geroz eta handiagoa da**. 2008 eta 2014 artean, laguntza mota hauen kopuruak %28,2tik %39,7ra igo da. Baina mota honetako laguntzetara bideratutako gastua jaitsi egin da: 2014ko abenduko datuen arabera, aurreko urtetik %21,4ko murrizketa izan da eta jende askok ez du laguntzarik edo beharko lukeen laguntza jasotzen.

**hego euskal
herrian
biztanleriaren
%19,35a
(553.996)
pobreziaren
mugaren
azpitik bizi da**

Honen ondorio zuzena da **Euskal Herriko pobrezia tasaren maila**. Europar Batasuneko irizpideen arabera, herrialde bakoitzeko batez besteko errentaren %60aren baliokidea beharko luke diru sarrera minimoak. Hortik beherako sarrerak pobrezia egoeraren adierazleak lirateke. Hartara, 2014ko datuen arabera, Hego Euskal Herrian biztanleriaren %19,35a (553.996) pobreziaren mugaren azpitik bizi da. Nafarroan 120.386 lagun bizi dira minimotzat hartzen den urteko 6.542 eurotik beherako sarreretatik (NEI), eta EAEn, 433.610 pertsona bizi dira 7.382 euro baino gutxiagorekin (Eustat).

Foessaren, Espainia mailako Gizarte Ikerketak Sustatzeko Fundazioaren txostenaren arabera, Euskal Herriko pobrezia eta prekarietateak berezko ezaugarriak ditu: etxebizitzetako gastua onargarria baino

askoz altuagoa izatea; gazteak lan merkatutik kanpo dagoen belaunaldia izatea zein 55 urtetik gorakoen iraupen luzeko lan-gabezia gorakorra; eta pobrezia larriaren tasa bere horretan irauteaz gain, pobrezia erlatiboaren igoera, besteak beste.

2.2.2.- Babes sozialaren pribatizazioa

Begi bistakoa da gastu publikoan eta bereziki zerbitzu publikoei begirako politiketan atzera egiten ari dela. Baina, horretaz gain, zerbitzuok liberalizatu eta pribatizatzearen aldeko lege ekimenak babesten ari dira. Esparru askotan izan dira erasoak: osasun alorrean ber-ordainketaren ezarpena, zerrendetan itxaron beharreko denbora handitzea edo lanpostuen murrizketak; hezkuntzan lanpostuen murrizketa nabarmena zein beka geroz eta urriagoak edota etxebizitza babes publikotik erabat desagertzen hastea.

Ikus daitekeen bezala erasoaldia esparru ezberdinetan izaten ari da eta azken hilabeteotan joera hau indartzen duten urratsak ere ikusi ahal izan ditugu. Horien artean, besteak beste, **kontziliazio laguntzen ingurukoak, aurrekontu orokorretan gastu sozialera bideraturiko partiden beherakada edota EAEko hiru diputazioen, Jaurilaritzaren eta Eudelen artean lotutako erakunde arteko akordioa zerbitzu sozialak babesteko**. Azken hau, adostasun maila ikusita, balio kualitatibokoa bada, baina, edukari erreparatuta, ez da nahikoa eta egungo mugak gainditzeko ausardia gutxikoa da.

Azken aldiko beste eraso nabarmen bat aipatzearen, urtarilaren 1etik aurrera Espainiar Estatu osoan martxan dagoen **mutuen lege berria** dugu. Honek, besteak beste, mutualitateei ezgaitasun laboralak kontrolatzeko eta kudeatzeko ahalmen handiagoak ematen dizkie. Sindikatu guztiak azaldu ziren kontra; langileriaren kontrako erasotzat hartu zuten, osasun eskubidearen kontra doalako eta zerbitzu publikoen pribatizazioan sakontzen duelako. Lege berriaren aurka Euskal Herriko sindikatu guztiak agertu arren, CCOO eta UGT barne, PNV eta CiUren babesarekin egin zuen aurrera.

2.2.3.- Aurrekontuak: behar sozialetatik geroz eta urrutiago

Aurrekontuak politika ekonomikoaren garapenerako oinarritzko tresnak dira. Hego Euskal Herrian izan duten bilakaera ikusirik, 2015erako aurrekontuek, iazkoekin alderatuta: bai EAEkoek bai Nafarroakoek igoera izan dute, %4,1 eta %1, hurrenez hurren. Edonola ere, **aurrekontuak igo arren, zati handi bat zorra ordaintzera bideratuko dela eta ez enplegua sortzera edo arlo sozialeko gastuetara**.

Hala ere, 2008. urtekoekin parekatu behar dira, hau da, krisiak eragin gabeko aurrekontuekin. Hartara, 2015erako aurreikusten den gastu erreala ez da iristen 2008ko balioetara; areago, %8,20 jaitsi da. Jaitsiera hau askoz nabarmenagoa da Nafarroako kasuan, gastu erreala %20 jaitsi baita.

Gainera, gastuaren norabidea aztertu egin behar da. Gastu sozialaren beherakada nabarmena den bitartean, zorraren interesen ordainketa, kupoaren ordainketa eta AHTa bezalako azpiegiturretan izandako gastuak emendatu dira.

Aurrekontuen inguruko hausnarketak bi elementu aztertzeraz garamatza: **batetik, datu absolutuetan diru bilketa fiskalaren jaitsiera**. 2008 eta 2015 artean, BPGa %0,3 besterik ez bada jaitsi ere, diru bilketa %14,82 jaitsi da. Bi arrazoi dira tarteko: bata, jarduera ekonomikoaren jaitsiera eta, bestea, iruzur fiskalaren igoera. Krisia iruzur fiskala areagotzeko erabilia izan da eta gainera presio fiskalaren beherakada eman da. Kapitalaren errentei trataera mesedegarria ematen zaien bitartean, herritarrei zuzenean eragiten dieten PFEZ edo BEZ bezalako zergek sekulako gorakada izan dute.

Nafarroaren kasuan erreforma fiskala dugu aipagai, izan ere 2014ko abenduan adostuko da UPN, PSN eta PPren babesarekin. Erreformak aldaketak ditu Pertsona Fisikoen Errenta, Sozietateak eta Ondasunen gaineko zergetan. Hau da, errenta baxuenak kaltetuko dira eta ondasun handi eta enpresen jabeek gutxiago ordaindu beharko dute. Modu horretan, ogasuneko teknikarien arabera 100 milioi euro gutxiago biltzea suposatuko du.

Bigarrenik, Hego Euskal Herriak duen aurrekontuen arloko autonomiaren galera ere agerian gelditzen ari da. Beti egon izan da Espainiar Estatuko legeen menpe, baina krisiarekin menpekotasun hau areagotu egin da. Bai Gasteizko bai Iruñeko Gobernuak Europako eta, batez ere, Estatuko Egonkortasun Legeei hertsiki loturik baitaude, batez ere defizita kontrolatzeko ikuspegian.

Horretaz gain, aurrekontuak -duten dimentsio politikoaren seinale- alderdien arteko joko politikorako arrazoa direla ere aipatzekoa da. EAEren kasuan, esate baterako, naturaren aurkakotzat hartuak izan daitezkeen paktuak ikusi izan ditugu, egonkortasuna instituzionala ziurtatzeko asmoz eta baita ezkerreko abertzaletasunari espazioa kentzeko helburuarekin. Hartara, ikusi ahal izan dugu nola 2015eko EAE zein Bizkaiko aurrekontuak aurrera atera izan diren PSE eta PNVren arteko lankidetzan; eta PPK gobernatzan duen Araban eta Bilduk gobernatzan duen Gipuzkoan, ordea, prorrogatuak izan direla babes nahikorik ez dutelako jaso.

Hortaz, aurrekontuak behar sozialetara bideratzetik urrun, joko politikoan eta pobrezia zein prekarietate sozialean sakontzeko tresna moduan erabiltzen diren gaur egun.

2.2.4.- Kutxabank: kontrol publikotik pribatura

Gipuzkoako Kutxa banku fundazio bihurtu ostean, Kutxabanken pribatizazio operazioaren lehen fasea bukatua dago. Orain, ordea, bigarren urratsa egiten hasiak dira: banketxea kapital pribatuari irekitzea, burtsan kotizatzerara helderaino marraztutako norabidean.

Operazio honetan, Espainiar Bankuak berak ere bere mugimenduak egin ditu, bereziki Kutxabanken gaineko kontrol eta baldintzak gogortuta. Honek, eremuaren gainean eskumena dutenen artean eztabaida sortu du. Eztabaida honetan PNV bera ere erabateko pribatizazioaren aurka agertu da.

Horren gibeletik etorri izan dira bestelako albiste zenbait. Ezagunena 2014ko azaroan Mario Fernandezek Kutxabankeko lehen-dakari izateari utzi izana, egitasmoaren inguruan kontsentsu falta dagoelako arrazoipean. Bere orde, Villalabeitia jarri zen. Edozein kasutan, badirudi mugimendu berriak egitea gerorako utzi dituztela, pribatizazioaren aurka sortutako mugimenduak baldintzatuta zein hauteskundeak gainean direlako. Horregatik, ulertu behar da PNVren posizioa taktikoa dela, jakitun baitira pribatizazio urrats berriak egitea beharrezkoa izango dela.

Honen guztiaren aurrean, EH Bilduk pribatizazioaren aurkako proposamena aurkeztu du, aurretik eragile sozial, politiko zein sindikalek egindako proposamenen ildo beretik. Guztiz egingarria litzatekeen proposamena, baina eragile politiko nagusien aldetik balioa kendu eta erridikulizatzea beste jarrerarik jaso ez duena, EH Bilduk izan dezakeen alternatiba gaitasuna blokeatzeko asmotan.

Arian arian, deskapitalizazioan zein patrimonioaren salmentan urratsak egiten jarraitu dute, besteak beste 2014an zehar ondare higiezinak zein kreditu pertsonalen pakete handi bat AEBetako inbertsio fondo bati saldurik. Horrela, logika neoliberalaren bidean urrats sakonak egiten doaz. Finean, Euskal Herrian sortzen den aberastasuna lurraldean bertan inbertitzera bideratzeari atea ixten dizkiete, alde batetik kontrol zein jabetza publikoa deuseztatuta, eta horrekin batera kontrola eta jabetza enpresa pribatu handien eskuetan utzita.

2.3. EREDU EKONOMIKOAREN ALDAKETA. INDUSTRIAREN GALERA

Aurreko atalean adierazi bezala, Euskal Herriko eredu ekonomikoa aldaketa prozesu luzean sartua dago. Bereziki, industriaren galera orokorra gertatzen ari da. **Industrian galdutako lanpostuen tamaina nabarmena da**, zerbitzuen sektorea indartu den bitartean. 2014. urteko datuek joera hori berresten dute, nahiz eta joan zaigun urtean lanpostuetan gorakada txikia izan, Bizkaian eta bereziki Nafarroan. Edozein kasutan, krisian deuseztatutako enplegua lortzetik urrun gaude oraindik.

Euskal Herriko eredu ekonomikoaren baitan industria galtzen ari den pisua aztertzeko, adierazle ezberdinak ditugu. Horien artean, sektoreko lanpostuen galera, lan erreformen ezarpena, enpresen itxiera, ikerketa eta garapenean inbertsiorik eza edota enpresen finantziatorik eza.

Lanpostuetatik harago, oro har, azken urteotan aberastasun industrialak behera egin du eta beherakada hau gaitasun industrialaren galerari lotu dakiok: enpresen itxiera zein ekoizpen errendimendu baxuagoa. 2014. urtean 348 lan zentro itxi ziren eta 2008. urtetik 2.521. Tamaina ezberdinetako enpresak, sektore ezberdinetakoak (automotzioak, elektrotresnetakoak, erai-

kuntzako hornitzaileak,...), teknologia maila ezberdinetakoak eta arrazoi ezberdinengatik (deslokalizazioak, konkurtsoak, koste finantzieroa, lan karga...)

Bai lanpostuen galera, bai aberastasun industrialaren bilakaerak merkatuaren zein ekonomia atzeraldiarekin lotura izan arren, zeresan handia dute industria sektoreari begirako inbertsio politikekin, izan hauek publikoak ala izan pribatuak. Zentzu honetan, industria inbertsioen dinamika ere beherakorra izan da. **2007-2013 bitartean atzeritik egindako inbertsioak 3.872,1 milioitakoak ziren bitartean, euskal kapitalak atzerrian egindako inbertsioak 42.723,8 milioitakoak izan ziren**, gehienak elektrizitatearen zein finantza eta aseguruaren sektorean. Bi sektore hauetan pisu ekonomiko berezia dute Iberdrola eta BBVAk.

Beste horrenbeste gertatzen da industriaren garapenerako klabea den ikerkuntza eta garapenerako inbertsioetan (I+D+I). 2014an %4ko beherakada izan da arlo honetan. Honi zuzen lotuta, beste argazki argigarri bat dugu: enpresen %60ak teknologi baxuko produktuak ekoizten dituzte. Hortaz, **lehiatzeko orduan oinarria ez da ekoizpenaren balio erantsia, baizik eta soldaten murrizketa, lan baldintzen kaskartzearekin batera.**

Egoera honi bestelako zailtasun batzuk ere gehitu behar zaizkio. Alde batetik, energia kostuen pisu handia: azken 7 urteetan energia kostea %74,5 hazi da eta honek aktibitate industrialean eragin zuzena du, enpresa askotan energia kostea soldaten kostea baino askoz handiagoa izan da. Eta bestetik, enpresen finantziatorako interes altuak: Espainiar Estatuan kredituetarako interes medioa %10 zen, Europar %5,95 zen bitartean.

Honen guztiaren atzean ikus dezakegu, alde batetik lan erreformen aplikazioaren ondorioak daudela, eta bestetik, industriari begirako politika publiko sendoen gabezia. Erreforma laboralaren eta bertatik eratorritako legeei esker enpresaburuek indarra hartu dute negoziazio kolektiboaren baldintzak jartzeko orduan. Eta gainera, kaleratzeak edota deslokalizazioak bezalako errealitateen aurrean, enpresaburuek ez dute administrazioaren inongo onespenez behar. Zentzu honetan, EAEko administrazioaren aldetik ez da politika propio sendorik ageri, ez erasoei erantzuteko, ezta industria berrindartzeko ere. Aitzitik, Espainiar Gobernuaren antzera, errekonfigurazioaren inguruan hitz egiten da, agertu diren emaitza ekonomiko hobeak langileen esplotazioan sakonduz lortzen ari diren bitartean.

Egoerak baditu bestelako ondorio batzuk ere. Euskal Herrian, historikoki enpresa ulertzeko ereduari dagokionez, aldaketak gertatzen ari dira. **Berehalako etekin ekonomikoa eskuratzeko xedez, herriari eta herriaren garapenari lotutako enpresa ereduaren orde, geroz eta abiadura handiagoan multinazionalen eta finantza inbertsioen esanetara dauden enpresa ereduak indartzen ari da.** Are larriago gainera, hemengo enpresak finantzatzeko dituen Kutxabank bezalako tresnen gabezia kontrol publikoaren galerarekin.

2.4. LAN HARREMANAK ETA AKTORE EKONOMIKOAK

2.4.1.- Lan harremanak

Negoiazio kolektiboa tresna garrantzitsua da langileen soldadak eta lan baldintzak hitzarmenen bidez arautzeko. Azken lan erreformarekin (2012), lan merkatua desarteztearekin batera, tresna honi balioa kendu nahi izan zaio. Helburua negoziazio kolektiboa indargabetzea izan da, langileen eskubideen defentsarako bitartekorik gabe uzteko, eta horrela enpresaburuei beraien baldintzak ezartzeko aukerak erraztuz.

Argitaratutako azken datuetara joz gero (2015eko otsaila), ikus dezakegu EAEn ia 100.000 langile hitzarmenik gabe daudela eta beste 304.666 berriro gabeko hitzarmenarekin. Nafarroako egoera bestelakoa da, CCOO eta UGTk gehiengoak izanik, ez baitago blokeorik eta hitzarmenak sinatzen ari baitira. Baina horrek ez du esan nahi Nafarroako langileen egoera hobe denik, enpleguaren baldintzak edo soldatei erreparatu gero. Patronalaren parametroetan sinatutako hitzarmenek ez dute inolaz ere balio langabezia, prekarietatea eta pobrezia aurre egiteko.

Gobernuak lan harreman zein negoziazio kolektiboak duten garrantziaren jakitun dira eta patronalaren eskakizunen araberako lan mundua ezartzeko erabiltzea erabaki dute. Zentzu honetan, abenduaren 4an, Urkulluren legegintzaldian lehen aldiz, EAEn "elkarrikeria sozialerako mahaia" abian jarri zuten, baina ELA eta LABek osatzen duten gehiengo sindikalarik parte hartzerik gabe. Azken hauek, mahaia eratzearen atzean ez dute propaganda egiteko asmoa besterik ikusten,

oinarrian ez baitago inongo hobekuntzarako proposamenik. Mahaian Eusko Jaurlaritzak, Confebaskek eta CCOO - UGTk parte hartuko dute. Hortaz, gehiengo sindikalaren parte hartzerik gabe, negoziazio kolektiboa blokeo egoeran dago.

Mahaia biltzeko atarietan, egoera gehiago gaiztotuko da ELA eta LABek publiko egiten dutenean **Confebaskek CEOEri sindikatuok legez kanpo uzteko egindako proposamena**. Confebasken dokumentuak sindikatuen estatutuen gaineko dekretuaren zirriborroari jarritako hainbat alegazio biltzen ditu eta bertan erakunde baten jarduna bertan behera uzteko ahalmena izatea eskatzen da, sindikatuak bere estatutuak betetzen ez dituela frogatzen bada. Finean, patronalaren erasoan aurrean borroka jarrera mantentzen duten sindikatuak bidetik kentzeko eskumena.

Nafarroan, abenduaren 19an osatuko da mahaia. Bertan, CEN, Nafarroako Gobernuak eta CCOO - UGTk parte hartuko dute. Herrialdean aldaketaren aldeko ahots eta mugimenduak indartzen doazen bitartean, **PSN eta UPNk "Elkarrizketa sozialerako" mahaia jartzen dute abian, beste esparru batzuetan bezala, honetan ere status quo blindatzeko asmotan**. Izan ere, mahaiaren eraketak eta batez ere CCOO - UGT erregimenaren nahietara lerrokatzeak diru kopuru handien eskuratzea baita-karkie. Horretara, patronalaren interesak dira nagusitzen direnak.

Gauzak horrela, enpresaz enpresako borroka sindikal zein negoziazio kolektiboaren aldeko borrokarekin batera, ezinbestekoa izango da aurrerantzean lan harremanen eredu zein lan munduaren antolaketa berri bat eraikitzen joatea. Zentzu honetan, aintzakotzak hartu eta aztertzeak dira eremu ezberdinetatik lan harremanen eredu berriaren inguruan zabaltzen ari diren eztabaidak, bereziki begi bistatik galdu ezin dezakegun Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren eraikuntzara begira.

Bestalde, Ipar Euskal Herrian, 2015ko otsailean elkarrizketa sozialerako mahaia eratuko dute, Garapen Kontseiluaren zein Zuberora, Lapurdi eta Nafarroa Behereko eragileko sozial eta sindikalen zein patronal elkarte bultzadarekin. Lan munduarekin lotutako erabakiak, Parisetik etorri beharrean, lurraldean bertan eta elkarlanean hartzeko helburua dauka. CFDT, CFE - CGC, CFTC eta LAB sindikatuak kideek parte hartzen dute, besteak beste, eta baita Medef, CGPME eta UPA patronaletako arduradunek ere. Lurraldearen diagnostiko bat egin ondoren, eragiteko lehentasunezko bost eremu zehaztu dituzte: 1) lan osasuna; 2) langileen formazioa dinamika ekonomikoa bizkortzeko; 3) enpresa txikien beharrak mutualizatzeko tresna; 4) eskola eta enpresen tarteko zubiak eraikitzea; 5) eta Coworking guneak (batez ere barnealdeari begira), enpresa txikiek, ekintzaileek edo euren kabuz lan egiten duten langileek espazio eta teknologia berriak partekatzeke.

2.4.2.- Krisia patronalean edo botere lehiak Confebask barnean?

2014ko uztaillean **Nuria Lopez de Gereñuk, Confebaskeko idazkari orokorrak, bere kargua utzi zuen**. Eman zuen arrazoia elkartean dauden barne desadostasun eta zatiketak izan ziren. Eztabaidaren funtsa Confebaskeko barne antolaketa omen da, zehazki esanda, elkartearen burokraziak edo egiturak izan behar duen pisu politikoa herrialdeko elkartearen aurrean. Bizkaiko enpresari elkarteak, CEBEKe, egitura politikoki indartzearen alde egiten duen bitartean, Gipuzkoako ADEGIk eta Arabako SEAK herrialdeko egituren autonomia errespetatzearen alde egingo lukete.

2014ko abenduan CEOEko hauteskundeak burutu ziren, eta hauetan enpresarien arteko kohesio falta irudikatu zen berriz. Bi kandidatu zeuden lehian: Antonio Garamendi bizkaitarra (Confebaskeko kandidatu izan dena) eta Juan Rosell katalana (orain arteko lehendakaria eta hauteskundeak irabazi dituen). **Garamendik Espainiar Gobernuari erreforma ekonomiko eta politikoetan neurri gogorragoak hartu behar dituela aldarrikatu du, besteak beste Katalunia eta PODEMOSen aurrean, lan malgutasunean, soldaten murrizketan edo greba eskubidean posizio argiagoa izan behar duela. Honekin batera, patronalak pisu eta autonomia politikoa irabazi behar duela defendatu du, patronala erabakigarria izan behar dela esateraino**. Kandidatu biek Espainiak dituen erronkei aurre egin ahal izateko PP-PSOEren arteko koalizio handia eskatu dute. Garamendik urrunago joan da eta Raxoiren dimisioa eskatu du, PPK irimotasun handiagoa azalduko duen lehendakaria behar duelakoan.

Honenbestez, bestelako aktoreak bezala, ikus dezakegu patronala bera ere krisi ekonomiko eta politikoaren aurrean birkokatzeko ari dela, bai bere proposamenak osatu eta inposatzen, baina baita bere burua antolatzen ere. Hartara, zeregin horretan aipatu ditugunak bezalako hainbat kontraesan sortzen zaizkio, nahiz eta funtsezko kontraesanik ez antzeman.

2.5. EREDUEN TALKA.

Azken hauteskundearen ondoren Diputazio zein udaletxeetako aldaketa instituzionalek politika publiko eta ekonomikoak uler-

tzeko orduan dauden ezberdintasunak agerian utzi dituzte: publikoak izan beharreko pisu handi edo txikiagoa, lanpostuak duintzearen edo ez duintzearen aldeko apustua, herritarren ongizateari hobekuntza dakarkien zerga politikak ezarri edo ez, prestazioen aukerak zabaldu edo ez edota genero ikuspegian eragin positiboa izango duten politika sozialak kontuan hartu edo ez.

Norabide honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako zenbait politika eta, oro har, erakutsi duen lan ikuspegia atentziaz aztertu beharrekoa dela uste dugu. Kudeaketa politiko instituzionala monopolizatu duten alderdi guztiek (autonomistak, erregionalistak edo espainol zaleak izan) egungo marko juridiko eta ekonomikoaren mugak edo ezaugarriak errespetatu dituzte. Berauen arteko aliantzak eta funtsezko erabakietan erakutsitako adostasunak erakusten duten moduan (Kutxabank, aurrekontu politika, elite ekonomikoaren mesedeko ogasuna eta autogobernuaren defentsa). Bilduk hartutako zenbait erabakik berriz instituzioek aldaketa politikoaren bidean eta eredu propio baten eraikuntzarako trantsizioan paper aktiboa jokatu dezaketela erakutsi dute. Hona adibide batzuk:

- Aurreko legegintzaldian eraikitako Gipuzkoa Aurrera fundazioa desegitea (PNVren estandarte izan dena: Diputazioa, Kutxa, Adeg, Mondragon Korporazioa eta Donostiako Merkataritza ganbarak osatua, gestio publikoaren pribatizazioaren erakuslea eta herrialdearen norabide estrategikoaren definizio eta kudeaketarako gune gisa hartua). Modu honetan, elite ekonomikoaren pisua gutxitu egin da diputazioaren jardunean.
- Zerbitzu sozialen kalitatearen mesedean, 3. adinekoen zentroetako langileen lan eskubideak betetzen direla ziurtatzeko konpromiso politiko eta ekonomikoa harturik (Kabia proiektua).
- Birziklatze ereduen inguruko eztabaidaren gainetik, errauskailu planta gelditzeak makro proiektuetan oinarritutako ereduaren aurrean (250 milioi euro aurrezteko ekarri duena) tokiko garapena bultzatzeko agentziak eta egitasmoen alde egitea.
- Kutxaren kontrol publikoa ziurtatzeko egindako ahaleginak, gainontzeko alderdi guztiek oztopatu dutena.

Politika instituzionalen ezberdintasunen adibide gorena ogasun politika izango litzake. Gipuzkoan martxan jarri den Aberastasunaren eta Fortuna Handien gainera Zergak (AFHZ) eta iruzur fiskalari aurre egiteko hartutako neurri ezberdinek (BPGrekin alderatuta, 2014ean Gipuzkoak Nafarroaren bikoitza eta Araba eta Bizkaiak baino %35 gehiago atzematea ekarri duena) gastu publikoaren finantziatorako nagusiki BEZ eta PFEZa (langileen bizkarrengan erortzen direnak) erabiltzea baino ekitatiboagoak diren neurriak daudela erakutsi du. Burujabetza ekonomikorik gabeko herrian eta globalizazio ekonomikoaren testuinguruan dauden mugak nabarmentzekoak diren arren. Zerga honen alderantzizko norabidean, 2014ean Bizkaia eta Araban Oinordetza eta Ondasunen Gainera zergari ezarri zaion %95eko beherapena dago, PNV/PP eta PSEren baieztokarekin aurrera egin duena.

3.EKONOMIA SOZIALAREN PROPOSAMENA

Bitartean, txikiak izan arren, parametro berri batzuen arabera jardura ekonomikoa proposatzen eta eraikitzen ari diren eragileak ari dira sortzen, bereziki kooperatiba berrien sorrerarekin. Euskal Herrian ekonomia sozialak historikoki pisua izan du. Alde batetik, nekazaritza eremuetan eratutako kooperatibak, bereziki Ipar Euskal Herrian, eta bestetik, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren inguruan eratutako sarea, neurri handi batean industrialak.

Proposamen hauen atzean ekonomia garatzeko beste eredu bat dago, irabazien maximalizazioa baino, helburu nagusia parte hartzaileen, komunitatearen zein inguruaren garapena duena. Teorikoki, bederen, kapitalismoaren ezaugarriak dituen enpresa ereduak ezberdinak dira, besteak beste enpresaren jabetza kolektiboa delako, erabakiak ere kolektiboak direlako, irabazien banaketa ekitatiboa delako edota izandako mozkinen zati bat komunitatearen garapen proiektuetara bideratzen delako.

Edonola ere, kontuan izan behar da ekonomia sozialaren mundua zabala eta anitza dela. Eta, nahiz eta guztiak multzo berean sartu, badira, esate baterako, ekoizpen bitartekoen jabetza kolektiboa izan arren, demokratikoak ez diren enpresak edota kapitalismoaren logikaren baitan jarduten dutenak.

Datuei so eginez gero, gaur egun ekonomia sozialak Euskal Herrian sortzen dituen lanpostuak 75.000 inguru dira, landunen artean %5,8, hain zuzen. Hauen artean gehienak kooperatibak dira, izan elkarlan, nekazaritza, etxebizitza, hezkuntza edo kreditu kooperatibak.

Hego Euskal Herrian kooperatiben kopuruak gora egin du krisialdiaren garaian, lana galdu duten askok auto-enpleguaren aldeko apustua egin baitute. Nafarroako kasuan 2014ko bigarren zatiko datuen arabera, sortutako hiru enplegu pribatutatik bi eremu honetakoak izan ziren.

EAEri dagokionez ere kooperatiben bidez sortutako lanpostuek gora egin dute, baita hauen izaeran aldaketak izan ere: kooperatiben erdiak baino gehiagok zerbitzuen sektorean dihardute, hamar langiletik beherakoak ugaritu dira eta hiriburu inguruan joan dira sortzen.

Bestetik, badira bestelako proposamenak ere, gauzak egiteko modu ezberdin huts batetik harago, eraldaketa sozial eta kapitalismoaren gaindipenaren ikuspegian kokatzen dutenak beraien eginkizuna. Besteak beste, adibide gisa, berrienetakoa Olatu Koop. ekimena dugu. Ekonomiaren ikuspegi eraldatzailean ulertu eta praktikan jartzen duten kooperatiba edo elkarteen arteko sarea ehuntzen diharduena. 2014ko maiatzean sortua, 2014ko urrian egin zuen lehen saretze eguna. Dagoeneko ekonomia sozial eta eraldatzaileko hamar egitasmo baino gehiago dira sare honen parte. Paraleloki, tankera honetako egitasmoak finantzatzeko tresnen sorreran ere suertatzen ari da. Horren adibide dugu Coop57, ekonomia soziala diharduten enpresak finantzatzeko tresna, Euskal Herrian ere egituratzen hasi dena.

Kontuan hartzekoa da ekonomia antolatzeko proposamen honek atzean duen dimentsio sozial eta politikoa. Alde bate-tik, bizitza bere osotasunean ulertzeko era proposatzen duelako, bizitzaren edota naturaren iraunkortasuna erdigunean jarrita. Bestetik, elite ekonomiko zein administratiboaren logikatik kanpo, iniziatiba antolatutako komunitatean jartzen duelako, horizontalki eta autogestio-antolamenduaz. Eta azkenik, kontuan hartzeko beste gai bat, geldika geldika herri mugimendu eta mugimendu sozialetatik tankera honetako egitasmoen inguruan egiten ari den hausnarketa zein inbertsioa geroz eta handiagoa dela. Azken honen adibideak ditugu Ipar Euskal Herrian Bizi! Mugimendua, bere jardura eta urrian antolatutako Alternatiben Zokoa, Auzolan Topaketak, Sakantzen edota Euskal Herriko Eskubideen Kartatik 2015eko urrirako hausnartzen ari den Alternatiba eguna.

Baina proposamen honen aldeko apustua mugimendu sozialetatik ez ezik, hainbat udal zein eskualdetan ere indartzen ari da, Kooperatzen Beterriko garapen Agentziaren sorrera, esaterako.

4. AZKEN HAUSNARKETA

Aurreko puntuetan ikusi izan dugun bezala, Euskal Herria era ezberdinetako politika ekonomiko eta sozialak garatzeko orduan mugatua dago. Burujabetza politikorik gabe, herri hau menperatzen duten Estatu egituren politiken menpe. Kapitalismoaren fase honetan, menpekotasunak egoera larriagotzen du, krisiari zein botere ekonomikoaren erasoei aurre egiteko politika propioak garatzeko tresnarik ez baitugu.

Horregatik, egoera iraultzeko, ezinbestekoa zaigu herri moduan burujabetza eskuratzeko bidean urratsak ematen joatea. Besteak beste, maila politiko zein ekonomikoan botere maila gorenak eskuratzeko, gure herriak komunitate gisa aritzeko behar dituen bitarteko eta egiturak sortzen joatea eta egungo instituzio ekonomiko eta politikoak norabide horretan kokatzeko.

Illo horretatik, besteren artean, beharrezko eta urgente deritzogu Euskal Herriaren bideragarritasuna ziurtatuko duen eredu ekonomiko eta sozialaren inguruko hausnarketa egitea, are, hausnarketa honi goren mailako aitortza ematea. Hausnarketa honek Euskal Herriko eragile sozial, politiko eta ekonomikoen artean burutu dadin tresnak eta erabakiak behar dira eta Euskal Herriak behar duen trantsizio ekonomikoaren abiapuntua bilakatu beharko litzateke. Horretan, mundu mailako kapitalismoaren alde anitzeko krisiaren ezaugarriak (krisi energetikoa, ekologikoa, elikagaiena, zaintzarena...), eta bestetik, Euskal Herriaren berezko ezaugarriak (historikoak, geografikoak, sozialak, ezagutza...) kontuan izan beharko dira.

Urgentzia soziala dago eta asko dira askatu beharreko korapiloak: zein den indartu beharreko jardura Euskal Herrian; ze pisu izan behar duen industriak eta zein beste sektoreek; ekonomiaren nazioartekotzea kostuak jaisteko edo bertoko lanpostuak mantentzeko; ze pisu izango duten esportazioek eta zenbateraino indartu barne merkatuko zirkuitua; nola egin aurre energiaren krisiari; eta Kutxabanken egindakoaren ondoren, finantza ereduaz eta tresnez hausnartu beharra.

V. EUSKAL HERRIA. DINAMIKA POLITIKO INSTITUZIONALA

1. ALDAKETA SOZIALAK ETA BERE ERAGINA EREMU POLITIKOAN

Aurreko IKUSMIRAN azaltzen genuen bezala, mendealdeko jendarte kapitalistetan bizi izan diren aldaketek jendarte-egituretan zein balio, jarrera eta identitate politikoetan eragina izan dute. 70eko hamarkadatik aurrera politika neoliberalaren eta kapitalismoaren hegemonia indartzearekin batera nolabaiteko egonkortasuna ziurtatzen zuten instituzioak krisian sartzen dira (besteak beste, familia, enplegua, hezkuntza edota administrazioa) eta honek ezegonkortasuna bizitzaren espazio guztietara zabalduko du.

Euskal jendartea, ez da prozesu hauetatik kanpo eraiki, baina, dudarik gabe, berezko bilakaera izan du. Gurean errotuak dauden komunitate sentimendu eta jendarte industrial zaharraren erroek eta nazio gatazkak, batez ere errepresioak eta gatazkaren espresio armatuak, identitate politikoetan, espektatibetan, kultura eta atxikimendu politiko - elektoralean eragin zuzena izan dute. Euskal Herriko bizitza eta espresio politiko eta soziala elementu guzti hauen nahasketa eta ondorioa da.

Azken urteetan joera hauen bilakaeran zuzen - zuzenean eragin duten bi fenomeno ematen ari dira. Alde batetik, krisi ekonomikoaren aitzakiaz bizkortu diren austeritate politikak eta azaleratu diren eskandalu eta ustelkeri gertaerak: oldartze eta krisi politiko - soziala ekarri dutenak. Bestetik, askapen prozesuaren baitan eman den logika - estrategikoaren aldaketa. Honetan, borroka armatuaren desagerpena elementu zentrala bada ere, atxikimendu eta dinamika politikoan eragingo duten bestelako ildo-aldaketak barnebiltzen dira, hauen artean, indar metaketarako bide berriak, lurraldetasuna lantzeko ikuspegi ezberdina, Estatu gintza eta bizikidetzaren alderdikerien gainetik kokatzea.

Guzti honen ondorioz, elkar loturik ematen diren ondoko hiru prozesuen eragina jarraitzea beharrezkoa dela uste dugu.

1.1. GLOBALIZAZIO KULTURAL ETA EKONOMIKOA

Neoliberalismoaren nagusitasun ekonomiko, politiko eta ideologikoa bizitza ulertzeko eta antolatzeko eran zuzenean eragingo duten aldaketa prozesuen eskutik etorri da. Mendealdeko gainontzeko jendarte kapitalistetan bezala prozesu hauek Euskal Herrian izango duten eragin osoa ikusteko dugu oraindik.

Egitura ekonomikoari dagokionean, industria sektorearen eta ekonomia produktiboaren ahultzeak zerbitzu sektore eta finantza ekonomiaren nagusitasuna ekarriko du. Enpresa handiak eta ondorioz langile komunitate handiak desagertzen joaten dira, lanbideak konplexuago bihurtu eta dibertsifikatzen diren bitartean. Lan harreman eta baldintzek maila bereko aldaketa pairatzen dute, prekarietatea eta malgutasuna azkar nagusituko baitira. Honek guztiak, indibidualismo eta langileen arteko elkartasuna-komunitate eraikuntza zaildu egiten du. Baina, era berean, aurreko IKUSMIRAN aipatzen genuen bezala, ezagutza faktore produktibo nagusia bihurtzen da eta lurraldearen gaitasun soziala, ekonomikoa, ingurumenezkoa eta kulturalak garrantzi handia hartzen du eredu ekonomiko honetan. Honek, langilea eta lurraldea aktibo eta oinarritzko baliabide bihurtzen ditu era berean, klase ikuspegitik aztertu beharreko boterea eskainiz.

Alta, logika neoliberalak merkatua ezartzen du jendarte zibila edo Estatuaren gainetik, harreman komunitarioak ahultzen dira eta kontsumoaren kohesioaren eta elementu sinbolikoen sortzaile gisa agertzen zaigu. Bizitzaren eta gorputzaren atal guztiak merkantilizatzeko joera nagusitzen da, oraina eta pragmatismoa lehenesten dira, etorkizuna ezegonkor eta arriskuz beterik antzematean. Denbora eta azkartasunak balio berria hartzen du. Guzti honek, harreman sozialetan eta balore zein identitateetan izango duen eragin osoa ikusteke dagoela uste dugu.

Joera hauek ez dira linealak. Alde batetik modu ezberdinetan adierazten diren erresistentziak daude. Bestetik, jendarte sektore handi bati enplegu duin eta egonkorra ziurtatzen zuen eredutik "bazterketa eta hauskortasun" eredura igaro bagara ere, hau modu eta intentsitate ezberdinean ematen ari da euskal langilegoan. Gainera, Euskal Herriaren kasuan familiek metatutako errekurtoak babes ekonomiko eta sozialerako oinarri bihurtzen dira. Egun kohesiorako oinarritzko instituzioa denak bere mugak agertzen ditu, errekurtoen xahuketa eta familia moten dibertsifikazioa direla eta. Honek hurrengo belaunaldiak izango dituzten helduleku eta integrazio estrategien ahuldadea ekarriko du.

Era berean, ofentsiba neoliberalak ekarri duen ezegonkortasun ekonomikoak baldintza materialen inguruko kezka nagusitzea ekarri du, 90eko hamarkadan aldarrikatzen zen balio post-materialisten (besteak beste ekologia, giza eskubide globalak, ezberdintasunen aitortza) ustezko hegemonia ezeztatuz. Balio materialisten eta pragmatikoen nagusitasunak aldaketa eta boterea aldarrikatzen duen subjektu berrien agerpena bultzatzen dezake, baina, era berean seguritatea eta ordenaren aldarrikapen kontserbatzaileen indartzea dakar.

Azken 6 hilabeteetan agertu diren ikerketak adibide gisa ezarri, EAE-ko gazteentzat esaterako, EAE-n dauden hiru arazo nagusien inguruan galdeturik, lehenengo postuan, era nabarmen batean gainera, lan merkatuaren inguruko arazoak kokatzen dituzte. Atzetik, hurrenez hurren, arazo ekonomikoak, politikarekin loturiko gaiak eta etxebizitza arazoak daude larrik. Gainera, gutxi dira egoerak hobereena egingo duela pentsatzen dutenak (Gazteen ikuspegiak. 2014. 7).

Deustobarometroak 2014ko neguan aurkeztutako ikerketaren arabera ere, EAE-ko biztanleriak ikusten dituen arazo nagusiak langabezia, egoera ekonomikoa, lan merkaturia eta zerbitzu publikoetan izandako murrizketak dira. Nafarroaren kasuan ere, 2014ko Navarrometroaren arabera, arazo nagusien artean langabezia eta krisia kokatzen dira, kasu honek ustelkeria ere gehitzen zaiolarik.

Aipatutako guztiak azterketa sakona eskatzen duen arren, gure ustez balore eta anbizio nahasketa ematen da euskal jendartean. Aitzitik, behar materialen asetzeari anbizioa zein ikuspegi globalago edo ideologikoetatik begiraturik ere, Euskal Herrian identitate proiektuak (erresistentzia identitatea gaintzen duena eta jendarte egituraren aldaketa eta eraikitzea prozesu berria bilatzen duen proiektu eta atxikimendua) indartuko dituzten estrategiak sustatu behar dira.

Norabide horretan, balio politikoetan ematen ari diren beste bi gertakari kontuan izateko dira:

- Eredua demokratikoa eta demokrazia oinarritzeko printzipioak bihurtzen dira. Erabakitzearen eskubidea (aferra politiko zein ekonomikoetan) eta parte hartze politikorako eskubidea indartzen dira.
- Aldaketarako nahiak bultzatuta alderdi eta klase politiko klasikoaren gaineko atxikimendua nabarmen ahultzen du. Sozialdemokraziaren krisia areagotuz, eskuinarekin batera estatusa kudeatu duen subjektutzat hartzen baita eta bi-partidismoaren egonkortasuna hautsiz. Honek "Balanzina efektua" deuseztatzen du, alderdi nagusi baten jaitzierak ez du besteari igoera ekartzen eta ziklo politiko konplexuagoak ekartzen ditu, bozka aldakorragoa, azken momentuan erabakia eta hautagaien araberakoa izango baita.

1.2. AUSTERITATEA ETA ESTATUEN KRISI POLITIKO ETA SOZIALA

Krisiaren eskutik eta botere lehiak bultzatuta, Espainiaren kasuan hamarkadetan estrukturala izan den ustelkeriaren errealtatea azaleratu da. Horrek ezinezona sortu du jendartean, eta ondorio politikoak ere izan ditu. Alderdi politiko nagusien gainbeheraz gain, horren parean agertu dira mugimendu politikoak (15-M esaterako) eta PODEMOS bezalako aukera politikoak. Mugimendu hauek aldaketaren itxaropena bihurtu dira, merkatuaren menara aritu den "kasta" politikoa instituzio eta boteretik kendu eta aldaketa politiko eta ekonomikoak gauzatu daitezkeenaren sentimendua indartzeko.

Erabakitzeko eskubidearen inguruko aldarriaren hedapena errealtate bat da Hego Euskal Herrian. Egia dena da, eskubide honek lotura handiagoa duela euskal nazioaren etorkizun eta antolaketa politikoa erabakitzeari, demokrazia parte hartzailearen hedapenarekin baino.

Hala ere, ezberdintasunak daude Nafarroa eta EAE-ko errealtateen artean. Izan ere, Espainiar Estatuko kasuaren antzean, Nafarroan ustelkeriak izan duen geriza luzearekin (Volkswagen, CAN, Osasuna...), aldaketaren nahia eta herritarrek izan beharreko protagonismoaren beharra bizkortu egin dira. Horrela erakusten dute era ezberdinetako herri mobilizazioek, baina baita aldaketa politikoa gauzatu nahi duten alderdi politikoen indartzeak ere.

EAE-ren kasuan ere, azken inkesten argitan, ondoko balioen igoera ematen ari da: autonomia gehiago behar dela dioen biztanle kopuruaren igoera, gobernu aldaketaren beharra ikusten duen multzoa, herritarrek erabaki politikoetan pisu handiagoa behar dutela pentsatzen dutenak, mobilizazio politikoaren handitzea eta era ezberdinetako erreferendumak egitearen aldeotasuna handitu da. Edonola ere, bai Estatu Espainiarra zein Nafarroarekin alderaturik, ustelkeria kasuak ez dira izan hain nabarmenak, hortaz, gobernu aldaketaren premiak ez du hartu beste lekuetan besteko indarrak.

Honekin batera, zuzenean jarraitu beharrekoa izango da ea euskal herritarrek egoeraren aldaketarako aukera zenbateraino lotzen duten Estatu Espainiarrean eman behar diren aldaketekin. Nafarroaren kasuan, espektatibak hurrengo udal eta foru hauteskundeek eman dezaketenean jarrita daude, Gipuzkoan status zaharra eta berri baten arteko talka irudikatu da, erabakitze eskubidea nagusitzen da jendartean, baina, krisiak izan duen inpaktu gogorrei epe laburrean aldaketa emateko aukera nagusia Estatu Espainiarrean kokatu dezakete askok, PODEMOSen eskutik etor litekeen balizko gobernu aldaketaren bidez.

1.3.ASKAPEN PROZESUAREN LOGIKA ALDAKETAREN IRISMENA ETA ONDORIOAK

Sarreran aipatu bezala askapen prozesuaren logika estrategikoaren aldaketak adar ezberdinak ditu, esanguratsuenetarikoa borroka armatuaren erabilera aldeakartasunez etetea den arren: borroka sozial eta politikoa indartzen duelako, negoziatio estrategiaren logika eraldatzen duelako, eztabaida politiko eta mediatikoa iraultzen dituelako eta gatazkaren arrazoi politikoen inguruko konfrontazioaren jokalekua indartzen laguntzen duelako. Erabaki honek laburrean ekarri dituen ondorioetatik harago, epe erdi luzean euskal jendartearen konfigurazio politiko eta sozialean aldaketa kualitatiboak behartu ditzakeela uste dugu. Hurrengo IKUSMIRAN sakonago aztertu beharko badira ere, hona hipotesi batzuk:

- Espazio politikoen ber-konfigurazioak ekarri ditzake, espazio bakoitzak dituen leialtasun sozialak aldatuz, gatazka armatuarekiko posizioa kohesio elementua izan delako. Konfrontazio poloen inguruko hierarkia eta diskurtsoak berrituz era berean, "Euskal Herria-Estatuak", "Demokrazia/Erabakitze Eskubidea – Menpekotasuna/Inposizioa" eta "Haustura/aldaketa – Erreforma/Berritzea" dimentsio berriak har ditzazkete eta "Violentos-Demócratas" ahuldu.
- Alderdi politikoen ber-konfigurazioa, aliantza berriak eta hauek justifikatzeko diskurtso berrien sorrera ekar lezake (horra PNV-PP-PSE, EH Bilduren kontra Gipuzkoan). Indar sozialak askatzea, konfrontazio armatuaren itzalean egon diren borroka eta subjektuen indartze politiko eta mediatikoa lagunduz.
- Nazio proiektuarekiko atxikimenduaren forman eragina: atxikimendu anti-errepresiboen ginetik, atxikimendu proiektiboa indartuz.
- Euskal Herriko gehiengo soziala apartheid politikoaren eta euskal preso politikoek pairatzen duten salbuespen politikaren kontra agertzen da. Borroka armatuaren eteteak gehiengo honen mobilizazioa bultzatzeko ekarpena beharko luke izan. Oroitu behar da, azken urteetan eragile politiko eta sozial ugari borroka armatuaren etetea ezarri dutela elkarlanerako baldintza gisa.
- Euskal Herrian, dinamika zein militantzia estilo ugari eta ezberdinak bizikide izan badira ere, logika politiko - armatuak kultura militante oso bat hedatu du, bere alderdi on eta txarrekin. Estrategia berriak iraultza kolektibo eta indibiduala bultzatzen du eta honen bilakaera atentzioaz aztertu beharko da.
- Borroka armatuak sortzen duen tentsioa desagertuta, eta pareko dinamika sozial eta politikoa sortzen ez bada, euskal gatazkarekiko kezka eta garrantzia gutxitu daiteke: euskal jendartean, nazioartean eta Estatuetan.
- Autonomismoak eta erregionalismoak duten zentralitate eta boterea askapen prozesuan kontentzio lanak betetzeagatik eskuratu dituzte. Askapen prozesuaren bilakaerak sektore hauen birkokapena eskatuko du.
- Era berean, gatazkaren izaera politikoaren gaineko kontzientzia eta tentsioa gutxituz gero, haustura politikoaren ideia ahuldu eta egungo statusaren zilegitasuna indartu daiteke.

2.EUSKAL HERRIAREN EGITURATZE POLITIKO - INSTITUZIONALA: AITORTZA ETA ESTATUS BERRIA EDO DESLOTURA ETA ASIMILAZIOA

2.1. EUSKAL HERRIAREN EGITURATZE POLITIKO-INSTITUZIONALA

Ipar zein Hego Euskal Herriaren egituratze instituzionalaren egoerak ezberdinak dira. Ipar Euskal Herriaren kasuan, ezaguri nagusia aitortza eza eta eskuduntza politiko ekonomikorik eza dira. Hegoaldearen kasuan, bi administrazio ezberdinetan zatikaturik egoteaz gain, eremu bakoitzeko aitortza politiko eta ekonomikoa mugatua da. Gainera, Nafarroaren kasuan egoera hau sektore abertzalearekiko apartheid egoera baten gainean eraikia dago.

Ipar Euskal Herria ziklo aldaketa baten testuinguruan kokatua dago, non aitortza eta tresna instituzional propio bati begi-

rako urrats kualitatiboak ematen ari diren. Era berean euskal jendarteak lurraldearekiko duen atxikimenduan bilakaera positiboa ematen ari da. Honen froga hauteskunde ezberdinen emaitzak, ideologia ezberdinetako eragileek lurralde aitortza eskatzea eta egitura propioen sorrera izan daitezke (esparru ekonomikoan, laborantzan, komunikabideen eremuan edo inizatiba sozial eta akademikoetan). Gainera, Estatu Frantziarrak abian duen lurralde erreformaren kariatara, eztabaida instituzionala azkartu egin da, aukera berriak irekiz.

Hego Euskal Herrian egungo egoera instituzionalaren erroak frankismoaren ondoko erreformak finkatu marko politikoan daude. Hego Euskal Herriaren lurralde zatiketa elementu estruktural eta estrategiko gisa planteatu zen. Arazoa ez da soilik Hegoaldeko bi esparruren arteko zatiketa ematen dela, baizik eta horretaz gain, aurretik zeuden lurralde historikoen zein hauen baitan zeuden erakundeen gainetik (diputazioak, mankomunitateak, udalak...) eratu izanean datza. Gainera, egitura hauen arteko harreman eta lotura ez da burutzen egituratze nazional baten ikuspegitik baizik eta Estatu zein alderdi interesen arabera.

Azken hamarkadetan Erreforma Frankistan ezarritako marko autonomikoek zein lurralde historikoen arteko harremanek bere mugak erakutsi dituzte, eta krisi ekonomikoak egiturazko arazo hauek sakondu ditu Espainiaren zentralizazioa bultzatuz eta egungo arkitektura instituzionalaren bideragarritasun ekonomiko eza agertuz.

2.2. Dinamika instituzionala: azken hilabeteetako gertakariak

Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herriko eragile sozial eta politiko ezberdinek Lurralde Elkargoaren aldarrikapena egin ondoren Estatuak bere marra gorriak ezarri zituen aukera honi bidea itxiz. Estatuak ez du estatus berezia izango duen instituzioa onartuko Ipar Euskal Herrian. Ez du gatazka nazionala indartuko lukeen frontierik indartu nahi.

Aldiz, Ipar Euskal Herriko gehiengoari hiru egitura proposamen artean aukeratzeko eman zion. Edukiei dagokionez egungo legeriak kontenplatzen dituen proposamenak eta lurralde erreformaren logikan kokatzen direnak dira, eta aukeratzeko moldeei dagokionez, baldintza bat ezarri zuen: aukeratzeko denak bertako eragile eta instituzioen adostasunarekin izan behar duela, bestela prefetak inposatuko du aukeratariko bat.

Momentu honetan eztabaida aitzina doa. Lurralde Elkargoaren alde egin zuen gehiengoak, Garapen eta Hautetsien Kontseiluaren inguruan bilduta, Ipar Euskal Herria osoa bilduko lukeen Elkargo baten alde egiten du. Egun aukera honen inguruko adostasunak biltzen, egitura honek izan ditzakeen ahalmenak eta fiskalitate aukerak zehazten eta Ipar Euskal Herrian dauden lurralde ezberdinen arteko orekak nola ziurtatu definitzen dabil. Erabakitze prozesuan orain arteko adostasun maila mantentzea bilatzen da eta herritarrei parte hartze mekanismo berriak eskainiz (herri mailan, sektore ekonomikoan edota kulturalen).

Aipatzekoa da Aieteko Konferentzia ondorengo giro eta inplikazioa, Ipar Euskal Herrian ireki den aro politiko berria sortzeko determinantea izan dela. Ipar Euskal Herriak egitura publiko eta instituzional bat eskuratzeko nazio bertebrazioa eta Ipar Euskal Herriaren etorkizun ekonomiko eta kulturala ziurtatzeko duen garrantzia azpimarratu nahi dugu berriz ere.

Bestetik, Ipar Euskal Herrian proiektu abertzalea (ikuspegi soziala duena, politika liberalen aurka agertzen den alternatiba bakarra eta tokian tokiko alternatibak edo erabaki gaitasuna duena) alternatiba sinesgarria bilakatzen ari da jendarte sektore handi batentzat, eta era berean ezker abertzalea aitortza politikoaren eta konponbidearen alde martxan diren akordio politiko transbertsalak sortzeko eta zabaltzeko bitarteko da. Honek guztiak eginkizun eta erronka berriak ezartzen dizkio Ipar Euskal Herriko ezker abertzaleari: prozesu politikoa bultzatzen jarraitu behar du, Ipar Euskal Herriarentzat proiektu-eskaintzaren definizioan sakondu, proiektu hori praktikan gauzatzeko politikak eraiki, eta hauek guztiak estrategia nazional baten trantsizioan ekarpena egitea lortu.

Nafarroa Garaia

Foru hauteskundeetan atarian, Nafarroa Garaian mahai gainean dagoen gertakari garrantzitsuenak Gobernu aldaketaren

aukera da. Ustelkeria kasuek azkartu egin dute aukera hau. Begibistakoa da Nafarroa Garaian Gobernu aldaketa emateak eragin nabarmena izango lukeela zentzu ezberdinetan: gainontzeko euskal lurraldeekiko harremanetan, Nafarroa Garaia-aren estatus juridiko-politikoaren gaineko definizioan, Espainiaren harremanean, bilakaera ekonomiko eta sozialean...

Aldaketaren inguruko eztabaida irekita dago. Egoera honetan, 2014ko irailean, Nafarroako parlamentuan autogobernuari buruzko eztabaida egin zen, bi jarrera argi erakutsiz: autogobernua eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren defentsa eginez status quoa defendatzen dutenak eta bestetik nafarren erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dutenak.

UPN-PP-PSNk, autogobernua eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren defentsa egin zuten, Espainiaren barnean integratuta egongo den autogobernua. PSNk Amejoramentuan aldaketak aldarrikatu zituen, beti ere marko legala eta konstituzioaren baitan. Eta ildo beretik, Ezkerreko-Ezkerrek ere eraso neoliberali aurre egiteko autogobernua defendatu zuen.

Bildu eta Aralarrek nafarren erabakitzeko eskubidearen aldeko defentsa egin zuten, Amejoramentua gainditu eta herritarrei hitza ematearen alde agertuz, justizia sozialean eraikitako herri baten alde egiteko. Ikustekoa izango da Podemosek ze jarrera hartuko duen Nafarroa Garaia-aren estatus politikoaren eta Nafarroa Garaiko biztanleen erabakitzeko eskubidearen inguruan.

Eztabaida ez da mugatzen soilik parlamentura. Aurreikus daitezkeen aldaketa eta aukeren adierazle dira Navarrómetroak 2014rako argitaratutako datuak. Besteak beste, Nafarroaren autonomia mailaz galdeturik, 2010etik 2014rako tartean, "oso asebeteta" edo "asebeteta" zeudenen kopuruak %71tik %44rako jaitsiera izan du, "ez asebeteta" edo "batere asebeteta" dauden biztanleek %22tik %45erako gorakada izan dutelarik.

EAE eta Nafarroaren arteko batuketaz galdeturik, baiezko erantzunek gorakada izan dute 2010 eta 2014 urteen alderaketan, %25etik %31ra; ezezkoek %64tik %55erako beherakada bizi izan duten bitartean. Eta bi Erkidegoen artean lankidetzarako markoa izateari dagokionean, baiezkoaren pisua erabatekoa da, %69koa, ezezkoa %23koa besterik ez den bitartean.

Bien bitartean baina, Estatu Espainiarrak lanean jarraitzen du, eta aipatutako eztabaida parlamentarioan ere lekua izan zuten Estatuak nafarren erabakien aurrean izandako injerentziek. Besteak beste, Auzitegi Konstituzionalak Espainiako Gobernuak jarritako helegite baten bidetik, frackingaren kontrako Nafarroako legea bertan behera utzi du eta gainera frackinga debekatzeko ahalmena ukatu die autonomiei. Edo ETBren kasuan bezala, izan ere Espainiar Gobernuak ukatu egin baitu LTDren bidez emititzeko aukera.

Eskuhartze honi Volkswaggeneko auzia gehitu behar zaio, alor ekonomikoa gainditu eta daukan dimentsio politikoagatik. Izan ere, hasiera batean Espainiako Gobernuak Nafarroaren kontrako salaketa jarri zuen dirua itzultzea eskatuz, BEZa dela eta Nafarroako Gobernuak Volkswaggeni 2007-2011 urte bitartean egin beharreko ordainketak Espainiar Gobernuak egin zituelako. Diruaren itzulketa honek kolpe ekonomiko latza suposatuko luke Nafarroako Gobernuarentzat. Baina azkenean, Espainiar Gobernuak errekurtsioa suspentsoan jarri eta bide administratibotik jotzea erabaki zuen. Begibistakoa da erabaki honen atzean arrazoi politikoak ere badaudela. Batetik, erregimena sustengatzen duen UPN indartzeko formula bat da, interlokutore bezala aitortzen duelako. Bestetik, gobernu aldaketaren aurreko mehatxu bat da, gobernu aldaketa ematen baldin bada sor daitekeen ezegonkortasunaren adierazle gisa. Honek erakusten du Estatuak UPN-PSNren arteko aliantzaren alde egiten duela. Hor ulertu behar da Barcina dimisioa ematera behartu izana PSNrentzat aliantza errazagoa izan zedin.

BEZaren dirua Erregimena sendotzeko erabili dute, sare klientelarrak elikatzeko eta botereari eutsi ahal izateko. Nafarroak Estatuari zor dio diru hori, baina zorra ilegítimo da, ez baitu nafar herriak sortu, baizik eta UPNk; eta beraz, ez dagokio nafar herriari ordaintzea.

EAE

EAEen erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida esparru instituzionalean fokalizatua dago. 2014ko apiriletik aurrera Eusko Legebiltzarrean Autogobernua Eguneratzeari Buruzko Lan Taldea eratzea adostu zen, PNV eta PSEren arteko akordio baten ondotik. Sorreran Estatutuaren garapenaren inguruko balantzea egitea bilatzen du egungo legeriak ezartzen dituen arau eta prozedimenduen barnean. Urtebeteko ikuspegiari 14 bilkura burutu dira, eta bertara 27 aditu gonbidatu

dira gaiaren inguruan aritzeko. Bertan alderdi politiko guztietako ordezkariak parte hartzen dute, erabakitze eskubidearen inguruko posizio ezberdinak daudela onartu arren. EH Bildu kritikoa agertu da hasieratik, erabakitze eskubidearen gauzapenean urrats erabakigarriak emateko eredu hoberena den zalantza dituelako, bereziki norabide horretan eman daitezkeen urratsen aurrean egungo legeria eta baita gehiengo politikoak eskuratzea ere muga bezala jartzen delako.

Alabaina, erabakitze eskubideak sostengu mardula du Hego Euskal Herrian. Izatez, demokrazia zabaltzeko eta, hortaz, erabaki politikoak modu zuzenagoan hartzeko ahalmenaren aldeko nahiak ez dira Euskal Herrian soilik hazten ari; aitzitik, joera orokortu bat da.

Gertaera hauen ondoan, esaterako, Euskobarometroak 2014ko neguan argitaratutako datuen arabera, EAEko biztanleriaren zati handi batek, %69ak, Erkidego baten etorkizuna Erkidegoko biztanleek beraiek erabaki behar dutela uste dute, eta gainera, biztanleen %51a EAE eta Estatuaren arteko harremanaren inguruan herritarrei kontsulta egitearen alde dago. Horretaz gain, azken urte luzeetatik hona lehen aldiz, independentziaren aldeko jarrerak gora egin du eta estu baina kontra dauden gainetik dago, nahiz eta azken hauek ere gorantz egin. Aldekoek %35 osatzen duten bitartean, kontrakoek %33 osatzen dute, egoeraren arabera bai edo ez (zalantza daudenak) bozkatuko luketenak %20ra jaitsi diren bitartean.

2.3. ESTATUS POLITIKOAREN INGURUAN ERAGITEN DUTEN DINAMIKA NAGUSIAK

Dinamika instituzionalaren ondoan, badira erabakitze eskubidearen inguruan eztabaida piztu, herritarrak mobilizatu eta Euskal Herriaren egituratze zein kohesionatze bidean ekarpenak egiten dituzten herritar eragile edo mugimenduak. Hona hemen esanguratsuenak:

Gure esku dago

Aurreko IKUSMIRAN aipatu bezala, antolatu eta mobilizazio sozialerako eredu berri eta freskoa ekartzeaz gain, erabakitze eskubidearen inguruko indar metaketa ematea ahalbidetu nahi duena. 2014ko ekainaren 8an Durango eta Iruñea bildu zituen giza kate ikusgarri eta jendetsua izan zen lehen erronka nagusia. Aurreikuspenak apurtuz 150.000 herritar mobilizatu ziren, 2.500 boluntario aritu ziren antolakuntzan lanean, 170 herritan batzordeak eratu eta 900 autobus mugitu ziren Euskal Herriko bazter guztietatik.

Ikasturtea hasteko, azaroaren 8an beste ekimen deigarri batek izan zuen lekua. Ekimena 5.000 lagunek parte hartzeko prestatua egon arren, Zurriolako hondartzan 10.000 lagun bildu ziren mosaiko erraldoi bat osatzeko. Helburua erabakitze eskubidearen aldeko dinamikari jarraipena ematea izan zen, baina horrekin batera eskoziarrek burutu berri zuten erreferendumearengatik zoriontzeko eta kataluniarrei hurrengo egunean egitekoa zuten galdeketeri begira elkartasuna eta babesa adierazteko.

Hurrengo erronka aurtengo ekainaren 21erako jarria dago, herrietako jendeak jositako tela zati guztiak josiz boto kutxa handiak irudikatu nahi direlarik Euskal Herriko 5 hiriburutan. Ekimena deigarria izateaz gain, esanahi handikoa ere bada, izan ere erabakitze eskubidea aldarrikatzetik harago gauzatzeko bidean jarri behar dela adierazten baitu.

Ekimen nagusioz gain, ugariak dira herrietan egiten ari dira mota ezberdinetako ekimenak. Urtarriletik martxora arteko egutegia begiratz, batzbesteko era bat edo besteko 150 ekimen baino gehiago burutu dira 2015eko urtarila eta martxoa arteko hilabeteetan, dela aurkezpen-hitzaldi, "Jostunak" dokumentalaren emankizun edo mahai-inguru formatuan. Eta Gure Esku Dagoko batzordeak Euskal Herriko 140 herri, auzo edo eskualde baino gehiagotan daude osatuta.

Estatugintza ardatz, akademiatik ekarpena

Kontzeptuaren ingurumarian ematen ari diren eztabaidak hamaika dira. Esaterako, esparru akademikoarekin loturik, abenduan «Nazioak eta Estatuak XXI. mendean: demokrazia eta erabakitze eskubidea» jardunaldiak antolatu zituzten Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Aipagarria dugu ekimen hau, batetik, Euskal Herriko unibertsitate nagusiek parte hartu zutelako: Nafarroako Unibertsitatea (Opus); Nafarroako Unibertsitate Publikoa; Euskal Herriko Unibertsitatea; Université des Pau et des pays de l'Adour; Deustoko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Eta bestetik, landutako edukiengatik: nazioartean burujabetzaren inguruan ematen ari diren prozesu politikoak eta hauek

Europar Batasunean eta Euskal Herrian izango duten eragina aztertu baitzen.

Guztiarekin, kontuan hartzekoa da dinamika guzti hauekin herritarrek mobilizatzear gain, diskurtso eta ideien esparruan eragiten dela.

Herri galdeketa

Beste maila batean, kontutan hartu behar da Euskal Herriko hainbat herritan galdeketa egiten jarraitzen dela. Bai Euskal Herriaren etorkizun politikoarekin lotura dutenak, baina baita bestelako gaien inguruan.

Azaroaren 2an independentziaren inguruko galdeketa egin zuten Zollon eta Arrankudiagan. EAJ eta ezker abertzaleko hautetsi ohiek bultzatu zuten Ados izena duen plataforma. Arrankudiaga-Zollon herritarren %61ek bozkatu zuten, eta horietatik %89k eman zioten baiezkoa euskal estatu independente bati.

Bestetik, hondakinen kudeaketa ereduaren inguruan galdeketa Mutrikun eta Deban egin dira. Zestoan hondakin biltegia izatea galdetuko die bizilagunei Gipuzkoako aldundiak 2015ean, hurrengo legealdian. Hauekin batera, Usansolon azaroaren 23an kontsulta egin zuten Galdakaorekin desanexionatzeko, aukera honek irabazi zuelarik.

Nazio egituratzea: Udalbiltza

Bien bitartean, paraleloki, Euskal Herria garatu eta artikulatzeko bidean saiakera hainbat daude abian. Horien artean, maila instituzionala duena, Udalbiltza da, Euskal Herri mailako 183 alkate eta 1.471 udalbiltza-kide biltzen dituen udal eta udal hautetsien biltzarra. 1999an eratua eta 2003an Garzonek gidatutako operazio polizial baten ostean erasotua izan ostean, epai-bide luze bat tarteko, 2013ko martxoan ekin zion berriro ere lanari. Egun, bere lehentasunen artean honako hauek ditu: lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa sustatu; Euskal Herriaren nazio egituratzea lagundu; herrien arteko saretze lanetan lagundu ('Hurbiltzen' plana) eta euskal herritartasuna sustatzea.

2014ko eginkizun nagusia Euskal Herri mailako kohesio eta garapen sozioekonomikoa sustatzeko egitasmoa abian jartzea izan da. Horretarako Udalbiltza beraren parte den Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren bidez, "Pirinioetan Lan eta Bizi" plana jarri da martxan, Euskal Herriko zonalderik azpigaratuenetako batean tokiko garapena eta kohesioa sustatzeko xedearekin. Hauetaz gain, Pirinioak Sendotzen programarekin eta aurretik aipatutako xede berdinarekin, herri ikuspegiarekin lan egiten duten entitate ezberdinak lagundu dira, bai hauek sustatuz, maileguekin lagunduz edota diru laguntzak emanez, aholkularitza eta turotetzat mailan lagunduko duten beste elkarte batzuekin hitzarmenak sinatzearekin batera (Fiare, Herrikoa, Laborantza Ganbara...).

Esan bezala, lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa izan dira 2014an Udalbiltzaren lehentasunak. Baina bere eginkizunak beste esparru batzuetara ere hedatu dira, hala nola: Nazio Elkarte eta Eragileekin hitzarmenak egitea diru ekarpenak egitearekin batera (Gaindegia, Sortzen-lkasbatuaz, Hekimen, Kontseilua, Euskal Herria 11 Kolore, Kaskarotenea Ikastola, Zazpiak Bat edo Euskal Artzainak Ameriketara), auzolan esperientzia ezberdinak, Energia Burujabetza programaren baitako ekimenak, Ikerbiltza programa, Euskal Herri osoko Kirol Erakundearen Erradiografia edota Nazio Markaren oinarritzko esku-liburua.

2.4. AZKEN HAUSNARKETA

Egoeraren inguruan egindako irakurketa honek Euskal Herriko estatus politikoaren inguruko eztabaida irekia dagoela adierazten du. Eztabaida gainera euskal lurraldeetako instituzio nagusienetan kokatua dago. Hego Euskal Herriari dagokionez, frankismotik eratorritako egituraren (estatusa eta eskumenak) berplanteamendu eskatzen du, eta Ipar Euskal Herriari dagokionez Pays egituraren zikloaren amaierarekin aitortza instituzionalaren forma eta eskumenen eztabaida zabaltzen du:

- Egun argiki esan dezakegu estatus politikoaren inguruko eztabaida egungo erregimena sustengatu duten instituzioetan kokatua dagoela.
- Eztabaida sortu izanaren arrazoiak ezberdinak dira elkar elikatzen diren arren: Estatuen ingerentzia eta zentraliza-

zioa prozesuak, instituzioen krisia, krisi ekonomikoa, euskal jendartearen aldarrikapena eta bi Estatuak irekiak dituzten lurralde erreformek irekitako espektatibak.

- Lurraldekako prozesuak ezberdinak dira estatusaren kuestionamendua sortu duten krisiak ezaugarri ezberdinak dituztelako: Ipar Euskal Herrian ezberdinen arteko prozesu politiko eta sozial baten baitan kokatzen da; Nafarroan urteetako inposizioa eta ustelkeriak aldaketa politiko eta soziala elkarturik gobernu aldaketa bilatzen duen mugimendu anitza sortu du; eta EAEn PNV krisia Estatuaren aurrean halamoduz kudeatzen saiatzen da, estatuz berriaren inguruko eztabaida instituzionalizatua eta kateatua mantentzen den bitartean.

- Euskal Herria aintzat hartzen duten eragile sozial eta sindikal gehienek ez dute posizio argi bat estatus politikoa- ren eztabaidaren aurrean, are gutxiago nazio ikuspegi batekin.

- Eztabaida prozesu hauek elkarlotuko eta elkar elikatuko duen ibilbidea zehazteko hausnarketa sakona eskatuko du, eta gaur gaurkoz mahai gaineratzen dituen aukeren gainera, gure ikuspegia da euskal jendartearen ez dagoela hauek duten dimentsio politiko eta nazionalaren inguruko kontzientzia nahikorik. Hortaz, Euskal Herriaren egituratze eta demokratizazioaren bidean dauden aukeren gaineko ezagutza eta kontzientzia hartze sozialean eragin behar da.

- Beste maila batean prozesu honetan eragin eta norabidetu nahi duten egitasmoak leudeke. Bi azpimarratuko genituzte: alde batetik, Gure Esku Dago dinamika estatus politikoa- ren inguruko eztabaida erabakitze-ko eskubidean oinarritzea bilatzean duena, eta bestetik, akademiatik edota Udalbiltzatik martxan jarri diren zenbait egitasmo, zeharka bada ere, Euskal Estaturantz abiatzeko estrategia independentista elikatzen dutenak. Lehena arrakastatsua, bigarrenak kualitatiboki oso interesgarriak.

Estatus politikoa- ren inguruko eztabaida ez da berria eta ez da egungo kointuraren sortu, eta perspektiban jarraitu behar-ko da bere eboluzio politiko eta soziala. Alta, egungo krisiak sortu dituen espektatibak eta aukerak baliatzeko denbora faktoreak eta lurraldekako erronkek duten garrantzia azpimarratu behar da. Horren kontziente dira eragile nagusiak, horregatik Estatu espainiarreko eztabaidatik konstituzioaren erreforma alboratu da, erregimen zaharrarekiko haustura aukeratik normalitate berria eraikiko lukeen gestio- gintza ezberdindura pasatu nahi da, ezker abertzalea botere instituzio- naletik alboratzea apostu partekatua da eta EAEn kasuan adibidez eztabaida instituzio- ren eremura mugatu nahi izan da. Hala ere, eztabaida honen muinean euskal jendartearen ematen ari den eboluzio politiko bat dago.

3. ERAGILE POLITIKOEN POSIZIONAMENDUAK ETA PROPOSAMENAK

Gure herriaren abiadurak eta guztiz mediatikoa agertzen den eztabaida politikoak euskal alderdietan ematen ari diren bir- kokatzeko tentaldiak ezkutatzen dituzte. Gure aburuz, ikuspegiarekin aztertuta, esparru politikoan fondon-ko mugimen- duak, blokeoak edo dekantazio berrietarako tentaldiak agertzen dira. Besteak beste, hauek dira horretara behartzen dituzten egoerak:

- Alderdiek eta oro har eremu politiko instituzionalak bizi duten desprestigio soziala eta militanteekiko atxikimen- du krisiak eskatzen duelako.
- Borroka armatua eten izanak konponbidearen inguruko posizio eta diskurtsoa berritzea eskatzen duelako.
- Ezker abertzalearen pisu instituzionalak orain arteko botere banaketa eta aliantzen logika zalantzan jarri duelako (2012an Eusko Jaurlaritzan gobernu aldaketa PSE-PPtik PNVra; Gipuzkoako Diputazioa; Arabaren bilakaera sozia- lak izandako espresio instituzionala; eta Nafarroan aukera berriak)
- Estatus politikoa eta erabakitze eskubidearen inguruan ireki den eztabaida sozialak (Katalunia eta Eskoziak lagun- duta) eta Estatuaren krisi politikoa- ren aurrean (lurralde antolaketaren inguruko eztabaida, alderdi bitasuna zalantzan edota alderdi berrien sorrera ekarri duena) posizio bat hartu behar- rak derrigortuta.
- Politika ekonomiko neoliberalak eragin duten deskontentu eta ondorio sozialen aurrean posizioa hartu beharra.

Hala ere, sorrera helburuetan eta afiliatuen perfil ideologikoan dauden desberdintasunen gainera, alderdi politiko nagusiek botere instituzionalarekiko dependentzia osoa dute, burokrasia politikoak bihurtu baitira. Era berean fusio sistemiko bat dago hauek eta lobby ekonomiko zehatzen artean, azken garaian azalarazi diren ustelkeri kasuek erakutsi duten moduan. Hau da, Euskal Herrian alderdi nagusi hauek sare instituzional autonomikoaren magalean eta independentis- moaren kontrako Estatu borrokak eskatzen zuen salbuespen egoeran gorpuztu dira. Fase politiko berriak zutabe hauek kolokan ezartzen ditu, baina eguneroko inertzien, aldaketarako erresistentzien, berritzera bai baina fondon ezer ez alda-

tzeko joera nagusitzeraz eraman ditzake. Hemen dago jokia. Inongo zalantzarik gabe, aktibazio eta tentsionamendu soziala izango da dekantazio ezberdinen abiadura eta norabidea ezaugarrituko duena eta, logikoa denez, egungo estatusarekin dependendientea ez den eta aldaketa bilatzen duen mugimendu eta aukera politikoen jarrera eta jokabidea determinantea izango da bide honetan.

Honetaz gain, hurrengo hauteskunde zikloa eta ondorengo eszenatokia (instituzioetan egon daitekeen desegonkortasuna eta honek behartu ditzakeen aliantzak) eta, beste maila batean, Kataluniako prozesuaren bilakaera eta Estatuaren barne erreformaren norabidea erabakigarriak izango dira mugimendu hauetan ere, gertaera hauek dekantaziora behartzen dituzten elementuak indartuko baitituzte. Baina era berean, hauteskundeengatik baldintzatutako eztabaidek panorama guztiz desitxuratzeko dute. Egiturazko krisiari erantzun bat eman nahi izatetik gestiozintzara egiten da salto eta aldaketa ekarri lezakeen prozesuaren ezaugarriak (bake prozesua edo estatu politiko berriaren inguruko eztabaida) baino norberaren posizioak nagusitzen dira.

Honako hauek dira, gure ustez, eragile politiko nagusiek dituzten posizioak:

PNV-GEROA BAI

PNV

Mezu ezberdinak agertzen ditu. Batetik, subiranotasunari begirako keinuak egiten ditu, baina bestetik, ematen dituen urratsak egungo marko autonomikoan sakontzera datoz. Lehenari lotutako adibideak ditugu, autogobernurako ponentziari begira, Euskadi independente baten bideragarritasun ekonomikoa aztertuko duen informe bat eskatzea; Estatuaren eskuduntza-inbasioa zehatuko duen txosten bat eskatzea; Konstituzio erreformaren aldeko jarrera agertzea, autodeterminazioa, kontsulta eta erabakitzeko eskubidea jaso beharko litzukeelarik; autodeterminazioaren aldeko ebazpena legebiltzarrean...

PNVren kokapena ulertzeko, interesgarria da bere adierazpen nagusietako diskurtsoen berri izatea. Esaterako, irailean Eskoziako erreferendumaren harira, Convergència Democràtica de Catalunya (CDC) eta Nieuw-Vlaamse Alliantierekin (NVA) batera egindako adierazpenaren arabera, Eskoziako eredu txalotzen du, erabakitzeko eskubidearen inguruan Estatuarekin lortu beharreko alde biko akordioa lehenetsiz.

Marko juridiko-politikoaren inguruan egiten duen apustua urriaren 25ean Gernikako Estatutuaren egunaren harira egindako adierazpenarekin azaltzen du. Estatuaren gaineko konfidantza apurtua duela aipatzen du, eskumenen transferentzia eza zein azkenaldiko erasoak tarteko. Baina autonomismoaren aldeko apustua egiten du, pakto berri baten beharra aldarrikatuz, honako printzipio hauen gainean: erabaki subjektuaren aitortza, adostutako eskumenetan injerentziarik eza eta marko juridiko-politikoaren aldaketa hiritargoaren borondatearekin lotzea. Estatutuaren berritze zein egin beharreko paktuaren eztabaida gune nagusi bezala Legebiltzarreko Autogobernu Ponentziaren lan taldea kokatzen du.

Urtarrilean, Sabino Aranaren jaiotzaren urteurrenean, bestelako agiri bat kaleratuko du, bere bide orriaren logika aurkeztuz. Lehenengo krisi ekonomikoa gainditzea, gero gatazkaren ondorioekin bukatzea. Eta azkenik prozesu politikoan urratsak ematea, pakto politiko berri baten bidez, egungo marko juridiko-politikoan aldaketak emateko, burujabetzaren norabidean. Pakto horren oinarrian leudeke Euskadi subjektu politikotzat aitortzea, Europar Batasunaren barruan estatus juridiko instituzional berri bat zehaztea eta hiritargoari bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko duen eskubidearen aitortza.

Edonola ere, ekarpenen ildoak EAE da eta urrats praktikoei dagokionean, subiranotasunaren bidea hartzeko proposamenen aurreko erantzuna ezezkoa da, eta gainera, bere aliantza nagusiek beste norabide bat hartu dute, bereziki PSerekin. Bai aurrekontuei dagokienean edota baita EH Bilduri botere instituzionala lehiatzeko asmoetan ere. Gainera diren hauteskundeek pisu handia hartzen dute, ikusi beharko dugu ea desgasterik jasotzen duen edo egun duen zentralitateak indartzen duen.

GEROA BAI

Geroa Bai, PNV eta Atarrabia Taldea alderdiek eta Zabaltzen elkarteak osatutako koalizioa da. Nafarroako bestelako era-

gileen lerro beretik, egungo gobernuaren aldaketa beharra da bere diskurtso politikoaren oinarria. Baina Estatua aurrera eramaten ari den birzentralizazio prozesuaren aurrean, irteera autogobernuan sakontzea dela azpimarratzen du, nafar gobernuarentzat eskumen gehiago eskatuz.

Gainera, erabakitze eskubidearen afera ere mahaigaineratzen du, baina ez dirudi marko juridiko-politikoan aldaketak edota burujabetza ikuspegian urratsak emateko, baizik eta Estatuarekin aldebiko harremanean adostutakoen inguruko erabakiak demokratikoki hartzeko.

PSOE-PSE-PSN

PSOE krisi egoera batean dago. 2014ko udan, 39. Kongresuan, eskaintza politikoa eta zuzendaritza berritzen ditu, parte hartzeko mekanismoak zabalduz. Horrela, federalismoaren aldeko hautua plazaratzen du, baina erabakitze eskubidea eta independentziarako aukera guztiz ukatuz.

Modu berean, eskaintza sozioekonomikoa itxuraldatzen du, baina funtsean, eredu neoliberalaren baitan jarraitzen du kokatzen. Horrela, alde batetik, 135. artikulua aldatu izanaren autokritika egiten du (baina 35 orduko lanaldiaren kontra eta 67 urtetan erretretaren alde agertzen da) eta beste alde batetik, disfuntzio territorialak konpondu beharra adierazten du (konpetentziak zehaztu, finantziario sistema, senatua, berezitasunen onarpena...).

PSERI dagokionean, Estatuko mugimenduen haritik eta azken hauteskunde europarretan izandako emaitza txarrekin barne aldaketa ematera bultzatzen ditu, ezohiko Kongresua antolatuz 2014ko irailerako. Artean Patxi Lopezen dimisioa ere ematen da. Estreinekoz, hautagaiak primario irekien bitartez modu zuzenean aukeratzeko urratsa ematen dute, batez ere babes eta atxikimendu militantea berreskuratu nahian. Kongresuaren ostean zuzendaritza berria sortzen da, gehiengoa berrituz. Idoia Mendiak, idazkaritza nagusirako hautagai bakarra, militanteen %60aren babesa lortu zuen. Baina oster, herrialde mailako zuzendaritzen hautaketetan interes eta hautagai ezberdinak daude eta ondorioz, liskarrak ez dira ixten.

Edozein kasutan, mugimendu guztion atzean ez da ageri muineko aldaketarik eta gainera, lidergo falta antzeman daiteke. Hartara, ataka berezian aurkitzen da, alde batetik Estatu Espainiarrean izandako sinesgarritasun galeraren ondorioz, eta bestetik Euskal Herriko gatazkak izan duen aldaketaren testuinguruan lekua bilatu ezinean.

Marko juridiko-politikoaren inguruko eztabaidaren aurrean, ez du autogobernuari begirako proposamen propiorik eta indefinizio hau atzeratzen ari da, alde batetik, bere barnean prozesu politikoaren aldeko sektorea egon arren (estatu federal berri baten aldarrikapena egiten duena), hauek ez direlako gehiengoa. Eta bestetik, alderdi abertzaleen artean adostasunik ez dagoen bitartean, PSE eroso sentitzen delako. Edonola ere, Gernikako Estatutuaren errebisioaren beharra ez badu alboratzen ere, Lurralde Historikoen Legearen berritzearen inguruko eztabaida jartzen du aldarrikapen nagusi gisa, nahiz eta ez eduki proposamen zehatzik. Ataka zail honetan eta hauteskunde zikloaren aurrean, bere diskurtsoa eremu sozial eta ekonomikoaren inguruko aldarrikapenetara bideratzen du. Era berean politika nagusienetan, eta besteak beste ezker abertzalea alboratzea helburu, PP eta PNVrekin bat egiten duen bitartean (fiskalitatean edota aurrekontuetan).

PSNri dagokionean, Nafarroan ematen ari den testuinguruan, aldaketaren beharra adierazten du, bere burua jarritz horretarako giltza bezala. Bide horretan mugimendu ezberdinak egin ditu. Besteak beste, buru aldaketa. Maria Chivite, abenduan hautatu berria izan den PSNko idazkari nagusia izanen da presidenterako hautagaia sozialisten aldetik.

Edonola ere, PSN oso ukituta heldzen da, zilegitasunik gabe, barne kontraesan handiekin eta Madrilekiko duen dependentzia dela eta, marjinik gabe. PSN, UPNren ondoan erregimena sustengatu duen alderdia da eta honek bere deriba sakonduko du. Bestetik, alderdi politiko berrien agerpenak mapa politikoa eta gobernu aliantzak konplexupetu ditu, eta ikusi beharko da ze aliantza egiteko aukeratan dagoen.

PP-UPN-PPN

Estatu mailan PPK bizi duen krisiak baskongadetako PPn eragin zuzena du. UPN ere ahultasun egoera berdinean kokatzen da, lidergo falta eta ustelkeriak jota, eta barne sektoreen arteko kontraesanak agerian. Gauzak horrela, UPNk eta PPNk ez dute hautagaitza elkarturik aurkeztuko. Hau guztia dela eta UPNk berritze prozesu bat abiatzen duela adierazi behar izan du. Abuztuan bere hautagaitza aurkeztu eta aukeratu ostean, azaroan Yolanda Barcinak dimisioa aurkeztzen du.

UPN-PSN balizko akordio bat errazteko mugimendu bat da eta aztertu beharko litzateke urrats hau ez ote den Estatu erabakia, erregimena biziraunarazteko mugimendu bat, alegia.

PPri dagokionean, egoera berrian, badirudi alderdiaren itxura eta norabidea berritzeko ahalegin eta nahi bat egon daitekeela, bereziki alderdiaren zuzendaritza berriaren buru den Quirogaren taldearen eskutik. Helburua litzateke eskuinaren sektore moderatuak eta PNVren sektore batzuk bereganatzea baina baita bere eskuinetara sortzen ari diren Ciudadanos bezalako alderdien aurrean posizioa hartzea. Ordea, honetarako dituzten zailtasunak agerikoak dira, alde batetik barruko erresistentziak tarteko, eta bestetik, biktimen inguruan elkartzen diren sektoreek eraginda.

Edozein kasutan, nahiz eta onartu ETaren erabakiek testuinguru berri bat ekarri dutela eta ondorioz Alderdi Popularra ere berregokitu egin behar dela, oraindik orain konponbideari dagokionean ez dauka inongo proposamenik, eta neurri batean Madrilgo politika immobilistak ere ez dio marjin gehiegirik uzten. Bestetik, estatus politikoari dagokionez, EAEko PPren autonomia aldarrikatzen du, Garoñaren aurrean esaterako, eta EAEren eta Nafarroaren berezitasun historikoen defendatzaile bezala agertzen da, era horretan kutsu propio bat agertu nahian.

PODEMOS

Estatu espainiarrean Podemosen agerpena gertakaririk adierazgarriena izan dela esan daiteke. Euskal Herrian eta Nafarroan ikusteke dago beraien benetako eragina, baina herriz herri antolatzen hasi dira eta bere sarrera Estatuan bezain indartsua ez bada ere, eragile erabakiorra izango da aurrera begira.

Ohiko partidu politikoen (PP eta PSOE) eta enpresari elkarteetan alarma gorriak pizten ditu, beraien kontrako kanpaina indartsua abiatzen delarik. Abenduan, bere programa ekonomikoa aurkeztu zuen, keynesianismoaren parametroetan kokatuz. Gatazka nazionaleri begira, erabakitzeko eskubidearen defentsan agertzen dira, unionismoaren aldekoak badira ere. Euskal Herriko gatazka politikoari dagokionez, honen ondorioetan urratsak ematearen aldekoak dira, adibidez, presoak hurbildu eta kaleratzeari dagokionez.

Udal hauteskundeetan, herrien kasuan beraien izenean aurkeztuko ez badira ere, bere sokatik sortu diren hautagaitzak babestuko dituzte. Eta bestetik, Foru diputazioetara eta Nafarroako parlamentura Podemosen izenean aurkeztuko dira. Nafarroaren kasuan, aurreikuspenen arabera emaitza onak atera eta Gobernu aldaketarako giltza izan daitezke. Edonola ere, aurrez alboratu du "kasta" bezala izendatutako UPN-PPN-PSNrekin aliantzak egitea. EAEn ere ikusi beharko da mapa politikoan ze inzidentzia hartzen duen eta zein izango den garatuko duen aliantza politika.

Podemosen kasuan berria izatearen faktoreak nola eragingo dion ikusteke dago, hau da, ez izatea instituzioen kudeaketa-tagatik edota iraganean gatazka politikoan betetako paperaren ondoriozko desgasterik. Bestetik, gaur gaurkoz esan dezakegu bere agerpenak eztabaida politikoen ardatzak mugitzeko aukera zabaltzen duela, erabakitze eskubidea transbertsala bilakatu dezakeelako eta bestetik aliantza demokratiko eta ezkertiarrek burutzeko subjektu bihurtu daitekeelako.

EH BILDU-EH BAI

EH Bilduk 2015eko urtarrilaren 24an aurkeztutako Euskal Bidea deituriko proposamen politikoan zehazten du bere posizioamendua. Euskal Herriaren independentzia eta lurralde osoaren batasunerako bidean, erabakitze eskubidea jartzen du oinarri nagusi gisara. Horretarako Euskal Herrian dauden eremu nagusien errealitate, berezitasun eta erritmoak kontuan hartuz, eremu bakoitzeko herritarren erabakitze eskubidea gauzatzea.

Nafarroa Garaian alde batetik, eta bestetik EAEn, erronka estatus politikoaren inguruko galdeketa burutzea da, erabakia herritarren borondatearen esku utziz. Hartu beharreko erabakien norabideak bi dimentsio ditu, batetik hegoaldeko bi erkidegoen arteko harreman eta batasunari dagokiona, eta bestetik, bigarren urrats batean, Estatu Espainiarrarekin izan beharrekoa harreman ereduari dagokiona.

Esan dezakegu azken hilabeteotan emandako urrats eta aurkeztutako inizatibek, ideia edo kontzeptu batzuk argitzeko eta pixkanaka agenda politikoan pisua hartu eta sozialki nagusitzeko balio izan dutela. Hala nola, Euskal Herriak bere bidea egin behar duela, akordio politikoen beharra dagoela, aldaketa politiko eta soziala dela edota gure eskuetan dagoela erabakia eta beharrezkoa presioa burutzea, aldaketa politiko eta sozialak etor daitezen.

Eragin eremu bakoitzaren ezaugarri eta baldintzen arabera diskurtso eta eskaintzak gorpuzten joan dira. Ibilbide honek Euskal Estatu bateranzko estrategia berritzea behartzen du, eta lurralde bakoitzak dituen ezaugarri propioen ezberdintasunak kontuan hartuz, hauetatik ikasi, are batzuetan aktibo bilakatuz. Nafarroan, aldetaren aldeko mugimenduak, EAEn ez bezala, eragile sozial eta politiko-instituzionalen arteko aliantza eragin du. Ostera, Ipar Euskal Herrian lurralde aitortza eta bakegintzan garatzen ari diren dinamikak, akordio zabal eta transbersaletan oinarritzen dira Estatu Frantsesa interpe-latzeko gai izaten ari direlarik. Hego Euskal Herrian hau ez da lortzen eta maiz hegemonia lehia nagusitzen da.

Antolakuntza aldetik ere aldetak proposatu dira. Alderdien arteko koalizio izatetik Fronte Zabal gisara egituratzeko, EH Bildu osatzen duten alderdietatik haragoko pertsonen parte hartzea errazteko eta indar sozial gisa bete beharreko funtzioak egoki betetzeko. Norabide horretan aipagarriak dira Aralarren VI. Kongresua 2014ko azaroan, EH Bilduren aldeko apustua berretsiz, eta baita Zutik-en oinarriko den Gorripidea 2015eko otsailean EH Bildura batu izana, Alternatibaren integratu ostean.

Ipar Euskal Herriari dagokionean, EH Baik barne egituraren inguruko eztabaida irekia du. Bi helbururekin: batetik, hauteskunde koaliziotik harago joango den mugimendua bilakatzeko, eta bestetik eremu abertzalean dauden ezker sektore guztien bilgunea bilakatzeko (2011an egindako inkesta batek ezkerreko abertzaleen %60ak EH Bai osatzen duten alderdietatik kanpo kokatzen duela bere burua azaltzen zuen).

4.GATAZKAREN ONDORIOEN KONPONTZEA: PROPOSAMENAK MAHAI GAINEAN DAUDEN ARREN IMPASE EGOERA BATEN SENTSAZIOA

Ezker Abertzaleak bere estrategia berritzearekin, urteetako gatazka politiko eta militarra gainditzeko inizatiba berritu zuen. Horretan, indar berezia jarri zen gatazkak berak sortu zituen ondorioak gainditzeko ahaleginean. Datozen leuroetan eremu honetan emandako gertaera nagusien errepaso egingo dugu, bukaeran ondorio batzuk ateraz.

4.1. AIETETIK LAU URTETARA GATAZKAREN KONPONBIDERAKO ARKITEKTURAREN BILAKAERA

Aieteko adierazpena

2011ko urriaren 17an, nazioarteko pertsona esanguratsuek, Gatazkaren Konponbiderako mugari bilakatu den adierazpena egingo dute Aieten. Adierazpenaren balio nagusiak gatazka politikoa gainditzeko eskema integrala eskaini izana eta Euskal Herriko gehiengo sozial, ekonomiko eta politikoaren inplikazioa egituratzeko bidea ireki izana dira.

Adierazpenaren xedeak:

- ETari borroka armatua behin-betikoz eteteko eskaera
- balizko etenaldi honen aurrean Estatuei gatazkaren ondorioen inguruan hitz egitera esertzeko eskaera: armagabetzea, presoak...
- adiskidetzea sustatzeko ekimenen beharra: errekonozimendua, kalte ordaina...
- bake iraunkorra lortze bidean, ordezkari politikoak bil ditzakeen mahaiak eratzea, gai politikoaren inguruan adostasunak eraikitzeak, hirugarren pertsonen laguntzarekin
- akordio hauek garatzen laguntzeko Jarraipen Batzordea osatzeko prestutasuna

Adierazpen honen harira etorriko den lehen urratsa ETarena izango da, 2011ko urriaren 20an, borroka armatua behin betirako uzteko erabakiarekin. Estatuek berriz ez dute elkarriketa prozesua irekitzeko inongo dispozizioarik agertzen.

Gatazkaren Konponbidearen blokeoa gainditzeko Foro Sozialak

2013an, Bake Bidea eta Lokarrik, akordioa bultzatzeko herritar sareek, Gatazkaren Konponbidearen esparrua desblokeatzeko gogoeta prozesua abiatzen dute. Helburuak desblokeorako proposamena burutzea eta jendarte zibilaren parte

hartzea sustatzea izango dira. Prozesu parte-hartzaile baten bidez, zeinak nazioarteko aditu ezberdinen ekarpena jasoko zuen Bilbon eta Iruñean burututako Foro Sozialetan, bake prozesua bultzatzeko 12 gomendio aurkeztu zituzten. Gomendio hauek, bere osotasunean hartzea eskatu zuten. Gomendioen esparruak:

- Desegite eta desarmatze prozesuarena.
- Preso eta iheslarien itzultzea.
- Giza eskubideen bultzada eta bermea.
- Egia, justizia eta errekonozimenduaren ingurukoa.

Bi urte hauetan, gomendioak nazioarteko eta Euskal Herriko esparru ezberdinetan aurkezteaz gain, edukietan sakondu da (besteak beste, presoek giza eskubideen errespetua eta hauen zein iheslarien etxeratzea ahalbidetzeko proposamenak).

2014ko urrian Baionako Adierazpena Frantses Estatuari zuzendutakoa

Adierazpen honetan Frantses Estatuari, eta Aieteko adierazpenaren logika berreskuratuz, Gatazkaren Konponbide integralean positiboki inplikatu dadin eskatzen zaio. Adierazpenaren xedeak:

- Frantziako gobernu eta ETaren arteko elkarriketa abiatzea, besteak beste jardun armatuaren bukaera aztertze-ko.
- Euskal preso politikoen giza eskubideen errespetua eta salbuespeneko legediarekin bukatzea, gaurko marko juridikoaren barnean hartu daitezkeen neurri positiboak inplementatuz.
- Marko juridiko berria eskatzen duten neurrientzako adostasun politikoak bilatzea.
- Ber-adiskidetze prozesua sustatzeko "Egia eta Ber-adiskidetzea" motako taldea sustatzea.
- Ipar Euskal Herriko ezagutza instituzionala.

Adierazpena "Frantziako Euskal Herriko elkarriketa taldea"k izenpetua da eta bertan Aieteko konferentzian parte hartu zuten Ipar Euskal Herriko eragile politiko zein sozialak biltzen dira. Hauen artean, Jean-René Etchegaray Baionako auzapeza, Frédérique Espagnac PSko senataria, Jean-Jacques Lasserre Hautetsien kontseiluko lehendakaria eta Xabi Larralde Sortuko kidea daude. Adierazpenak Gobernu Frantsesa interpelatu du, konponbiderako Ipar Euskal Herriko eragile bide orria proposatzen du eta era berean Frantziako iritzi publikoan eta zenbait sektore sozialetan eragiteko tresna ere bada.

Aieteko konferentziari nazioarteko sostenguak

2010ean Bruselako Adierazpenean Euskal Herriko bake prozesuaren alde hainbat Nobel sari agertu ondoren, ugariak izan dira konferentzia berezietan edo Estatuetako parlamentuetan prozesua babesteko burutu diren adierazpenak. Hauen artean:

- 2013an Mexikon burututako Euskal Herriko Bakearen aldeko Topaketa Kontinentala eta Euskal Herriko bakearen aldeko adierazpena. Honetan Aieteko adierazpenak ezartzen zuen bide orria babestu eta gauzatzera animatzeaz gain Foro Sozialeko gomendioak ontzat ematen ziren. Sinatzaileen artean Amerikako Estatu ezberdineko presidente-ohi eta egungo kargu politiko eta instituzional ugari zeuden.
- 2014ko abenduan Argentinan sinatutako Euskal Herriko bakearen aldeko konferentziaren kapitulu Argentinarrean eta 2015ko urtarrilean Quitoan sinatutako Euskal Herriko bakearen aldeko adierazpenean, berriz ere Aieteko bide orriarekin bat egiten zen, oraingoan halere interpelazio zuzena egiten zitzaizen Frantziar zein Espainiar Gobernuari bake prozesuan eta zehazkiago ETaren armagabetze prozesuan inplikatu zitezen. Iniziatiba hauek jatorrizko Estatuaren kargu, instituzio eta pertsona esanguratsuen babesa jaso zuten.

ETA erakundearen urratsak

Euskadi Ta Askatasunak borroka armatuaren erabilpena behin betiko alde batera uzteko erabaki historikoa ondoren (2011ko urrian) urrats berriak eman ditu. Guztiarekin, gatazkaren konponbidea eta erabakitze eskubidea gauzatu duen herri gisako ibilbidea erraztea eta Euskal Herrian adostutakoa, Estatuaren aurrean zein nazioartean, aho batez defendatzeko prozesua bultzatu nahi izan da.

Emandako urrats horien artean, gure ustez azpimarratzeko dira:

- Konponbiderako antolatu daitezkeen elkarriketetan parte hartzeko eta hauetan ekarpena egiteko borondatea. (2014/01/29) "Gure erakundeari zuzenean eragiten dizkieten auziak elkarriketen agendan sartzeko konpromisoa hartuz".
- Eraldatze prozesu oso bat, konfrontazio armatuaren ziklotik konfrontazio politiko demokratikora doan igarobidea burutzeko helburuarekin. Armategien zigilatzea prozesu honen zutabe bat eta iniziatiba politikoa era berean. Gatazka politikoaren ondorio guztiak gainditze bideak jarri bitartean, armategiak zigilatuz, armak, leherkariak eta gailuak erabilera operatibotik kanpo uzteko borondatea. Horretara Nazioarteko Egiaztatzearen Batzordearekin prozedura zehaztuz (2014/02/24ko agiria)
- Estatuaren erantzuna prozesuak nazioarte eta Euskal Herrian izan dezakeen dimentsio politikoa pitzatzeko ahalegina izan da. 2014ko otsailean Nazioarteko Ikuskaritza Batzordeko kideak Entzutegi Nazionalera deituak izango dira.
- 2014ko abenduan. Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak zigilatze prozesua jarraitzen duela eta "atentatu, mehatxu edo estorsiorik egin" ez direla jakinarazten die eragile eta iritzi publikoari. Prozesu honetan aurrerantzean EHko eragile politiko eta sozialekin lanean jarraituko duela azalduz.
- Eraldatze prozesu honen bigarren zutabea ETaren egituraren egokitzapena eraldatze da (2014ko uztailako agirian): borroka armatuaren praktikatik eratortzen diren egitura logistikoa eta operatiboen desegitea; armategien zigilatzea burutzeko egitura tekniko - logistikoa osatzea; ETaren zeregin politikoak burutzera zuzendutako egitura eta bake prozesua aurrera egiteko sendotzea.
- Eraldatze prozesua bere osotasunean eman dadin gatazkaren ondorioen gainditzea aldarrikatzea (2014ko uztailan): Euskal preso eta iheslarien etxeratzea, klandestinitatean daudenak barne; ETaren armagabetze adostu eta ordenatua; Euskal Herriaren desmilitarizazioa, gatazkaren ezaugarrien aldatzearen ondorioz eta normaltasun demokratikorako oinarri gisa.
- Askapen mugimenduaren erronka berriak bultzatzeko deialdia: Nazio eraikuntzan murgilduak direnei, euskal herritarrei, ezker abertzaleko militanteei, bere jardura babestu eta bultzatu duten kideei. Era berean, zatiketak eragiteko asmoz bultzatzen diren jokabide eta jarduerak deitoratzen ditu (2014/09/27)

Maila instituzionalean Gasteizko Parlamentuaren bake eta bizikidetzaren ponentzia blokeatua mantentzen da

Bake eta bizikidetzaren ponentzia, 2012an sortzen da, Patxi Lopezen legegintzaldian. Aieteko Konferentziak eta borroka armatua behin betiko uzteko erabakiak sortutako giroagatik behartuta, bakegintzaren lidergoa parlamenturantz bideratzeko asmoarekin (ezker abertzalea ilegala parlamentuan). Sorrera oso polemikoa izan zen, besteak beste ezker abertzalea kanpoan gelditzen zelako. Azkenean egitasmoak aurrera egin zuen gehiengo batekin. Aralarko 3 parlamentario alderdien diziplina apurto eta ponentziaren sorreran aktore aktibo bilakatu ziren (Aintzane Ezenarro), alderdiaren barnean krisi sakona sortuz.

2012an Hauteskunde Autonomikoak daude eta parlamentu berria osatzen da, Urkullu lehendakari eta EHBildu bigarren indarra izanik. PNVk ponentzia mantentzea erabakitzen du. Berriz ere sorrera gatazkatsua da, aurreko legegintzaldiaren oinarrien gainean eraiki nahi izan delako eta honek eztabaida eraikitzaile eta eraginkorra oro oztokatzen du. EHBilduk ponentzia desblokeatzeko ahaleginarekin zoru etikoa delakoa berraztertzeke prest azaldu da, baina, honek ez du PSE eta PPren jarraera mugiarazi.

4.2. PRESO ETA IHESLARIEN ESPARRUAN EMANDAKO GERTAERAK.

Eraso berriak

Oro har, baina bereziki presoen aferan, estatuaren blokeoa erabatekoa da. Espetxe politikari dagokionean ez da urratsik eman. Dispersioa bere horretan mantentzeaz gain bestelako eraso berriak ere ezagutu ahal izan ditugu azken hilabeteotan:

- 2014ko urrian Espainiako Senatu eta Kongresuak onartu zuten Europar Batasunak presoek euren zigorra jaioterriko Estatuan bete behar dutela dioen zuzentaraua. Honek Frantzia dauden euskal presoak Espainiara eramatea suposatuko luke, beraien bizi baldintzetan aldatetako ekarri eta dispersio politikaren bidez Espainian sakabanatuz.
- 2014ko abenduan presoek espetxean eman beharreko denbora luzatzeko jukutria berria Espainiar Gobernuaren aldetik. Presoek Espainia ez den beste herrialdeetan (bereziki Frantzia) espetxean emandako urteak ez deskontatzea Espainian ezarritako zigor orokorretik. Epaia Europako auzitegiak bideratua dago, ohikoa den lege epai-bide luze baten esperoan presoek espetxealdiaren luzatzea pairatu behar dutelarik.

- 2015eko urtarrilean presoan abokatu zein Herrirako 16 kideren aurkako operazio poliziala eman zen, abokatuei presoak eta ETArekin arteko lotura egitea leporatuz baina baita diru zuritze delituak ere.
- 2015eko martxoan, 4 lagun atxilotuko ditu Guardia Zibilak operazio berri batean. Etxerat presoan senideen elkar-teen zein presoek mediku asistentzia ematen dion Jaiki-Hadi elkar-teen inguruan mugitzen diren pertsonak atxilotuko dituzte.

Preso eta iheslarien kolektiboen urratsak

EPPK-k abiarazitako dinamikekin aurrera jarraitu du:

- 2014ko martxotik aurrera, Euskal Herriratzea lehen helburu gisara jarrita, hurbiltze eskaera indibidualak egin zituzten, lehenik eta behin preso gaixoei eta 70 urtetik gorakoek.
- 2014ko ekainean, apirilean Kolektiboko mintzakideek Harremanetarako Nazioarteko Taldearekin (HNT) izandako bileraren berri eman zuten, bertan presoan egoeraren zein beraien ekimenaren berri eman ziela adieraziz.
- 2014ko irailean, Euskal Herriratze dinamika amaiera jarri zitzaion. Estatuaren aldetik jasotako ezezkoei aurrean helegiteak jarri dira.
- 2014ko urrian, Foro Sozialetik presoan egoera gaitzatzeko egindako gomendioak begi onez ikusten dituztela adieraziko du.

Bestetik, 2013ko ekainean Iheslarien Kolektiboak Miarrizten aurkeztutako ekimenaren ildotik, 2014. urtean zehar hamarnaka izan dira beraien sorterrira itzuli diren euskal herritarrak.

Presoen eskubideen aldeko mugimenduaren bilakaera

Presoen Euskal Herriratzearen aldeko dinamika sozialari dagokionean, aipagai dugu 2014ko ekainean Sare ekimena eratu izana. Izenak dioten bezala herritar ezberdinez osatutako sarea da, eta eskubide guztien errespetutik abiatuz, euskal preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideen inguruko lana egitea du bere eginkizun nagusitatz, lehen lerroan presoan sakabanaketa politikaren amaiera jarritz. Horrela, saretatutako herritarrak protagonista, presoan giza eskubideen aldeko mugimendua eratzea da helburua. Oraingoz bi izan dira Sarek antolatutako mobilizazio nagusiak. Bata 2014ko irailaren 20an Bilboko Miribilan burututako ekimen jendetsua eta bigarrena aldiz, urtero lege, 2015eko urtarrilean Bilboko kaleetan egindako mobilizazioa, bertan 80.000 lagun bildu zirelarik.

Bestetik, ekainean Bake Bidea-k beste hainbat eragile eta hautetsiren babesarekin "giza eskubideak, konponbidea, bakea" lelopean, bake prozesuari bultzada eman eta presoek sostengua erakusteko Baionako karrikan 8000 lagun bildu zituen.

Esparru instituzionaleko dinamikak

Presoen aferari dagokionean **bestelako iniziatibak** ere izan dira. Eusko Jaurlaritzako Bake eta Elkarbizitzarako Idazkari den Jonan Fernandezek bidez hainbat izan dira abian jarritako ekimenak, PNVren zuzendaritzapean. Ibilbiderik gabe edo gutxi proposamenak, Estatuari presoan auzia konpontzeko sortu beharreko presio politiko eta instituzionalari uko egiten zaion bitartean.

- 2014ko urrian **Hitzeman** plana aurkeztu zuen Lakuako gobernuak, Euskal presoak gizarteratzeko helburuarekin. Ekimen honen inguruko jarrerak ezberdinak dira. PNVk salbuespen legea gaitzatzeko bere "euskal gestioa" aldarrikatuko du, eta Lokarrik ekimen positibo eta garrantzitsutzat joko du. Aldiz, Etxerategi Jaurlaritzaren kompetentzia eza salatuko du, eta horretaz gain Sortu zein EH Bilduk salbuespen legean oinarritutako proposamen bat dela kritikatu dute. Beste muturrean, PSE eta PP kokatu dira, lehenak propaganda hutsa eta Gobernu Espainiarrarekin akordioak ez dagoela esan eta bigarrenak damuketarik ez dagoela azpimarratuko duelarik.
- Azaroan **Zuzen-Bidean** programa aurkeztuko dute, aurrekoaren osagarri gisara. Zuzenbide penal zein espetxe zuzenbidean erreferentziazko dokumentua izan nahi duela aipatu dute. 20 neurri planteatzen dira "zuzenbide penala eta penitentziarioan normaltasuna" lortzeko, horietatik hamarrek ez dutelarik behar lege aldatetarik: espetxe eskumena transferitzea, presoan hurbiltzea, Langraitz bidean urratsak ematea, preso gaixo eta nagusiak kaleratzea, Hitzeman programa bultzatzea edota orain normalizatuak dauden praktika politikoengatik zigortutako per-

tsonei legea aplikatzea. Sarek modu positiboan erantzun zion programari, bide komuna egiteko beharra azpimarratuz. Norabide berean, EPPK-k proposamena aztertu eta ados guneetan sakontzeko borondatea erakusten du.

4.3. ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK

Esparru honetan, oraindik orain ilegalizazio fasearen ondorio diren gertaerak antzeman ditzakegu, baina baita eraso zahar-berrien agerpenak ere:

- **Epaiketa politikoek** aurrera darraite. 2014ko irailean hasiera eman zitzaion Entzutegi Nazionalean 28 gazte independentisten aurkako epaiketari (21 absolutu zituzten). Epe motzean Iruñerriako 10 gazteren aurkako epaiketa, Batasuna, EHAK eta ANVko 35 kideren kontrako epaiketa ber-hartzea eta Askapenaren aurkakoak izango dira.
- Epaiketen ondorioak ere jaso dira. **35/02 edo "herriko tabernak"** bezala ezagututako auzian, 20 urteko kartzela zigorrak ezarri ziren orotara, 3 eta 15 hilabete bitartekoak, horietako lau espetxera bueltatu beharko dira. Gainera, oraindik orain Auzitegi Gorenaren ebazpena falta bada ere, dagoeneko Entzutegi Nazionalaren epaiak 103 herriko tabernaren konfiskazioa ebatzi du.
- Garrantzia hartu duten beste gertaera bi, **Deustuko bi gazte eta Gernikako Jone Amezagaren** kasuak izan dira. Lehenengo kasuan greba pikete batean gertaturiko istiluen harira eta bigarrena "terrorismoa" goratzen zuen pankarta batean ustez bere hatz markak aurkitu zituztelako, espetxeratuak izan ziren. Adibide hauek agerian uzten dute aurrerantzean errepresioak hartu dezaken itxura, protesta ekimen minimoen aurrean zigor eredugarriak ezarritik. Hauek "mozal" legeak ekar lezakeenaren aurrekaritzat har daitezke.
- Beste zentzu batean, Nafarroan zein EAEn Gobernu Ordezkarik diren Carmen Alba eta Carlos Urquijoren bidez ematen den eskubideen aurkako erasoaldia. EH Bilduk egindako salaketaren arabera, EAEn 900 helegite baino gehiago sartu ditu azken bi urteotan administrazioan euskararen erabilpena dela eta, aktak euskara hutsez bidali edota udalerriak UEMAn sartu izanagatik. Erasoaldia baina ez da mugatzen euskararen inguruko gaietara, baizik eta mobilizazio ezberdinen gaineko debeku eskaerak edota "Lasa eta Zabala" filmari emandako diru laguntzen gainekoa ere.

Eskubide urraketon aurrean erantzun ekimen ezberdinak ere burutu dira. Batez ere eskubide zibil eta politikoen defentsan **Libre zein Herri Harresien** dinamikari jarraiki. Azken hilabeteetan nagusienak irailean 28 gazte independentisten epaiketara agertu ez ziren lau gazteren defentsan Loiolan eraiki eta Ertzaintzak kolpeka apurtuta herri harresia, urrian Urtzi eta Telleren babesean "grebalariak aske!" lelopean Deustun buruturiko herri harresia eta azkenik, abenduan kartzelara sar-tzeari uko egin ostean ezkutuan zegoen Jone Amezaga asteburua osoan zehar Gernikan libre bizi ahal izateko eratu-tako herri ekimena.

4.4. ELKARBIZITZA ETA MEMORIAREN ERAIKUNTZA, BIKTIMEN AITORTZA ETA ERREPARAZIOA.

Ugariak izan dira esparru honetan azken hilabeteetan izan diren ekimenak. Ziur aski batez ere memoriaren errekonstruzio eta eraikuntzan sentsibilitate berezia dagoelako eta testuinguru berriak berak ere erraztu eta lagundu egiten du hauek momentu honetan indartzen. Baina, badago beste arrazoi bat: azken 50 urteetan bizi izandako gatazka armatuaren erre-latoaren inguruko lehia politikoa.

Azken hilabeteetako ekimen nagusiak, diskurtsoak eta eragileak ikusita, honokoa azpimarratu nahiko genuke:

- Esparru honetan eman diren egitasmo eta ekimen gehienak fase politiko berri batean gaudela onartzen dute eta bertan kokatzen dira, aitzitik AVT bezalako biktimen elkarten inzidentzia gutxitu egin da.
- Eusko Jaurlaritzari askoz ere errazago zaio bizikidetzaren inguruko zereginetan sakontzea, gatazka bera sortu duten arrazoi edota ondorioetan sakontzea baino. Modu honetan, kostu politiko gutxiago jasaten du eta gatazka-ren ezaugarri politikoak desitxuratzen ditu. Ezin uka hala ere, iniziatibak hartu, hartu dituela, horien artean Memoriaren Institutua (frankismoaren memoria lantzeko), Memoriaren Mapa non poliziaren biktimak ere sartu dituen eta Gertu Plana (gatazkatsua izaten ari den biktimei arreta emateko plana).
- Modu positiboan balora dezakegu esparru ezberdinetako biktimen artean ematen ari den hurbilketa, eta beste-tik torturaren existentziaren errekonozimenduan emandako urratsak (Eusko Jaurlaritzak azken 40 urtetan egonda-

ko tortura kasuak aztertzeko ikerlana abian jartzea, Istanbul protokoloa aplikatu zaien 45 pertsonen tortura kasuen txostena publikatu izana...)

4.5. AZKEN HAUSNARKETA

Aieteko Adierazpenak eta ezker abertzaleak agertu borondateak konponbidearen aldeko estrategiak jarraitu beharreko logika berria ezarri zuen. Horrela ulertu zuten Euskal Herriko eta nazioarteko eragile ugari. Alta, estatuen borondate eza eta euskal eragile politiko, ekonomiko eta sozialen inplikazioa lortu ez izanak aurrera begirakoa baldintzatu du. Lan honetan agertzen den argazkiak erakusten duen bezala, konponbiderako saiakeran sakondu da, batez ere gatazka armatuen ondorioen atalari dagokionez (presoak, desarmea, biktimak, elkarbizitza...). Egun inoiz izandako proposamenik elaboratuenak ditugu guene eta eragile ezberdinek burututako inizatibetatik sortuak (Foro Sozialak, Bake bidea, ETA erakundearen bide orria...), baina Aietetik hiru urte eta erdira zaila egiten da gatazkaren konponbiderako bide orria irudikatzea (egoera honetan Baionako Adierazpena ekarpen positibo eta eredugarria bilakatu daiteke).

Guztiarekin, jendartearen inplikazio eta mobilizazioan eta konponbidearen subjektu izan behar duten eragile ezberdinen arteko akordioetan jarri nahi dugu azentua. Gatazka armatuaren ondorioek konponbidea behar dutela, euskal jendartearen normalizazio demokratikoa behar dela eta ezberdinen arteko elkarbizketan ezinbestez sakondu behar dela gehiago nagusi baten eskaera da. Sare bezalako inizatiba berrien bilakaera ikusteko dagoen arren, azken hilabeteetako mobilizazioek dauden aukerak eta inplikazio mailaren arteko desoreka erakusten dute.

5. DINAMIKA SOZIALA

Ondoren azken hilabeteetan esparru ezberdinetako gertaerek izandako bilakaera jaso dugu. Oraingo azterketa honetatik kanpo utzi ditugu aurreragoko puntuetan aipatu izanagatik, presoek eskubideen aldeko eta erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak. Bukaeran dinamika sozialean eta antolatze ereduaren egon den bilakaeraren inguruko hausnarketa burutuko dugu.

5.1. LAN GATAZKAK ETA PREKARIETATEAREN AURKAKO ASKOTARIKO DINAMIKAK

Aurreko IKUSMIRAN egindako irakurketaren norabidean joan dira gertaera. Lanari lotutako gatazkek dinamika sozialaren baitan pisu handia hartzen dute, nahiz eta lantokiari loturik egonik beraien pisu kualitatiboa desitxuratua gelditu. Dena den asko dira lan esparruan eta gainera Euskal Herriko geografi osoan erasoan aurrean emandako erantzunak, hitzarmenaren, negoziazio kolektiboaren edota kaleratze zein baldintzak eskastearen aurrean izandako geldialdi, greba mugagabe, protesta mobilizazio edota bestelako ekimenak.

Luze joko luke lantokiz lantoki izandako borrokaldien berri emateak, baina ideia orokor bat izateko hona hemen batzuk. Batetik, lan baldintza edo enpleguaren defentsan greba zein paroak burutu dituzten enpresak: Azkoyen (Azkoien), Zelain Transformados (Lesaka), Condesa (Legutio), Nanuk (Elorrio), Arriandi Goxegileak (Iurreta), Real Union (Irun), Hotel Ercilla (Bilbo), Holiday Inn Hotela (Bilbo), TEPSA (Bilboko portua)... Bestetik, enpresa itxieren aurrekoak grebak: Arkema Quimica (Alonsotegi), Candy (Bergara), Cablenor (Gasteiz), Arcelor Mittal (Zumarraga)... Eta bukatzeko, oihartzun berezi bat hartu dutenak: Osakidetza, Radio Euskadi edota Bizkaibus.

Aurreko alearen ildo beretik ere, herri-klaseen pobretze zein prekarietatearen hedapenaren aurreko dinamika eta mobilizazioek aurrera egin dute. Izan etxebizitza eskubidearen alde zein murrizketen, Kutxabanken pribatizazioaren edo TTIP ituen aurka, mobilizazio, antolakuntza espresio zein dinamikak mantendu egin dira, baita hedatu ere.

5.2. EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Urte beteko eztabaida prozesuaren ostean, 2014ko maiatzaren bukaeran Euskal Herriko Eskubideen Karta onartua izan zen

asanblada orokorrean. Orduz gero Kartaren hedapenean aritu izan dira herri eta eskualde ezberdinetan eta hainbat lekutan herri mailako mobilizazioak ere burutu dira.

2015eko urtarilean, Programa Sozialaren aurkezpena egin zuten, Kartaren oinarrizko aldarrikapenak 16 puntutan bildu eta laburbiltzen dituen. Aurkezpen horrekin batera, gerora martxoaren 14an Bilbon eta Iruñean 10.000 lagun mobilizatuko zituzten manifestaziorako deialdia burutu zuten. Programa Sozialaren edukiei dagokionean, eremu ezberdinetako hamasei aldarrikapen jasotzen ditu: enplegua, generoa, politika fiskala, babes soziala, ingurumena, parte hartzea, kultura...

Hurrengo erronka jarrita dago: 2015eko urrirako Alternatiben Herria deituriko ekimena antolatzen ari dira Bilbon. Arloz arlo eta esparru ezberdinetan Euskal Herriak behar duen alternatiba orokorra landu, eztabaidatu eta irudikatzeko helburua izango du. Ekimen honek badiu bestelako aurrekari batzuk, Alternatiben Herrixa Ipar Euskal Herriko Bizi! mugimenduak antolatu baitzuen lehen aldiz 2013ko urrian Baionan.

5.3.MUGIMENDU FEMINISTA

Aurreko alean aipatu bezala, abortuaren lege aldaketaren aitzinean izandako mobilizazio eta erantzun protestek mugimendu feminista bizkortzea ekarri zuten, bere protagonismoa indartu eta bestelako aldarrikapen feminista batzuk azaleratzeko aukera eman zutelarik. Horretaz gain, izandako eraso sexisten aurrean herriz herriko mobilizazioak ematen eta hedatzen joan dira eta baita, batik bat udan, herri askotako jaietan eraso sexisten aurka zein jaietan emakumeek izan beharreko lekua aldarrikatzen duten dinamika eta kanpainak.

Guzti honen ondoan, abenduan Bilgune Feministak deituta, 600 emakume bildu ziren Ondarroan burututako Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministetan. Hiru eztabaidagai nagusi jarri zituzten mahai gainean: krisi ekonomikoaren testuinguruan patriarkatuaren eraginez inguruko identifikazioa egitea, Euskal Herriaren burujabetza feminista aztertzea eta sare feminista indartzea eta kohesionatzea. Bertan aurrera begira jarraitu beharreko estrategia feministaren ardatzak eztabaidatu eta finkatzeaz gain Euskal Herriko Jardunaldi Feministak eta Trantsizio Feminista antolatzeko beharra ondorioztatu zuten.

5.4.MUGIMENDU EKOLOGISTA

Askotarikoak dira lurraren defentsan Euskal Herrian abian diren dinamikak. Horien artean, azken aldi nabarmendu dena frackingaren aurkako mugimendua izan da. Petrolio, gasa edota bestelako substantzia batzuk lur azpitik eskuratzeko asmoz, presio handiko fluido bidez lur azpiko harri-geruzak zartatzen oinarritutako teknika bat da. Praktika honek kezka sortu ditu munduan zehar, batez ere lur azpiko zein gaineko urak kutsatzea suposatuz lezakeelako, era horretan ingurumena zein osasuna kaltetuz.

Honen aurrean, frackingaren aurkako mugimendua errotzen joan da Euskal Herrian. Fracking Ez leloaren azpian, talde eta dinamika ezberdinak jarri dira martxan Hegoa Euskal Herriko hainbat herri eta eskualdetan. 2014ko irailean Herri Ekimen Legegilea aurkeztu zuten, 100.000 herritarren sinadurarekin, Eusko Legebiltzarrean frackingaren inguruko eztabaida eman eta berau debekatzeko eskatuz. Nahiz eta Legebiltzarrean ordezkaturiko bost alderdiak eztabaidaren aldeko agertu, EH Bildu izan zen testuarekin bere osotasunean bat egin zuten bakarra, eta gainera, eztabaida atzeraturik geratu zen 2015eko otsailean, Legebiltzarreko Mahaian PNV eta PP-ek egindako eskariaren ondorioz eztabaidaren prozedura aldaketak izan baitira. Horrela, hauteskundeak begi bistan, gaiaren inguruan posizioa agertu behar ez izatea bilatu dute. Edozein kasutan, aipatu beharra dago Espainiako Auzitegi Konstituzionalak, beste erkidego batzuen erabakiei erantzuten, tartean Nafarroako Parlamentuarena, ukatu egin zuela erkidegoek frackinga debekatzeko duten eskumena.

Beste alde batetik, oraindik orain AHTaren aurkako ekimen bakan batzuk egiten jarraitzen dira, eta baita kasu kasu herri edo zonalde mailako dinamikak ere: Garoñaren behin betiko itxieraren alde, Castejon eta Ezkio arteko autopista elektrikoaren aurka...

5.5. ETORKINAK ETA ANIZTASUNA

Hautsak harrotu ditu Gasteizko alkate den Marotok (PP) etorkinak eta laguntza sozialen inguruan egindako adierazpen zein abian jarritako dinamikek, hain zuzen ere etorkinak laguntza sozialez baliatzen direla eta hauen gainean kontrol zorrotzagoa behar dela aldarrikatuz. Diskurtsoaren atzean dagoen kutsu xenofoboaren ondoan Gora Gasteiz! deituriko dinamika eratu da, aniztasunean eta eskubide sozialen errespetuan oinarritutako hiri integratzaile bat aldarrikatuz. Dinamikak arrazismoan oinarrituriko diskurtso baten aurrean bestelako diskurtso bat eraiki eta esparru ezberdinetako jendea mobilizatzeko balio izan du. Baita Gasteizko mugetatik harago, izan ere dinamikak sortu duen sinpatia, bereziki komunikabide eta sozialen bidez beste eremu batzuetara hedatu baita.

Beste maila batean, eta arrazismoan oinarritutako diskurtso populista hedatzen ari den honetan, aipatzekoa da erakunde ezberdinetatik jatorri aniztasunaren inguruan eta batez ere jatorri ezberdineko pertsonekin egiten ari diren lanak, besteak beste Gipuzkoako udalerri ezberdinetan etorkinen inguruko "zurrumurruek" gelditzeko ekimenak, edota etorkinen errealitate eta beharrak aztertzen dituzten prozesu parte hartzaileak.

5.6. EUSKARA

Euskararen inguruan azken hilabeteetan jasotako gertaerak neurtzeko bi dimentsioren arabera egitea garrantzitsua deritzogu. Alde batetik, euskararen normalizazioa oztopatzen duten etengabeko eraso sistematikoak, eta bestetik, honen aurrean ematen ari diren mota ezberdinetako erantzunak.

Erasoen artean, nabarmenduko genituzke: Estatu Espainiarraren aldetik, erakunde publikoetan euskararen erabilpena zigortu eta oztopatzea, Urkixo Gobernu ordezkariaren bidezko neurriekin; Ziburuko ikastolak (Kaskarotenea) udal eraikin publiko bat erabiltzen jarraitzea ukatuz bertako udalak (alkatea buru) hartutako erabakia; Jaurilaritzak euskal hedabideei ekarpen ekonomikoa murriztea; edota Uztaritzen euskara hizkuntza ofiziala izango dela aldarrikatu ostean Suprefetak salaketa jarri izana.

Beste maila batean, euskararen eremuan izandako gertaera nabarmena 2014ko urrian Nafarroako Euskararen Legeari egin zaion aldaketa da, euskarazko hezkuntza zabaltzeko parlamentuan egindako akordioaren bidez. Ezkerra, PSN eta Geroa Bai-k erregistratu zuten proposamena parlamentuan, eta Bildu eta Aralarrek babestu. Era horretan, sare publikoan eta "zonalde ez-euskaldunean" gutxiengo eskaria dagoenean D eredua ezartzeko aukera legoke. Urrats txikia baina urratsa. Aurrera begira tentuz jarraitu beharko da legeari egin zaizkien aldaketen zehaztapena, izan ere eskaintza baliabideen (bereziki ekonomikoak) menpekoea baita, eta beraz izan daiteke formalki onartu bai baina praktikan ezin gauzatu ahal izatea. Beste maila batean, aztertu beharko da PSNren aldeko jarreraren atzean dauden arrazoiak.

Mobilizazioei dagokionez Korrika 19ren arrakasta eta Kaskarotenea ikastolaren defentsak jasotako babes eta erantzuna. Azken honi dagokionean, 2014ko irailetik aurrera Paueko epaitegiak eraikina ez huts-arazteagatik egun bakoitzeko jarritako isuna (hasiera batean 100€koa eta gero 400€koa) Euskal Herriko pertsona anonimo zein elkarte ezberdinen ekarpenarekin ordaindu zen. Mobilizazio ikuspegi batetik, azaroaren 8an 5.000 pertsona bilduko zituen manifestazio batek Ziburun, bezperan elkartasun ekimen gisara Seaskako 31 ikastolatan ordu betez argi gabe egon ziren edota Euskal Herri osoko ikastoletako 200 ordezkari batu izana Durangon. Negoziaziorako proposamenak izan arren, aferra ez da bide horretatik konpondu, eta azkenean Ziburuko ikastolak lur sail bat erosi eta ikastola berria eraikitzeko hautua egin du, bildutako dirua eta 2015eko Herri Urratsekoa horretarako erabiliz. Korrikari dagokionez, inoizko jendetsuena eta hartutako babes eta atxikimenduetan zabalena izan da. Kopuruak kuantifikatzea oso zaila den arren datu batzuk emate aldera: 2.500 kilometro egin ditu, milaka pertsona bildu ditu hiriburuetan eta zenbait eskualde buruetan, Urepelen bizitako hasiera historikoa izan zen 5.000 pertsona bilduz eta 50 korrika baino gehiago burutu dira mundu osoko bost kontinentetan.

2014ko urrian Kontseiluak eta Behatokiak Europako adituen aurrean salatu bezala, hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa ematen da Espainiar Gobernuaren aldetik. Beste alde batetik, UEMAk 2015eko udaberrian argitaratutako datuen arabera, azken hamarkadetan euskarak izandako bilakaera kezagarria azpimarratzekoa da: udalerri euskaldunak geroz eta azkarrago ari dira erdalduntzen. Iñaki Lurrebasok UEMArentzat egindako azterketan, 1981 eta 2011 urteen artean orotara EAEko biztanleriaren %15a biltzen duten 126 udalerri euskaldunek (euskaren indizea %70 baino altuago dutenak) izandako bilakaera aztertu du, hiru aldagairen arabera: gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera. Gaitasunari dagokionez

lehen fasean (1981-1991) igoera bizi eta bigarrenean (1991-2001) mantendu bazuen ere, azkenengo hamarkadan gutxitu egin da. Lehen hizkuntzari dagokionez euskara lehen hizkuntzatzat dutenen kopuruaren beherakada nabarmena izan da, batez ere azken hamarkadan. Eta bide beretik, euskararen etxeko erabilera gutxitzen joan da: lehen hamarkadan %56,4an bazegoen, bigarrenean %54,5ean, azken hamarkadan %47,5 -era jaisteraino.

5.7. HEZKUNTZA

Hezkuntza nabarmentzen diren gertaerak LOMCEren inposatzea; Nafarroan hezkuntza sailak "errealitate instituzionala ez errespetatzearen" aitzakian (ikurrina agertzea, Nafarroa Euskal herriaren barnean kokatu izana) 22 liburu erretiratu izana sare publikotik; EAEn Jaurilaritzaren aldaketen bidez lehen ere euskararen egoera ahula den Lanbide Heziketakako ikasketetan B eredua bultzatzea D ordean (euskara hizkuntza nagusi bezala erabiltzen duen eredua); edota Espainiako Gobernuak unibertsitate graduak 4 urtetik 3ra gutxitu eta graduondokoak 1tik 2ra igotzeko erreforma (graduondo gehienak pribatuak direnean).

Mobilizazio ezberdinak izan dira aipatu erasoan aurrean. Ikasle mugimenduaren aldetik hezkuntza erreformen aurka (LOMCE, EU2015) 13.000 ikasle batu ziren Hego Euskal Herrian 2015eko otsailaren 26an "Planto egun"ean. Data horretatik aurrera egungo hezkuntza ereduaren alternatiba irudikatu eta hausnartzeko ekimen ezberdinak burutu ziren bertan zein unibertsitateetan. Hauen artean Leioa, Bilbo, Ibaeta, Gasteiz eta NUPen unibertsitate eredu alternatiboa irudikatzen burututako Herri Unibertsitatea ekimenetan, ehunka ikasle bilduz hitzaldi, tailer, eztabaida eta mobilizazioetara.

Bestalde, hezkuntza egutegia markatu duena LOMCEren aurkako dinamika izan da. 2014ko irailean, ikasturte berriaren hasierarekin, hezkuntza eragile ezberdinek (ELA, LAB, EILAS, Sortzen, Ikasle Abertzaleak, UEU eta Hik Hasi) oharra kaleratuko dute LOMCE ez aplikatu eta hezkuntza sistema propio baten aldarrikapenarekin. Urriaren 11rako "Euskal Herriaren gure hezkuntza eraiki! LOMCEri ez! Inposaketei ez!" lelopean manifestazioak deituko dituzte hegoaldeko lau hiriburuetan orotara 19.000 lagun bilduz, eta horretaz gain 170 ikastetxek baino gehiagok LOMCEri Ez! kanpainari atxikitzuz iragarri zuten ez zutela legea aplikatuko.

LOMCEren inguruan Eusko Jaurilaritzak 2014ko udaran Madrilekin ezkutuan negoziatu izana eta negoziazio hauen emaitzak kritikatuak izan dira eragile ezberdinen aldetik. LOMCE ez da guztiz neutralizatzen eta gainera dagoeneko hezkuntza komunitatetik baliogabetzat ematen duen hezkuntza ereduaren inguruko berrikuspenera ukatzen da. Era berean, Jaurilaritzaren eskutik Euskal Curriculum osatzera begira osatutako Heziberri plana kritikatu da, LOMCEren bidez inposatzen diren aldaketak oinarri dituelako, besteak beste, LOMCE agindu bezala maila ezberdinetan ebaluazio diagnostikoak egitearena (pedagogia kontserbadorean sakonduz, ebaluazio irizpideak Espainian erabakitzen diren bitartean). Azken honen aurrean, hezkuntza komunitatetik hurrengo hilabeteetarako desobedientzia deialdiak luzatu dira.

5.8. AZKEN HAUSNARKETA

Balio politikoetan bezala, mobilizazio sozialaren arloan ere zorrotz jarraitu beharreko aldaketak ematen ari dira. Aldaketen atzean dauden arrazoiak prozesu luze eta sakonen ondorio dira:

- Mendebaldeko jendarte kapitalistetak jendarte-egituretan eta balio, jarrera zein identitate politikoetan bizi izan diren aldaketak. Besteak beste, indibidualizazio prozesuak, gune urbanoen nagusitasuna, prestakuntza akademikoaren orokortzea edota globalizazioa eta teknologia berrien agerpenak. Hauek guztiak, atxikimendu eta militantzia politikoa bizitzeko moduetan aldaketak dakartzate.
- Kapitalismoaren alde anitzeko krisiak bizi baldintzen okertzeaz gain kohesio krisia eragin du. Honek guztiak, parte hartze politikorako esparruetan eta aukeretan aldaketak ekarri ditu (lurralde indartu, lan guneak ahuldu), erantzun eta protesta mugimendu berrien sorrera eragin du eta pertsonak komunitatearekin duen harremanaren ezaugarrietan eragin du. Segurtasun eskaera batetik eta lotura sozialen apurketa bestetik.
- Klase politikoaren deslegitimazioa eman da. Sozialdemokrazien eta ezkerreko indar instituzionalen asimilazioa ikusi da, hauen burokratizazioa eta aldaketa sozialak sortzeko duten ezintasuna egiaztatu da. Honek, subjektu klasikoaren errepresentazio krisia ekarri du (langilegoaren eta herri-klaseko sektore zabal bat ez da sindikatuetan eta ezkerreko alderdi politikoetan ordezkaturik sentitzen). Era berean, ezkerreko sektore batean alternatiba Estatuaren

eta botere guneen kanpotik eraiki daitekeenaren ikuspegia indartu da.

Bitartean, bestelako mugimenduek indarra hartu dute (ekologia, feminismoa...), ibilbide propioa eraiki dituzte proiektu osoak bilatzeko anbizioa bereganatuz (adibidez eko-sindikalismoa, ekologia politikoa edota ekonomia feminista). Aldaketa politikoa nahi duen mugimenduan ematen den heterogeneitate honek askapen prozesua aberastu egiten du, baina, mugimenduen arteko artikulaziorik gabe, atomizazio egoera ekar dezake, hau da, mugimenduen arteko dispersioa. Azpimarratzekoa da botere instituzionalekiko eta bereziki alderdi politikoekiko lotura eta harremana aldatzen dela (autonomiaren aldarrikapena, instituzioetan eragiteko anbizioa gutxitzea) eta, beraz, askapen mugimendua eta trantsizio prozesuak irudikatzeko moduetan aldaketak datoz ere.

Bestetik, herritarren ikuspegiari so eginez, Deustobarometroak 2014ko neguan EAEko biztanleen artean egindako ikerketan baten emaitzak nabarmendu nahi ditugu. Galdekatutakoen %48ak "demokraziak alderdirik gabe funtzionatu" dezakeenaren iritzia erakusten dute eta soilik %31ak uste du alderdiak ezinbestekoak direla. Herritar mugimenduei dagokionean %87ak ondo ikusten du herritarrek mobilizatzea, eta "herri mobilizazioak ez du laguntzen politikoak aldatzen" esaldiarekin ez dago ados galdekaturen %61a. Hortaz gain, norbere parte hartzearekin loturik, %65ak, modu batera edo bestera (sinadura, watsapen zabalpena, manifestazioak...), azken 6 hilabeteetan parte hartu duela aitortzen du.

Euskal Herriko kasuan, aipaturiko eraldaketa prozesu hauen ondorioek, fase armatuaren desaktibazioarekin eta ENAM-en birkonfigurazioarekin bat egiten dute:

- Gatazkaren gordintasunaren itzalpean bigarren mailako balore politikoa omen zuten kezka, dinamika eta subjektu batzuk, lehenengo planoan ezartzen dira. Adibidez, lan esparruari dagozkion gatazkak eta kezak.
- Era berean, antolatze eredueta aldaketak sumatzen dira. Ezker abertzaleari dagokionez, antolakuntza ereduak askapen prozesuak izan dituen estrategien arabera eraiki dira eta garaian garai zeuden baldintza sozialen arabera garatu. Maiz kontraesanekin, gehiago edo gutxiago asmatuz, helburua dinamika soziala suspertu eta norabidetzea izan da, aldaketa politikoa ekartzeko anbizioarekin.

Egun, Euskal Herriko askapen mugimenduan hamarkadetan gorpuztu diren antolakuntza eta dinamizazio ereduak arteko elkarbizitza ematen dela esan dezakegu: zuzendaritza bakarreko eredu klasikoak; 90. hamarkadetan, nazio eraikuntza estrategiaren hedapenarekin, sektore estrategikoetatik, eragile ezberdinen akordioak eta Herri gisako estrategia planifikatu baten koordinazioa egituratzen zuena; eta, berriagoa izan daitekeena, nodoen bidez interkonektatutako sare itxurako mugimenduak, ekinez baldintza berriak sortzea bilatzen duena.

- Estrategia aldaketak beharrezko duen antolakuntza eredia sortzeke (sindikalgintza birpentsatzen, Fronte Zabala hausnartzen...) eta panorama soziala birdefinitzen ari den garai honetan, militantzia eta politika bizitzeko moduaren aldaketei egoki erantzutea ezinbestekoa izango da.
- Bestetik, Euskal Herrian antolatua dagoen eta dinamika sortzaile den espektro zabala dago. Hauengan ere eragiten dute krisiak eta faktore sozial berriak. Ondorioz, nagusitzen diren antolakuntza eta dinamika ereduak atentzioaz jarraitu beharko dira.

Bukatzeko, aldaketa politiko eta soziala bultzatuko duen subjektu edo subjektuen arteko aliantza berriaren eraikuntzari begira, goian aipatu faktoreez gain, honokoari erreparatu behar zaiola uste dugu:

- Euskal Herrian pisu politiko handia duten eragile eta mugimenduak, besteak beste, euskalgintzan, feminismoan edo sindikalgintzan kokatuak dauden batzuk, ibilbide teoriko eta praktiko propioa izan dute, beren esparruari dagozkion dinamikan, krisi orokorraren aurrean edota askapen prozesuan izan diren aldaketa ezberdinen aurrean. Ibilbide hauek aitortzea eta ulertzea ezinbestekoa bilakatzen da egungo panorama soziala ulertzeko eta etorkizuneko aliantza estrategiak egituratu ahal izateko.
- Goian aipatutako faktoreek tokikotasuna eta komunitatea lantzeko beharra eta motibazioa indartzen dute, hau modu ezberdinetan adierazten da (alternatiba txikien eraikuntza, burujabetzaren zabalpena, integrazio estrategia berrien agerpena...). Era berean, kontzienteago, modu batez edo bestez, alternatiba gaurtik eraikitzen bizi nahi duten sektoreak ugaritzen dira (birziklapena, ekonomia soziala, banka etikoa...). Fenomeno hauek azterketa sakonago bat eskatzen dute, baina, trantsizio eta dinamika sozialean eragiten dute.
- Euskal Herriko jendartea, jendartea politizatua da eta hamarkada hauetan horrela adierazi du. Gehiengoa ez dago

antolatua, baina, askok Euskal Herriak mobilizaziorako eskaintzen dituen espazio ezberdinetan parte hartu dute (Gure Esku Dago, Korrika...). Erronketako bat sektore hauengana iristea eta subjektu aktibo bilakatzea izan behar du.

VI. ERANSKINA (1). POSTSINDIKALISMOAREN INGURUAN

Antxon Lafont Mendizabal

Burujabetza da Lurralde bateko borondatearen erabateko garapena ondoen ahalbidetzen duen kudeaketa politiko mota, Lurraldea "Lurra + Identitate" gisa ulertuta. Kudeaketa sinplifikatzeko, buru-inertziagatik, zenbait nozio bereizi ohi dira: kulturaren nozioa ekonomiaren noziotik; politika ekonomikoaren nozioa politika sozialaren noziotik. Nozio horiek osatzen dute gure bizitzaren euskarri ahula, elkartasunaren bizi-kontzeptua sortzen edo sorrarazi behar duen euskarria, hain zuzen ere.

Sarrera honen helburua da, oraingoz, gure existentziaren alderdi bakar bat jorratzea, existentzia horretan tristura-haranak baina baita, zorionez, poztasun-haranak ere biltzen direla jakinda. Ekonomia hitz egiten ari naiz, gure kondizio material eta immateriala iraunaraztea ahalbidetze digun kontzeptu orokor gisa.

Euskal Herrian, okupazio ekonomiko mota batzuk bizi izan ditugu eta bizi ditugu. Gune industrial handiak ezagutu ditugu eta ezagutzen ditugu, eta haien ondoan enpresa txikiak ere bai, hala erakunde kapitalisten formarekin nola eredu kooperatibistako ekimen gisa edo ekonomia sozialaren beste forma batzuetan.

XX. mendearen azken laurdenetik aurrera, ezin azalduzko eta batzuetan gure adimenarentzat ulertezinak diren koiuntura sozial batzuen emaitza ikusi dugu; gure borondateetik urrun adierazita, eta agian egia ere bai. Batzuentzat, Durkheimen jarraitzaile eta dizipuluek egindako azterlan akademikoko kasuak dira; izan ere, Durkheimentzat egia ez zen gertaera soziala izango.

Hegoaldean, industria astunak espainiar herritar ugari mugiarazi zituen, ekoizpenaren beharengatik, eta horri esker produktu manufakturatuen fabrikazioa europar dimentsiora iritsi ahal izan zen. Haren esportazioak espainiar Estatuak eta Europako Merkatu Bateratuak –garai hartako izena da– sinatutako hitzarmenen bultzada aprobetxatu zuen, hau da, "70eko hamarkadako merkataritza-hitzarmenek" bultzatu egin zituzten bertoko industria astunaren esportazioak. Iberiar Penintsulako Hegoaldeko eta Zentro-Mendebaldeko hainbat herritarren etorrerak aldaketa soziologiko nabaria ekarri zuen bai gure lurraldeko biztanleentzat eta bai etorkin haientzat. Kausa horren efektuak emigrazioaren osteko lehenengo belau-nalditik nabaritu ziren, eta ondorio onuragarriak izan zituen gure gizartearentzat, zeren 1936ko Estatu-kolpearen ostean beharrezkoa baitzuen haize berria ekarriko zion irekialdi bat. Izan ere, garai hartan aire kutsatua soilik arnasten genuen, itxita geunden, eta gutxi batzuek soilik lortzen zuten giro horretatik isolatzea, inolako aberaste kulturalik gabe: diktadorearen erregimenaren mesedeez gozatzen zuten jauntxoak, marinela, emigranteak eta gutxi batzuk gehiago. Aski ezaguna da haxe aldarrikatzen duen printzipioa: sistema itxi batean, hutsa da entropia aldaketa.

Gaur egun, immigrazioa garrantzia galtzen hasi da. Hala, iragartzen digute Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 0 eta 4 urte bitarteko biztanleriaren % 17,8k atzerriko jatorria duela. Aldaketa soziologiko horiek bidea ematen digute politika kulturaz hausnartzeko, immigratuaren errespetu etikoarekin, haren jatorria zeinahi delarik ere, eta botere laiko eta/edo erlijio-soak ezarritako arau moralen katalogoa berraztertzea ahalbidetzen digute. Euskal Herriko gizartearen pluraltasunak jadanik islatzen ditu horren efektuak egitura sozial eta ekonomikoetan, eta, hortaz, deribatutako kolektiboen egituretan. Gure kultura ezin muga daiteke herri gisa dituen aztarnak mantentzera; aitzitik, gure eboluzio sozialean jadanik txertatuta dugun iraganaren lekukotasuna eman behar du.

Iragan mendeko 80eko hamarkadaz geroztik, gure enpresetako kapitalaren jatorria nabarmen aldatu da. Fenomeno hori Hegoaldean nabaritzen da gehienbat; izan ere, Iparraldearen kasuan, enpresa handien erabakitze-guneak Euskal Herrikanpo egon izan dira betidanik, orokorrean. Orain dela urte batzuk, tokiko enpresa bat udalerrira batean irekitzen zenean, haren tamaina zeinahi zelarik ere, langileek "patroia" ezagutzen zuten; sarritan, patroia hori jabe paternalista bat izaten zen, eta langileek harekin hitz egin zezaketen noizean behin. Meza nagusiko irteera, pilotalekua edo elkarte gastronomikoak leku pribilegiatuak izaten ziren horrelako topaketa informalentzat, eta maiz erabiltzen ziren lan-errebindikazioei buruzko informazioak eta iritziak trukatzeko.

Gaur, aldiz, zenbat enpresa daude euskal kapitalen eskuetan? Kapital sozialeko enpresak, gutxienez nolabaiteko garrantzia dutenak, talde multinazionalen jabetza izaten dira, eta haien buruak erabat ezezagunak dira, baita tokiko sukurtsaleko

zuzendarientzat ere. Kapitalaren eta lanaren arteko "elkarriketaren" izaera aldatu egin da. Zalantzarik gabe, enpresa-kapitalaren externalizazioak hautsi egin ditu azterketak egiteko aplikatzen ziren eskema batzuk, batez ere sindikatu patronalen eremuan eta espirituari. Sarritan, erakunde horietako buruzagiak eskuin estataleko alderdiek jarriak izaten dira, edo bere burua "abertzale" gisa aurkezten duen eskuinak jarriak. Hori gizarte politikoak gizarte zibilean egiten duen intrusio ageriko bat da. Aski ezagunak dira Hegoaldeko lurralde-patronalaren presidente desokupatu baten jarduna eta adierazpenak; izan ere, hedabideetako argazkietan erregulartasunez agertzeagatik eta bere prentsaurrekoengatik kezkatuta, funtsean mezu politiko alderdikoia izaten du, nolabaiteko "morrontza" erakutsiz bere aldarlean. Ordezkaritzaren mundua oso bestelakoa da aurretik ezagutzen genuenaren aldean, agian benetako enpresariak beren enpresan egon behar dutelako nahitaez. Hala, enpresari ohiak geratzen dira, inolako egitekorik ez duten pertsonaiak, beren burua nabarmentzeko karguak bilatzen dituztenak etsi-etsian, ahal izanez gero kargurako autoarekin eta txoferrarekin. Benetako enpresariak ez dute "pasodobleetarako" astirik izaten, eta, hortaz, karguak –sarritan nartzisismoak– antzinako buruzagien esku uzten dituzte, hau da, iraganean zerbait izan diren, orain ezer ere ez diren, eta geldirik egoteaz aspertzen diren pertsonen esku. Pertsona horiek enpresa-bizitzatik urrun daude, ez dira konturatu eremu hori azkar aldatzen ari dela eta, telegidatuta egonda, beldurra emateko modukoak dira beren gaitasun ezagatik eta beren harrokeriagatik –elkarrekin zuzenean lotuta dauden bi faktore-. Azterketa azkar honen emaitza langileak defendatzen dituzten instantzia sindikalen ordezkariak ere aplikatu dakioke batzuetan. Ezinbestekoa da kapitalaren zein lanaren ordezkariak enpresaren mundua zuzenean ezagutzea eta mundu horretan bizitzea edo bizi izana. Bi ordezkariak egoera horien argitasuna edo iluntasuna oso urrun daude elkarren artean, egun bateko argitasuna –egun hodeitsua izan arren– eta ilargia izateko esperantzarik gabeko gauaren iluntasuna bezain urrun.

Iparraldean, iragan mendeko 80ko hamarkadaren inguruan, nolabaiteko identitate-kontzientzia zuen enpresari gazte talde bat agertu zen eta "aberria egin zuen", beren kalitateagatik Euskal Herriatik kanpo azkar baloratuko ziren minienpresak eta mikroenpresak sortuz. Horrelako ekimenei esker, giro produktibo bat sortu zen toki mailan, eta lehendik zeuden beste ekimen batzuk, hala nola Seaska, lagungarriak izan ziren garapen horretan. Salbuespenak salbu, garai hartako enpresa garrantzitsu bakarrak kanpoalderetik kapitalizatutako enpresak ziren, sarritan gure Lurraldetik kanpoko pertsonen zuzendutakoak. Ekoizpen-kooperatibak Arrasateko ereduaren arabera garatzeko ahaleginek ez zuten lortu sortutako itxaropena betetzea, nahiz eta enpresa-eredu horren araberrako ekimen batzuek –gutxi- ondo funtzionatu zuten.

Tokiko ekoizle berrien talentuak bultzatuta, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak (CCI) Ingeniariei Eskola eratu zuen –ESTIA–, ikasle gazteak maila teknologiko oneko ingeniariaren ezagutza trebatzeko eta Iparraldeko enpresen jakintza hazkundera lehenesteko xedez. Bere lehenengo urteetatik, Baionako CCIren ekimenak Cranfieldeko Unibertsitatearen CAD-CAM Masterra hartu zuen, eta Bilboko Ingeniaritza Eskolaren prestakuntza deszentralizatua ere bai. Gaur egun, ESTIAk badu ingeniariaren titulu ofizial propio bat, eta enpresa-haztegi bat sortu du Baionako CCIk bultzatu zuen Parke Teknologiko batean. Azpimarratzekoa da frantziar Estatuko Hezkuntza Nazionalak bere baitan sortu ez zen ekimen horri egin zion harrera gazi-gozoa. Zorionez, badirudi orain gauzak bide onera itzuli direla. Lorpen horrek eragin emankorra izan beharko luke lanaren munduan, ordezkariak sindikalak ESTIAko zuzendaritza-instantzietan jarduten badu, batez ere IZARBEL Parke Teknologikoan. Urte horietan, Baionako CCIk lortu zuen XIBERUAko lurraldea bere administrazioan txertatzea, orduan arte Paueko CCIk kudeatzen baitzuen.

Idazki honen amaieran, gure etorkizun soziala iragartzen duten puntu batzuk "azaletik ukitzer" ausartu naiz, jakitun egonda munduko ekonomiaren 2014ko lehenengo bost erraldietako hiru "teknologia" sektorekoak direla.

Hegoaldea eta Iparraldea lotzeko asmoz sortu diren plataforma ugariak emaitza desberdinak izan dituzte, eraginkortasunaren ikuspuntutik, baina emankorrak izan diren bakarrak gai sozial eta ekonomiko konkrituei buruzko loturak izan dira. Aurrekonturik gabeko eta gauzatze-epe konkriturik gabeko lankidetzaren planak itxaropenen linboan sartzen dira, populismoak sortzen dituzte, eta erdipurdikotasunaren gune bihurtzen dira.

Lanaren mundua Euskal Herriko lurralde-etorkizunaz kezkatu eta arduratu behar da; gaur egun, EAEren eta Akitaniaren arteko lankidetzaren proposatzen da, eta espazio hori, kontuan hartu beharrekoa bada ere, Europar Batasuneko oihan-gune nagusiak okupatuta dago. Komenigarria izango litzateke hausnarketa sakon eta dokumentatua egitea Kantauri eta Mediterraneo itsasoaren artean kokatutako Eskualdeak eta Autonomia Erkidegoak integratuko litzuzkeen konfederazio bat garatzeko aukeraz; hori egokiagoa izango litzateke proiektu politiko batentzat, baina iniziatiba zibiletik bultzatua, hau da, gertaerak bultzatua. Horrelako asmo batean, sindikatuak gizarte zibilean dagokien partea jarri behar dute, ekarpen gisa. Ez dezagun alboratu ekimen horrek –PIRINIOAK– izena eman diezaiozun– exijitzen duen jardute-autonomia.

Era horretan, gainerako konfederatuekin solidarioa –bere aukera propioen arabera– den Euskal Herriaren burujabetza aldarrikatuko litzateke.

Errealistak izanik, ikus dezakegu botere politikoak jakitun direla herriak ematen dien boterea sinbolikoagoa dela erreala baino, eta benetako boterea ekonomia eta finantzak zuzentzen dituen munduaren eskuetan dagoela. Botere hori, oraingoz, transferiezina da, eta lortzen du gizarte politikoa bere helburu espekulatiboei men egitea, toki mailako kontsiderazio espezifikorik gabe.

Behin baino gehiagotan, industriak finkatzeko asmoak jakinarazi direnean, politikariek enplegua sortzeko iragarpenak egin dituzte, baina gero laster konturatu dira enpresa-mintzakideen harrokeriaz. Edozein herrialdetan finkatutako enpresa batek finkapen gastuak –diru-laguntza publikoek arinduak– amortizatuta dituenen, haizeak buelta eman dezakeela iragartzen duen edozein zantzu ikusi orduko bere tresneria hartu, agur esan eta ospa egiten du. Tokiko sortzaileak, aldiz, eutsi egiten dio egoerari.

Funts publikoak ekimen pribatuei asignatzeko erabakietan, ezinbestekoa da lanaren mundua benetan eta behar den bezala ordezkaturik egotea, sindikatuen bitartez. Gizarte zibilak ezin du agintea galdu. Diru-laguntzetan, funts publikoak itzultzen direnean, gizarte politikoak egin behar duena da GIZARTE ZIBILAREN ERABAKIAK kudeatu, besterik ez.

Oraindik ere geratzen dira ordekarari politikoak, beren bolizko dorrearen gainaldetik hainbat eta hainbat lanposturen sorrera iragartzen dutenak. Hauteskundeen aurreko aldiak desio onberak azaltzeko azoka hutsak dira. Gizarte zibilaren ordekarari politikoek ekar dezaketena –eta ez da gutxi– enplegua sortzea errazten duten zirkunstantzien aldeko sostengua da. Aberastasuna kapitalistek eta langileek sortzen dute, ez politikariek. Zoritxarrez, mundu politikoak mundu ekonomiko eta finantzarioari begira duen rola aldatu egin da gizartean, gizarte zibilaren oniritziarekin, zeren honek bertan behera utzi baitu bere botere erreala; espero dugu gai izatea botere hori laster berreskuratzeko.

Langileen kolektiboa zein kapitalaren kolektiboa defendatzen dituzten erakundeen arteko harremanari dagokionez, komenigarria izango litzateke azterketa taktiko bat egitea lan-mundu instituzionalizatuaren eraginkortasun sozialaz, haren konfrontazioaren topikoak murriztuz baina errebindikazioaren sendotasun eta intentsitateari eutsiz.

Langabeziatik hasita, sindikatuen joera da afiliatuta dauden eta enplegua duten langileak defendatzea. Bada, langabeziak moralki eta ekonomikoki zauritu dituen langileak ere defendatu beharreko kolektiboaren partaide dira, eta okupatuta dagoen langileak duen kontsiderazio berdina merezi dute, gutxienez.

Bidera daitekeen ekintza sindikalari dagokionez, zer esan nahi ote du kanpoko ente kapitalistarentzat lantegi bateko langileen grebak, baldin eta lantegi hori munduan ehun lantoki baino gehiago dituen multinazional baten jabetza bada? Multinazionalaren buruentzat, lantegi bakar bateko langileen greba ez da ez albistea eta ezta ezbehar ekonomiko edo soziala ere.

Kapitalaren munduak nazioartekotzen jakin duen bezala, lanaren mundua mundializatu egin behar da. Praxian, helburu horren isla izango litzateke lehen aipatutako errebindikazioa –lantegi bateko langileena– lantegi horren jabe den finantza-taldearen langile guztiengana hedatzea. Hori horrela izanez gero, buruzagiek berehala negoziatuko lukete. Garbi dago, nonbait, zaila dela internazionalizazio sindikalaren helburu hori betetzea, zeren lanaren munduak ordezkapen forma ugariak baititu, hots herrialde batetik bestera aldatzen diren ordezkapen formak. Dena dela, zaila dena ez da ezinezkoa izan behar. Garbi dago, dena dela, azterketa honek ez duela baztertzeko tokiko bizitzaren eguneroko lan-arazoei erantzuteko beharra.

Nahiz eta geroago jorratuko dudana berrituz ordezkartzaren gaitasuna, bai kapitalaren munduan eta bai lanaren munduan, gaiaren puntu nagusi batzuk aipatu nahi nituzke modu orokorrean.

Bi mundu horietako zenbait elkartetan aurkitzen ditugu gehienbat beren afiliazioen arabera jarduten duten mintzakideak, hau da, eztabaidatu eta negoziatu beharreko gaiari buruzko benetako ezagutzaren ordezkari beren afiliazioa hartzen dutenak gidarizat. Ekonomiaren konplexutasunak elkartasun zentzu sendoa exijitzen du, eta baita horren garapen eraginkorrerako beharrezkoa den gaitasuna ere. Horixe da gizakien diruzaletasunak eraikitako ekintza mehatxagarriei aurre egiteko tresnak abiatzeko modu bakarra.

Egoera berri baten aurrean, hala nola Europar Batasuna eta AEB prestatzen ari diren Merkataritza eta Inbertsiorako Itunaren kasuan –TTIP-, zer prestakuntza –eskasa- dago gai horren inguruan, Itunak langileei ekarriko dizkien ondorio negatiboak neutralizatzeko? Legeen harmonizazioari buruzko akordio bat da, ekoizpena eta lana bereziki ukitzen dituen. Aurreikusten da ABEetatik EBra datozen esportazioak % 116 haziko direla, eta alderantzizko noranzkoan % 56 baino ez. Kalitateari buruzko arauak zorrotzagoak dira EBn AEBetan baino, baina itun horren eraginez AEBetako enpleatuei jarriko dira, eta, beraz, EBko produktuek beren produktibitatea hobetu beharko dute, eta horrek lanpostuak galtzera eramango du, kalitatearen gaineko presioa jaitsi arren. Garbi dago, nonbait, talde mundializatuak izango direla Itunaren onuradunak. Aurreikusitako akordioa munduko BPGaren % 60 eta nazioarteko merkataritzaren % 45 biltzen dituzten bi potentziak sinatuko lukete. Espero zen bezala, itun horren barnean sartzen da inbertsio Banku bat sortzea Errusia, Txina eta emergente deritzen beste herrialde batzuen artean, herrialde horiek aldi baterako zailtasunak izango dituzten arren. Bada, Itun horrek eragina izango du gudan. Zer zentzutan?

Ituna prestatzeko lanak inguratzen duen sekretismoa negoziazioaren dokumentuei aplikatzen zaie, eta hori akordioak ekar dezakeen tsunami erraldoiaren intentsitatearen adierazlea da. Espero diren zuzeneko ondorioez gain, Itunak eragina izango du ur eta osasun sektoreetan, besteak beste. Nekazaritzaren alorrean, ezbehar ekonomikoak espero dira nazioarteko kudeaketa politikoko ahalmen txikia duten herrialdeetan, eta gurea horietako bat da.

“B to C” edo “C to C” banaketa ereduen tresnek, edo, besterik gabe, ekoizlearengandik kontsumitzailearengana zuzenean banatzeko tresnek edo kontsumitzaileen arteko truke-tresnek ekoizpenaren kostu handiak konpentsatu ahal izango dituzte, batez ere nekazaritzaren eremukoak, zeren ekoizpen manufakturatuen gastuak baino handiagoak baitira. Izan ere, nekazaritzako euro bat ekoizteko, gastuak bost aldiz handiagoak izaten dira euro manufakturatutako bat ekoizteko behar dena baino. Gastuen arteko desberdintasun handi horiek jasan ditzaketen bakarrak nekazaritza-eremu handiak dira. Euskal Herrian, Nafarroako eta Arabako eremu batzuetan izan ezik, gutxi dira nekazaritza-sail handiak. Horrez gain, kontuan hartu behar da nekazaritzako produktuen kontsumoa bertoko nekazaritza-ekoizpenaren % 5 baino ez dela gure lurraldean. Bitartekotzarik gabeko gastuen salmenta (“B to C”) lagungarria izango da diru-laguntzarik gabeko edo diru-laguntza gutxiko nekazaritza-munduentzat; hala, mundu hori prestatu beharko da kontsumitzaileei zuzenean banatzeko, eta horren arabera antolatu beharko da. Nekazari txikiak defentsa gutxi lortzen du nekazaritzako erakunde instituzionalizatuengatik. Beraz, langileen sindikatuak ez dira urrundu behar nekazari txikien egoera sozialetik.

Gertaera sozial eta ekonomikoen aldaketa azkarrek ezagutza-beharrek sortzen dituzte, elkartasunaren aurrean sentikorrak diren eta prestakuntza egokia lortu ahal izan duten pertsonen beren gaitasunen arabera azaldu ahal izan daitezkeen. Badirudi, nonbait, beharrezkoa dela unibertsitatearen mobilizazio sindikala berpiztea; zoritxarrez, Hegoaldeko Goi Mailako Hezkuntza Publikoko azken hauteskunde sindikaletan ez dute erakutsi elkartasun eredugarriak jarduten dutenik. Izan ere, orain dela gutxi izandako hauteskunde sindikaletan, unibertsitateko irakasleen % 30k baino ez zuen bozkatu.

Inoiz ez da berandu, baldin eta gai bagara gizarte zibilak egokitzen jotzen duena errebindikatzeko eta elkartasun kontzeptua ondoen errespetatzen duten ordezkari politikoak hautatzeko. Ez zaigu utopikoa iruditu behar giza eskubideak ardura-etikagatik errespetatu daitezkeela, konbentzimenduen etikagatik exijitzeko helburuarekin (Weber). Ekonomia baldintzatu eta diruzaletasun finantzariara eramaten duten parametroek badute beren indar propioa, eta geuk indar hori aztertzen jakin behar dugu, garapen solidarioaren alde jarduteko. Hemen jorratzen ari garen gaia ezin da paper orri bakar batzuetan azaldu, oso zabala baita. Azaldutakoa laburtzeko asmorik izan gabe, puntu solte batzuk azpimarratu nahi nituzke, inolako ordenarik gabe.

Etorkizun hurbilak antzekotasun gutxi izango du, gertaeren aldetik, oraingo egoerarekin. Adimen artifiziala botere bakarra izango da 2050 urtearen inguruan. I+G+b-rako beharrezkoa den inbertsioak konturatzen ez den kolektiboa, desberdintasun sozialik gabeko hezkuntzak ezagutza berriak eskuratzeko bidea eman behar duela konturatzen ez den kolektiboa, bere porrotaren erantzulea izango da.

Langileen sindikatuak alderdi hori hartu behar dute kontuan, langilea edozein aurkariren aurrean defendatzen dutenean, berdinen arteko tratua jaso dezan. Lanaren eta kapitalaren artean ezinbestean gertatzen den konfrontazioaren alderdi immateriala oinarri kulturalaren ikuspuntutik kontsideratu behar da nahitaez. Alor horretan, infantilismoa hilgarria izango litzateke, zeren jakitun egon behar baitugu demokrazia krisian egongo dela beti, gizakion obra izateagatik. Konfigurazio horren aitortza lagungarria izango zaigu bizitzaren bilakaera errealismoz eta baikortasunez ikusteko. Pertzepzioen azterketan errazteak abantailak eman diezazkioke momentuko aurkariari. Montaignek gomendatzen zuen larruazalaren eta

alkandoraren artean dagoen desberdintasunaz konturatzea.

Langabeziaren fenomenoak aurreikuspena merezi du. Ekoizpenaren mozkina inbertsio espekulatibora desbideratzen da, inbertsio hori errentagarriagoa delako eta eskulan gutxiago exijitzen duelako. Ekoizpen-unitateen automatizazioa eskulana murrizteko norabidean doa. 60eko hamarkadan, konbentzitu nahi gintuzten ekoizpenaren robotizazioa lan-baldintza samurragoak ekarriko zizkiela langileei. Erantzun hori ematen zitzaion langileen galderari, zeren hauek pentsatzen baitzuten lanpostuak murriztu egingo zirela, ekoizpenaren automatizazioaren ondorioz. Orokorrean, aurreikusitako efektu onuragarria berretsi egin da, baina lanpostua gorde ahal izan dutenentzat soilik. Ekoizpenaren mozkinak espekulaziora transferitzeko joera aspalditik hasi zen. Hala, ekoizpen-enpresek -batez ere ETEek- finantziario faltaren ondorioak pairatzen dituzten bitartean, espekulazioaren Burtsek hazkunde-indize mardulak izaten dituzte. Orain dela gutxi jakinarazi digute Gipuzkoako hiru EEEtatik (enplegua erregulatze espedienteak) bi likidezirik ezak eragindakoak direla. Banku etikoen sorrera apala bultzatu beharreko zerbitzuak da, baldin eta ekimen horiek ez badira bilakatzen Banku tradizionalen GKE hutsak. Kapitalaren munduak lortzen du mundu politikoaren gaineko presio nahikoa egitea, bere aukera estrategikoetan. Bada, gisa berean, lanaren munduak presio nahikoa egin behar du gizarte politikoaren garapen taktikoetan. Mozkinak sistema espekulatibora desbideratzeak oraingoa baino askoz ere langabezia handiagoa sortuko du, zeren sistema espekulatiboak ekoizpen-sistemak baino eskulan gutxiago behar baitu. Sindikatuek aztertuko beharko lukete sortutako egoera hori, eta prestatuta egon beharko lukete haren garapena modulatzeko. Elkartasuna da erremedioak ekar ditzakeen tresna bakarra, enplegua zeregin kolektiboetan kontsideratuz, lanpostuak devaluatu gabe. Langabezia erreal hobeto aztertzeke, lanpostuen arabera neurtzeki utzi behar diogu, horren ordez lan egindako orduen arabera neurtzeko. Izan ere, baliteke lanpostu kopurua ez aldatzea baina langile bakoitzak egindako lanorduen kopurua jaitea eta, hortaz, beren eroste-ahalmena ere jaitea. Elkartasuna proiektu berri bat da, sindikatuek garatu beharko luketena proiektu erabakigarriak gabeko mundu politiko honetan, hots, hauteskunderik hauteskunde gero eta abstentzio handiagoa duen mundu politiko honetan. Elkartasuna Kontratu Sozial Berri baten oinarria izango da; berak ordezkatzeko du J.J. Rousseauaren antzinako kontratu soziala, bere garaian paregabea eta gaur agortua.

Ez zaigu lekuri geratzen langileen sindikatuen inplikazioa eskatzen duen gai bat jorratzeko: immigrazioa. Horrek azterketa hausnartzaile propio bat eskatzen du, Elkartasunean oinarritua.

Hemen garatu ditugun alderdiek multzo sozial eta ekonomiko osoa ukitzen dute, eta, beraz, nekazaritza ere barne sartzen da. Ez zait egokia iruditzen Euskal Herriko Lurraldearen zati batez soilik hausnartzea. Frantziar eta espainiar Estatuaren Administrazio politiko-administratiboak begi onez ikusten du anaia-arrebak diren gizabanakoen arteko harremanen txepeltasuna; badirudi, nonbait, bi aldeak bereizten dituen ibaia zeharkatzea Nilo zeharkatzea baino zailagoa dela, eta alde horiek bereizten dituzten mendiak politikoki iritsiezinak direla. Anaitasunerako intentzio politikoak soilik lortuko du Herriak bereganatzea sustraiak sor ditzakeen ekintza geldiezinak.

Lanaren munduaren defentsak eskatzen du, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, sindikatuak gehiago barnera daitezela mundu politikoan, gizartearen funtsezko osagai gisa. Langileen sindikalizazio eskasa aurpegiratzen digutenean, nolabait teko justifikazioarekin, erantzun beharko dugu oso herritar gutxi daudela afiliatuta alderdi politikoetan, eta alderdi politiko horiek beren zilegitasuna murrizten duten abstentzio-indizeekin iristen direla boterera.

Euskal Herri osoa barne hartuko lukeen Kontseilu Ekonomiko eta Sozial bat (KES) eratzea gure identitatearen generalizazio praktikoaren zutabe bat izango litzateke. Eratu egin dezagun, beraz, eta lan horretan asmatuz gero haren ofizializazioa lortuko dugu azkenean. Sindikatuen inplikazioa behar duen zeregin berri bat da.

Langile guztien sindikatuak -langileak zein langabeak- gizarte zibilaren giltzarria dira, bizitzeko bekokiaren izerdiaz irabaztera behartzen gaituen madarikazio judu-kristau honek dirauen bitartean.

VII. ERANSKINA (2).

HERRI-GINTZA: DEMOKRATIZAZIO ETA BOTERETZE PROZESUAK

Olatz Dañobeitia Ceballos eta Zesar Martinez Garcia

Joxemi Zumalabeko kideak

Nondik eraiki ? Komunitatea, Administrazio publikoa eta Merkaturia

Antolatuta dagoen herriak bere bilakaeran eragiteko gaitasuna du, bere etorkizuna gidatzeko ahalmena. Herritarren auto-antolakuntza funtsezkoa dugu gure historiaren subjektua izateko. Gaur egun, aldiz, merkatu kapitalistak eta administrazio publikoek euren logika merkantilistak eta normatibistak ezartzen dituzte eta, ondorioz, gure bizimoduak gero eta merkantilizatuago eta burokratizatuago daude. Herritarren auto-antolakuntzak, auzolanak eta herrigintzak, bere logika propioetan auto-zentratuz (ez logika merkantilistak, ez estatalistak), beste modu batez produzitu dezake jendartearen antolakuntza; elkartasuna eta bizitzaren birsortze prozesuak zaindiko dituen modu batez. Horrela izan da historikoki, eta horrela izan daiteke aurrerantzean ere.

Azken hamarkadetan, aldiz, gure beharrianak bideratzeko eta bizikidetzara erregulatzeko beste bi eremu horiek (merkatua eta administrazio publikoa) hartu dute pisu gehien: udal, foru eta administrazio autonomikoek izan duten garapenak eta, ideologia neoliberalaren eskutik, pribatizazioak eta merkantilizazioak hartu duten hedapenak, nolabaiteko merkatu-zentrismo eta administrazio-zentrismoa eragin digute. Pentsa dezagun banan-banan joera horietako bakoitza.

Merkatu-zentrismoa

Merkatu kapitalistaren eliteek ezarri duten hegemoniaren ondorioz, merkatuaren logikak eta ekonomiaren ikuspegi sinplifikatzailea barnerratu ditugu; hau da, ekonomia soilik merkatu diru-fluxuak direla: enplegua, soldata, erosteko ahalmena, aurrezkiak, sal-erosketak, pentsioak, e.a. Eta, diru kontu horietan, norberarena defendatu behar dela logika utilitarista eta instrumentalaren arabera: norberaren irabaziak maximizatzea eta kostuak minimizatzea (ahalik eta diru-sarrerarik altuena eduki, gure aurrezkiei ahalik eta interes-tasarik handiena atera, etxea saldu edo alokatu behar badugu merkatu-tasazioak ezartzen duen prezioaren arabera egin,...), bestela inozoak gara, tontoak, gurekin logika horren arabera jokatuko baitute eta, ondorioz, galtzen aterako gara. Pentsamolde honen ondorioz, gure aldarrikapen politikoen erdigunean dagoena ere lan-postuak, enplegua, soldata igoerak eta diru-fluxuekin loturik dauden elementuak dira, azken finean, bestelako irizpideak bigarren mailan utzita, produkzioa eta kontsumoa: Desarrollismoa.

Eta zer gertatzen da ikuspegia aldatzen badugu eta, ekonomia feminista zein ekologismoa proposatzen ari diren bezala, erdigunean Merkaturia ipini beharrean Bizitza ipintzen badugu? Lehenengo eta behin ekonomiaren inguruko ikusmoldea zabalduko dugula eta, ondorioz, ekonomian diru-fluxuen logikapean ez dauden lan asko ikusiko ditugu, bizitzarako beharrezkoak diren lan asko baina ordaintzen ez direnak: feminizatuta dauden zaintza-lan materialak eta afektiboak, auzolana eta herri ekimena, militantzia-lan politikoa eta, oro har beste, logika baten arabera funtzionatzen duten lanak: Logika komunitarioak: elkarren behararen kontzientzia, laguntza, elkartasuna, zaintza, partiketa, trukea eta herrigintza.

Indarrean dauden zapalkuntzak (klase-zapalkuntza, patriarkala, nazionala, linguistikoa, arraza/jatorriarena,...) gainditu nahi dugunok ezin dugu bizitza ulertu merkatuaren logikatik. Amaiak P. Orozko dion bezala "gauza bat da merkatuak bizitzari eragitea eta beste bat bizitza merkatuaren bidez ulertzea eta antolatzea", bestela diru-metaketen zerbitzura dagoen ekonomia eta lan-harremanak pentsatuko ditugu eta ez pertsonen eta komunitateen zerbitzura daudenak. Ekologismo eta feminismo kritikoek ikusgarri ipintzen baitigute kapitalaren metaketak ezkutuan mantendu nahi eta behar duena:

- Eguneroko bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren zaintza-lanak eta hauen feminizazioa.
- Lan-banaketa sexual horren krisiak ekarri duen zaintza-kate globalaren fenomenoak ¹.
- Bizitzaren interdependentzia eta eko-dependentzia.
- Planetaren ondare komun eta mugatuen suntsipena.
- Bizitzaren erreproduzioak dituen zikloak/mekanismoak eta hauek errespetatu beharra.

1. Prekarioen merkatua osatzen dute. [...] Emakume horiek, aldi berean, eginkizun horietan uzten dituzte beren sorterrietan beste emakume batzuen esku -amonek, ahizpek, izenok, etab. hartuko dituzte lan horiek beren gain, halamoduz hartu ere (Herrero eta Pascuala, 2010)

Are gehiago, kapitalaren-fluxuak eta metaketak geldialdi bat izan dutenean, gainditzekotan omen gauden krisi-iruzur honetan, denon diru publikoak erabili dituzte kapitalaren-fluxu horiek ber-aktibatzeke. Baina Bizitzaren ikuspegitik begiratzen badugu, merkatu kapitalistak errentagarri izateari uztea ez da arazo. Izan ere, norberak enplegua eta kontsumoaren bitartez lortu beharreko ustezko auto-sufizientzia indibiduala kuestionatzeko aukera ematen digu. Hegemonia neoliberalak ezarri nahi dituen balioak, jo-mugak eta bizi-moduak kuestionatzeko aukera. Eta, ondorioz, inter-dependentsian oinarritutako eta menpekotasunik gabeko bizi-modu gizatiarragoak, orekatuagoak eta ekologikoagoak pentsatzeko eta eraikitzeke aukera. Esate baterako, ekonomia sozial eta solidarioaren bidez lan egiteko, kooperatzeko, ekoizteko, finantzatzeko eta kontsumitzeko bestelako praktikak esperimentatzen ari dira, bide eraldatzaile/emantzipatzaile emankorra, hortaz.

Erronka dugu, beraz, merkatuaren bitartez lortu beharreko autosufizientzia indibidualaren ideologia eta, neurri batean edo bestean, barneratua dugun indibidualtasun eta ideologia diruzalea, lantzea. Izan ere, komunitatea eta herrigintza prozesuak aktibatzeke, elkartzen gaituzten eta elkarrekin eraikitzen ditugun espazioak (etxea, auzoa, lantegia, kalea, herri eraileak...) gero eta topaleku ahulagoak dira denboraren fragmentazioa* eta espazioan dugun mugikortasun sakabanatzailearen eraginez. Galtzen ari gara espazio komunak eta, ondorioz, gure arteko loturak zein konpromisoak oso ahulak eta aldakorak bihurtzen ari dira. Kezka da ia ustezko indibidualtasun autosufizienteak noraino ahulduko dituen ekintza kolektiborako funtsezkoak diren elkarren beharraren kontzientzia eta gainerako sen komunitarioak: elkarlana, laguntza, zaintza, elkartasuna, trukea,...

Subjektibitate edo identitate pertsonalaren eraikuntza hori, ustezko indibiduo autosufizientearena, ideologia eta kosmologia modernoaren ondorioa da: indibiduo arrazionala, praktikako eta utilitarista Merkatuarentzat; ustez eskubide eta bete-beharren jabe den hiritarra Estatuarentzat. Modernitatean nagusi bihurtu diren bi eremu horietan indibiduoak daude, eta ez komunitatea. Baina, ustezko autosufizientzia indibidualista hori, nagusiki mendebaldeko gizonezko klase ertain eta altuko zurientzat eraiki da subordinazio koloniala, patriarkala eta kapitalistaren gainean.

Izan ere, besteen beharra ez duela sinetsi duen subjektibitate indibidualista, soilik beste subjektu batzuen menpekotasunaren gainean eraiki daiteke; eta hala da, beste herrien ustiaketaren gainean, lan-indarraren esplotazioaren gainean eta emakumeen doako lanaren gainean hain zuzen ere. Horrela, autonomia pertsonalari dagokionez, populazioaren erdiak (gizonezkoek) bere ustezko autosufizientzia mantentzen dute/dugu beste erdiaren autonomia ukatuz edo mugatuz: emakumeen denbora-autonomia, lanaren errekonozimendu soziala, diru-sarrerak eta eskubide sozialak mugatuz edo ukatuz. Horrexegatik, emakumeen subjektibitatea inguruko zaintza eta beharrianen arabera berregitea, bere autonomia mugaratu eta subordinazioa elikatzen duen joera hegemonikoa da.

Funtsezkoa da, zentzu horretan, denon inter-dependentsia denon autonomiarekin uztartzea. Komunitate kooperatiboak eta autogestionatuak berregin behar ditugu baina beste inoren subordinazioaren gainean eraikitzen ez direnak, inoren autonomia kontrolatzen edo bertan behera lagatzen ez duten komunitate autogestionatuak.

Auzolanak, herri ekimenak eta antolaketa-modu komunitarioak, gure tradizioan dauden bizikidetzak modu preliberal eta prekapitalistak diren neurrian, modu kritikoan aztertu behar ditugun argibide ugari eman ahal digute, beti ere berregiten zituzten subordinazioak elikatu barik.

Arlo politikoa zabaltzeko eta egunerokotasunean sartu beharra dago, autonomia eta desmerkantilizazioa eraikitzeke. Izan ere arlo politikoak lotura du, besteak beste, jaten dugunarekin, kontsumitzen dugunarekin, erabiltzen ditugun komunikabideekin, ikasten dugunarekin, harremanetan jartzeko dugun moduarekin eta etxean, auzoan edota erakundeetan ingurukoak zaintzeko dugun moduarekin.

Ekonomia, bizitza aurrera eramateko beharrezkoak diren lan (eta ez enplegu) guztien antolakuntza bezala ulertzeke ekin, eta gertuko eremuetatik (auzoa, herria, eskualdea) bizitza horren berrantolaketa kolektiboari ekitea proposatzen dugu. Herritarrok geure beharrak eta desioak asetzeko dugun ardura eta gaitasunari eutsiz. Produktibismo, kontsumismo eta desarrollismoaren logiketatik hurrunduz eta bizitza duinduz. Egutero eta gaurtik hasita, jendarte antolakuntza aske eta berri horren hazi esperimentalak landatzeak proiektua hezurramitzen dute, ondorioz egitasmo ezberdinak ezagutaraztea, saretzea, eta bitarteko berriak erditzean egun jartzen dugun indarra aski ote zaigun gogoetatzeko parada hartzea proposatzen dugu. Esate baterako: Zer egiten ari gara, langabezia dauden gizonezko guztiek, beste lan eta zereginetan ardura har dezaten lortzeko? Urteetan Euskal Herriartzat hemen bizi eta lan egiten duena dela esan izan da: Zein lanetaz ari gara bada?

Administrazio-zentrismoa eta sistema politiko instituzionalizatua

Nabarmena da indarrean dagoen antolakuntza politikoa ez dela aski aurrean ditugun erronka kolektiboei aurre egiteko. Azken urteotako krisialdian bizi dugunari erreparatzea besterik ez dago. Diru-fluxuak finantzatzeko krisi-iruzurra izan zena hasiera batean, krisialdi ekonomikoa bihurtu zen ondoren, enplegukoa jarraian, oinarrizko zerbitzu publikoena azkenik; eta horiei lehenagotik ezagunak ziren krisi energetikoa (petrolioaren agorpen hurbila), klimatikoa (planetaren beroketa, ozono geruzaren zulaketa, deforestazioa,...) eta emakumearen lanaren bitartez ikus-ezintasunean dugun pertsonen zaintzaren krisia gehitu behar diegu. Krisi guzti hauen larritasuna kontuan izanda jendarte-sistema honen eredu-agorpenaren intuitzioa sentitzen dugu.

Ardura maila ezberdinak badaude ere ("norberarena" barne), argi da eliteen iruzur eta gehiegikeriek etengabe sakontzen dituztela krisi horien ondorio sozialak. Eta nabarmena da baita Euskal Herrian eta mundu zabal honetan bizi diren pertsona gehienek biolentzia eta sufrimendu handia pairatzen ari direla eguneroko bizitzan. Batez ere gurea moduko azal zuria ez duten pertsonak (eta bereziki emakumezkoak), mundu-sistema hau gizonezko zurien zapalkuntza kolonialaren gainean eraikita baitago. Kolonialismoa, patriarkatua eta kapitalismoa jendarte-eredu honen matrize kulturean sendo errotuta dauden pentsamoldeak dira eta, hirurak loturik, jendarte-eredu honen krisi sistemikoaren iturburuan daude.

Krisialdi anitzeko testuinguru honetan, sistema politiko instituzionalizatuak kinka larrian du bere sinesgarritasuna eta zilegitasuna, ezin bestela izan. Izan ere, demokrazia gabezia oso agerikoa suertatzen ari da; hau da, botere ekonomikoaren eliteak fagozitu egin dituztela erabaki-gune politiko nagusiak. Edo, beste modu batez esanda, demokrazia formal-elektoralaren gainetik, alderdi politikoen eliteak beste elite ekonomiko horien interesen arabera gobernatzen ari direla.

Kapitalismoa eta demokrazia ezkon-ezinak direla erakutsiz, merkatuaren ideologiak oso agerikoa den beste perbertsio bat ezarri du; ustelkeria eta elite ekonomikoen parte-hartze abantailatsua eta mafioso instituzionalizatu du lobbyak eta are ilun eta ustelagoak diren beste modu batzuk erabiliz: korrupzioa, saldukeria, prebarikazioa, nepotismoa... Bai usteldu publikoen partetik, bai ustelkeria sorrarazten duten usteldu pribatuena aldetik ere ².

Eta, horren ondorioz, erregulazio eta antolakuntza sozial eta politikoaren debatea zabaltzen da: konstituziogileak izan daitezkeen herri prozesu eratzaileak abiatzea eragile ezberdinen jomugan daudela dirudi. Izan ere, azken urteotan bizi izan ditugun greba orokorrak, protestak, lantegietako borrokak, abortoa debekatzearen aurkako dinamikak, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren inguruko lan-dinamika, erabakitze eskubidearen aldeko giza kate erraldoiak... erakusten dute herritarrok erregulazio eta aldaketa politiko eta ekonomikoan eragiteko galdu dugun ahalmena (botere politikoa) berreskuratzeko nahia mamitzen ari dela, bizitzaren arlo ezberdinetan erabakitze eskubidea gauzatzeko borondatea hain zuzen ere. Jendartearen elite ekonomikoak eta politikoak kontzentratzen ari diren boterearen aurrean, herri sektoreek herri boterea (demo-krazia) eraikitze nahia.

Ahots ugari adierazten ari diren moduan, begi-bistakoa da boterea (jendartearen erregulazioan eragiteko ahalmena) eta instituzioen politika urrundu egin direla. Izan ere, boterea ez da okupatzen den instituzio edo eraikin zehatz bat, eta ez da gobernu edo administrazio publikoaren eremura murrizten -XX. mendeko praktika iraultzaile ekonomizisten eta abangoardiakoetan nagusitu zen boterearen ikusmolde kosifikatu, estatalista eta murriztailea da hori-.

Aitzitik, boterea sortu eta berregiten dugu jendarte harremanetan nagusitzen diren (hegemonia lortzen duten) orientabide etiko-politiko jakin batzuen arabera, eta horiekin bat datozen praktika materialen arabera. Horregatik, kontu bat da gobernuan egotea eta arlo instituzionalaren kudeaketaz arduratzea, eta beste kontu bat da hegemonia edo nagusitasun etiko-politikoa aldatu ahal izatea; horrek arlo kulturala, ideologikoa, subjektibotasuna eta beste esparru batzuk barne hartzen baititu. Eta nagusitasun hori ez da 'hartzen', ez 'konkistatzen' edo 'dekretatzen'; hori eraiki egin behar dugu gure eguneroko praktikekin (Rauber, 2011). Hau da, eraiki nahi dugun jendarte berria ez dugu soilik goitik behera ezarritako lege edo dekretuen bitartez eraikiko; jendarte hori pentsatzeko eta eraikitzeo, herri parte-hartzea izango dugu ezinbesteko oinarria.

Ezker iraultzailean aurreko mendean nagusitu zen boterearen eta gizartea eraldatzeko teoriaren arabera, gobernu eta

2. Kutxabank-eko lehendakari ohia eta Espainiako ordezkariaren artekoa horren erakusgarri bat gehiago.

estatuaren boterea ezinbestez "hartu" beharra zegoen, ekonomian egiturazko aldaketak egin -ekoizpenerako baliabideen jabetzea estatua eta ekonomia plangintza estrategikoen arabera antolatzea-, kapital eta lanaren artean dagoen funtsezko kontraesana gainditzeko eta klaseen banaketa ezabatu ahal izateko. Era horretan, gizarte osoa eraldatzeko zereginari ekingo litzaioke, lehentasun berezia emanik hezkuntzari, osasunari eta beharrian gehien duten gizarte-sektoreetarako laguntzari (berdintasunean oinarritutako baina, aldi berean, homogeneizatzaileak eta zentralistak diren politika publiko sendoen bitartez).

Baina, eragile feministak eta askapen nazionalerako mugimenduak aspalditik ari ziren aldarrikatzen zapalkuntza ez dela soilik kapitalaren eta lanaren arteko harreman-kontu bat, edo legeen, instituzioen eta politika publikoen auzi bat. Izan ere, bereizkeriak eta subordinazioak egunerokoak izaten dira giza harremanen arlo desberdinetan, ezker iraultzaileko erakunde politikoetan ere bai. Hala, beraz, politika eraldatzailea ezin da murriztu botere instituzionala (gobernua) eskuratzeko estrategietara.

Illo horretan, gizartea aldatzea, gizarte-eredua norabide emantzipatzailean eraldatzeko lana, ez da soilik behin gobernuaren botere instituzionalizatua "hartu" ondoren eraiki beharreko zerbitu. Emantzipazioa egunerokotasunean zapalkuntzaren biktimak gutxiagotzen eta menpean hartzen dituzten praktika pertsonalak eta kolektiboak eraldatzeko prozesua da. Hala, beraz, eraldaketa askatzailea oraingo praktiketatik abiatzen da, ez soilik etorkizunean goitik-beherako eraldaketa estruktural osoa lortuko den garaipen-egunetik aurrera. Egunerokoa eta hurbilekoa, beraz, ez da aurkarietako botere-borrokan erakutsi beharreko eraginkortasunaren menpe geratzen. Egunerokoa eta hurbilekoa (etxean, auzoan, lantokian, herri erakundeetan,...), lehentasunezko eremua bihurtzen da menpekotasunik gabeko bizitza eta mundu hobeak lortzeko eraikuntza-borrokan. Eguneroko arazo zehatzak borrokatzeko sortzen dugun esperientzia antolatuan garatzen baita kontzientzia, atxikimendu kolektiboa eta aldaketa osoago baterako nahia. Prozesu horrek berak eragiten baitu subjektibitate eraldaketa eta subjektu bilakatzeko bidea bera.

Menpekotasuneko praktikak identifikatzea eta zapaltzaileak ez diren praktika emantzipatzaileak eraikitzeak ez du garaipen-egun bakarra edukiko, inoiz amaituko ez den eginkizuna bihurtzen da; eta eraikuntza horrek ez du berez dagokion "eraldaketarako subjektu" bakarra, tartean era askotako menpekotasunak daudelako, eta horiek guztiak elkarri josiak agertzen zaizkigu gaur egungo jendarte konplexuetan. Izan ere egungo, identitate, pertenezia eta errealtate fragmentuetan, nekeza dirudi aktore sozio-politiko bakarrek osotasuna ordezkatzeko. Aktore bakoitzak bere kabuz subjektu izatera iritsi ezin badu ere, hauen artikulazioak subjektu plurala eta anizkoitza eratu dezakete.

Ezker iraultzaile klasikoak aldaketa sozialaren gainean eraikitako ikuspegi mugatua kritikoki berrikustez gain, boterearen teoria-ideologia hori ere sakonki jartzen da zalantzan; estatua gizartearen botere-harremanen multzo zabalaren parte bat gehiago bezala ber-kokatzen da. Michel Foucault-ek historikoki menpekotasuna naturalizatzeko eta justifikatzeko hegemonia bereganatu duten imajinarioen eta praktiken gainean egin zituen lanak aintzat hartuta, estatua gizartea maneiatzeko dagoen antolakuntza izanda, botereko praktika-eremu zabalago baten barruan kokatu beharra dago.

Herri mugimenduek azken hamarkadetan egin dituzten praktika politikoek, beraz, modu osoagoan berrikusi eta birpentsatu dituzte gizartean dauden botere eta menpekotasuneko harremanak. Ikuspegi hauek ez dute soilik instituzionalizatutako botere politikoan eragin nahi, horrez gain, jendarte osoan indarrean dauden botere-harremanak eraldatu nahi dituzte; hau da, nagusitasuna bereganatu duten bizitzeko eta harremantzeko modu asimetrikoak sakonki astinduko dituzten praktika politikoak aktibatzea, eguneroko botere-harremanak eraldatu ahal izateko.

Menpekotasunetatik askatzeko prozesua aldi berean da egunerokoa eta egiturazkoa, pertsonala eta kolektiboa; eta harreman sare, gizarte antolaketa eta bizitza erreproduzitzeko sare askorekin du zerikusia, ez soilik ekoizpenaren arloarekin edo politika publiko eta administrazioarekin.

Boterearen beste ulkerak batetik abiatuz, herritarrok geure hurbil eta urrunean, egin, jardun eta erabakitzeke ahalmenaren berreraikuntza prozesu kolektiboak abiatzea proposatzen ari gara. Gudan eragina duten eremu ezberdinen gaineko eztabaida, parte hartzea eta erabaki zein kudeaketa ahalmena sendotuz, Ilustrazioaren Hiritar Politiko kontzeptu baztertzailea gaindituz hain zuzen ere.

Eskubide eta betebeharren jabe omen den Hiritar kontzeptuak eta Estatua horren bermedun kokatzen duen pentsaerak, izan badu eraginik Herri Mugimendu zein sindikatuak gure jarduna pentsatu eta antolatzeko dugun eredu. Izan

ere Eskubide bermedun gorengotzat estatua/administrazioa sentitzen ditugu oraindik orain, eta ondorioz gure ekina hara zuzenduriko aldarrikapenez josita datorkigu, baina makalago da aldiz alternatiben eraikuntza. Gure ekimenen norabidea, eskaeren hartzailea zein administrazioaren erresolbitzeko ahalmena birpentsatzea proposatzen dugu. Herri Mugimenduek joan diren bi hamarkadetan administrazioari loturik egindako bidearen inguruko balorazio zintzo eta zorrotza eginez, are gehiago ondasun makaleko eremu izaten hasi den honetan. Badirudi hausnarketa horren zantzuak badirela Feminismoetan, baserritarrengan, euskalgintzan e.a.

Komunitatearen auto-eraketa eta administrazio publikoen babesa

Azken batean, eraldaketa emantzipatzaileak aktibatzeak haxe ari gara proposatzen: herri ekimenez sareak eta espazioak eratuz joatea. Eta, horrela, merkaturia eta estatu liberala jendarte-antolakuntzaren arautzaile nagusiak ez daitezela izan. Hortaz, oso garrantzitsua da instituzionala ez den ekintza politikoa, jendarte-ari beste aukera batzuk proposatzeko eta, herri ekimenez, burokratizatuak ez dauden eta merkantilizatuak ez diren guneak eta zerbitzu publikoak eraikitzeak. Hau da, merkatu kapitalistaren logikatik at dauden ekimen, sare eta espazioak.

Horiek horrela, prozesu askatzaileek ezinbestez uztartu behar dituzte bi gune: behetik eraikitako jendarteko harreman berrietatik sortutako boterearen gunea, eta gobernuaren eta administrazioaren arlo instituzionalena.

XXI. gizaldiko koiuntura historiko honen ikuspegitik begiratuta, merkatu globalak ezartzen duen elite ekonomiko eta politikoen hegemoniaren aurrean, bi estrategia dirudite osagarriak herri ekimenaren aktibazioaren ikuspegitik.

Alde batetik, sare instituzionaletatik erabat autonomoak diren ekimenak eta espazioak indartzea, beti ere inor bigarren mailan uzten ez duen elkarren zaintzaren etika-politikoak eraikiz, botere-harreman simetrikoak bilatuz eta izaera irekia/komunitarioa mantenduz. Horrela, merkatuaren logika lehiakorretik urrunduz, bestelako dinamika alternatiboak aktibatzea gure eguneroko beharizanen inguruan (elikaduran, etxebizitzan, arlo produktiboan, kulturalen...). Hau da, arlo politiko - instituzionalaren zain egon barik (eta egun eremu honen mugetaz jabetuz), praktika eratzaile berriak abiatzea. Hori bera gure tradizio kulturalen dago eta baita gure historia garaikidean ere (kooperatibismoan, hezkuntzan, kulturaren eta euskalgintzan, komunikabideetan, agro - ekologia eta kontsumoaren alorrean,...).

Beste alde batetik, aurrekoarekin batera eta tentsio dialektikoan, ezinbestekoa dirudi politika eta administrazio publikoaren esparrua birsortzeko estrategiak lantzea; botere publikoek herritarren gehiengoaren interesen arabera (interes kolektiboak) funtziona dezaten, eta ez gutxiengo pribilegiatuen interesen arabera. Urgentea baita erakunde publikoak gobernatzeko modu burokratizatuak eta elitistak gainditzea, eta gobernatzeko modu irekiak eta komunitarioak sortzea.

Administrazio publikoak, gerentzia burokratizatu baina, herritarren agentzia mobilizatzaile eta laguntzailea izan behar luke; baina horretarako erakunde publikoen funtzionamenduaren birmoldaketa sakona behar da, bai maila politikoan bai teknikoan. Hau da, herri ekimena, auzolana eta antolakuntza komunitarioa sustatu ahal izateko, bere burua eraldatzen duen administrazioa. Herri eragilean ekimenez sortzen diren prozesuak juridikoki babesten, burokratikoki errazten eta ekonomikoki laguntzen dituen. Beti ere euren autonomia errespetatuz eta administrazioak dituen erritmo, errekerimendu eta lan egiteko moduetara eraman gabe. Egundak eraldetarako akuilu baina sarri oztopo den eremu hau, birpentsatu eta blokeoa eragiten duten logikak desegiteko estrategiak garatzeko parada hartzeak bide emankorragoari leku egin diezaioke.

Batean zein bestean garatzen den dinamika, HERRIGINTZA prozesu zabal baten baitan ulertu behar ditugu. Jendartearen ahalduntze prozesu anitz eta etengabea, herria deitzen diogun hori, subjektu kolektibo bilakatzen ari deneko prozesu gisa. Parte hartze prozesuak begirada luze horrekin ulertzeak, epe motzeko begiradak eragiten dituen arriskuak ekiditen lagun diezagukete: nahi gabea erakundeak zilegiztatzen dituen parte hartze prozesuak egiten amaitzea, logika delegazionista eta ordezkatzaileak bapatean iraultzeko ezintasunak sortutako etsipena, goitik behera aritzeko tentaldiak...Hortaz, herritarrak, komunitatea (antolatu zein antolatu gabea) eta administrazio ezberdin baten arteko harremanak berrikusi eta berritzeaz ari gara. Soziala eta politikoa batuz joateko prozesuak. Autonomia, behetik gorako logika eta elkarlanean oinarrituta, baina baita arkitektura oztopatzailea desegiteko ahaleginaz beteta.

Nola eta nortzuk eraiki? Bazterkeriak eta bertikaltasunak gaindituz

Egungo abaguneak, ezkerren orain arteko esperientziak irakatsitakoak, bizitza bizigarri (aske eta burujabe) egiteko dugun ardura politikoak zein zinez erroko eraldaketan aritzeko borondate irmoak, politikoaren dimentsio eta eremuak, boterearen ulkerak, borroka subjektua, eraldaketaren pentsamendu eta praktika, zein jendartea antolatze eta borroka antolatze moduak berraztertzea behartzen gaituzte.

Orain arteko askatasunen aldeko bideak, hein handi batean baliogarriak ez zaizkigun herentzia eta inertziez ere (baliagarrietaz bezain beste) mintzo baitzaizkigu: dominazio ezberdinen aurkako borroken iherarkizazioa (eta beraz subjektu batzuen ukapena), espazio publikoa eta pribatuaren banaketa liberalaren barnerapena, politikoaren ikuspegi murrizta, mugimendu sozial eta politikoen arteko iherarkizazioa, eskubide bermedun bakartzat erakunde/estatu egiturak kokatzeko joera, ekonomiaren ikuspegi liberal patriarkala, zantzu produktibista eta desarrollistak, antolakuntzak subjektu politikoa definitzen duela pentsatzea, ezagutza eta egia elitizatu eta monopolio bailiran jarduten duten antolakuntza ereduak e.a.

Hortaz, eraldaketa erradikala Nondik birpentsatze horretan, Nola galdegaia ere garrantzi handia hartzen du. Izan ere nolakotasunak, bere eraginkortasun eta logika politiko osoa eman ala kendu diezaioke. Nola hori guztiz politikoa baitugu. Eta Nola hori Nortzuk horrekin lotzen da halabeharrez, subjektuarekin alegia.

Eraldaketa prozesuak, ikaskuntza eta formazio prozesuak dira: Herritarrak, egiteko eta erabakitze indarrez desjabetzen gaituen botere asimetriaz osatutako zapalkuntza anitzeko egitura hau, herritarrongandik abiatzen diren protesta eta alternatibetatik abiatuz iraultzeko apustua bada gurea, burujabe izateko prozesu hau ikaskuntza eta formazio prozesua ere badela ulertzen dugu. Praktika amankomunen inguruko hausnarketa prozesu kolektiboak egiteko espazio eta denbora hartzeko beharra ez da txikia. Eraldaketaren eta alternatiba zein proiektuaren protagonista eta diseinatzaile garen eragile guztiak (baita elkarrekin ere), gure jardueraren inguruko pentsamendu eta ezagutza kritikoa sortzea beharrezkoa dugu, horrek lagunduko baitugu subjektu kolektiboaren kontzientzia eraikitzen. Iraganeko zenbait usteei muzin eginez, Subjektua ezin baita kanpotik definitu eta eraiki...subjektua prozesuan sortu eta eratzen den zerbait bezala ulertu behar dugu.

Horizontaltasuna, aniztasuna garen kide orori leku eginez: Jendartearekin bilatzen dugun modu berberean, geure antolakundeak ere, geure subjektibitateak aldatuz pertsonak subjektu oso izateko prozesuak bultzatu eta laguntzeko tresna modura ulertzearen aldekoak gara. Alegia, ahalduntze pertsonal eta kolektibo gisa ulertzea borroka eta antolakuntza bera. Hortaz, ezagutza, egia eta erabakia monopolizatzen duten, eta gaitasun politikoaz desjabetzen gaituzten antolakuntza ereduak, kultura militanteak eta lehiakortasunean oinarritutako aliantzak eta sareak egiteko joera atzean utzi beharko genituzke.

Aniztasunaren eta horizontaltasunaren kudeaketan ikasteko bide luzea dugu. Ezinezkoa baita *proiektu askatzaile integral eta integratzailea* eratzea, gure jendarteak eta bere aktore sozio politikoek biltzen duten aberastasun eta aniztasunari muzin eginez. Izan ere, desafezazioa eta alienazioa eragiten duten logika baztertzailak errepikatuz gero, kuantitatibo eta kualitatiboki betez doan herri gisa abiatu beharrean hustuz, deseginez eta etsituz doan herri gisa aurreratuko baitugu. Izan ere posible al da, demokratizazio prozesu zabalari eusteko erronka abiatzea, baztertzailak eta bertikalak diren kultura militante eta antolakuntza ereduak? Ez al gaude nahi baino gehiagotan irauli nahi ditugun sistemen logiken arabera jarduten? Koherentziaren debata zeharo gainditzen duen dimentsioaz ari gara.

Aliantza eta sareak. Diferentzien arteko tentsio dialektikoa: Eragile bakarrak subjektu bihurtu ezin duten heinean, eragile guztiok elkarren beharra daukagu, aldaketa kualitatiboak erditzen joan ahal izateko. Desberdinen arteko aliantzak eta sareak osatu dezake soilik eraldaketarako subjektu eraginkorra (aniztasunak eta zabaltasuna artikulatzeak lekarke eraginkortasuna). Diferentzia horien arteko tentsio dialektikoak, oztopatu baino, egunez egun osatzen ari garen eraikuntza prozesua elikatze iturritzat hartzen hastea desio dugu. Horrek orain artean borrokarako subjektu hegemonikoa izendatu eta borrokatze izan dugun joera alde batera uztea, elkarlana eta aliantzak lehiakortasunean eta norgehiagokan ulertzeari utzi eta kooperazioan garatzea eskatzen du. Noraberaren zibilizazio harago begiratuz, beste eragileak ezagutu eta aitortza politikoa egiteak lehen urratsa beharko luke izan. Egia bakar eta aurre determinatutik, kolektiboki osatutako egi partzial mordo baturaz ari gara hain zuzen ere. Galderei elkarrekin erantzuteko bideak goldatzea da gure proposamena, eztabaida eta gatazka aurrera egiteko akuilu gisa ulertuz, eta ez norbera berenean lerratu eta hegemoniaren konkistan aritzen amaitzeko trantze modura.

Talde, erakunde eta herri ekimenetan elkarren zaintzaren etika-politikoa indartzea; enpatian, entzumenean, onarpenean eta, ezadostasunak ezadostasun, akordio integratzaileak eraikitze gaitasunean oinarritutako harreman pertsonala - politiko horizontalak zaintzea. Ardura politiko hori gure gain hartu eta, bizitzaren arlo guztietan harreman giro eta autoritate partekatu hori sortzeko, des-eraiki beharreko ideia zein jarrera ezberdinak des-eraikiz, elkarrekin eraiki beharreko herri dinamika eraiki dezagun. Herri (tar) aktibazioa eta gure arteko lotura zein atxekimendu sendoak josteko gakoetariko bat, hortik joan daitekeela deritzogu.

Kultura militantearen aldaketa: Eraldaketa prozesuak pertsonen osatuta daude, bere ebidentzian bada ere ezin ahaztekoa dugu. Gu geu pertsonak baino ez gara. Guk jendartea egiten dugu eta jendarteak egiten gaitu. Aro bakoitzean zapalkuntza sistemak zein berau iraultzeko mugimenduen baldintzak ez dira berdinak, geure bizitzetako baldintzak eta balio sistema kulturalak berdinak ez diren moduan. Izaki sozialak, erlazionalak eta emozionalak gara beraz, eta garai bakoitzeko ordenu soziala gehiago ala gutxiago, denok gorpuztu egiten dugu, geure eginez. Ez da erreza ezta automatiko eta lineala, makinatu bat deseraikuntzari ekitea. Aldiz batzuetan berriro ahal izateko halabeharrezkoa dugu, hori berori ere askapen prozesua delarik.

Militantzia zer den eta zer ez den, zelan militatzen den, norekin..guzti horiek ere ikasiak dira. Arnaldo Otegi azken elkarriketan aipatu bezala, egoera berriak zabaltzen iaioak gara baina egoera horiek eskatzen duten militantzia kultura birrikatzea kosta egiten zaigu. Hala ere horrek ez du esan nahi eginezina denik ezta beharrezkoa ez dugunik, eta ezta ahalgin horretan ez gabiltzanik, Eskubide Sozialen aldeko Kartaren eraikuntza prozesua besteak beste saiakera horren adierazgarri ere bada.

Jendartea antolatzearen ereduak bada krisian dagoena, eremu oro, intimoenetik hasita, politizatu eta problematizatzeko aukera parez pare irekita dugula esan nahi du. Espazio pribatu eta publikoaren arteko banaketa iherarkikoa gaindituz, jendartean egotsi eta inposatu zaigun lekutik mugitzeko nahia oinarri hartuta, bide hori beste pertsonen ibiltzea bidea egiteko dugun modu bakarra da. Bide hori hurbiltasun afektibotik, aitortzatik, balioa emaketik, partaide sentitzetik eginez gero, identitate kolektibo ezberdinak erdituz egingo dugu bidea. Zamatik baino geure bizitzetako zentzua eta balioa ematen dieten sentimenetik hain zuzen ere.

Tempus-ak eta begirada: Aniztasunaren kudeaketak, parte hartzeak, horizontaltasunak, galderei erantzunak bilatzeak, sortzeak...denbora eskatzen du (metodologia eta ezagutzaz gain). Are gehiago ohituta ez gauden eta ikasi egin behar dugun ataka honetan. Denbora, kapitalaren ideologiaren izarra, geroz eta gehiago eztabaidagai eta galga bihurtzen ari zaigu. Gure jardun politikoek ere sarri azkartasuna eta produktibismoaren logikari erantzuten diete, abiadura bizian eta fruituak motzean eta modu ikusgarri - ukigarrian soilik baloratuz. Ondorioz, prozesuen denborak eta erritmoak berraztertze premia ere badugu, eguneroko bizi moduari, elkarlanari, entzuketari eta sormenari lotutako ziklo luzeagoak landu, bere atzera eta aurrerak izango dituela barneratu... horrelakoa da pertsonen natura, hortaz jar ditzagun pertsona, elkarlana eta komunitatearen ritmoak erdigunean.

Akaso begiradarekin, beste horrenbeste gertatzen zaigu. Abiadura handian aldatzen ari den aro eta munduan gaude. Horrek antsietate handia eragiten digun heinean, batzuetan atzera zein aurrera begirako ikuspegi historikoaz gogoetatu eta jardutea nekeza egiten zaigu. Tamalez, eraldaketaren ziklo eta horizonte urrunenak desagertzen zaizkigu, eskubide urraketa zaparrada honetan. Prozesuen logikarekin aritzea nekeza egiten zaigu, "ekintza" klabearen aritzeko ohitura barneratuagoa baitugu: "Venimos de entender los fenómenos sociales como algo dado y las propuestas de transformación como algo que debe darse no como algo que se debe construir" (Rauber, 2002).

Integralitatea: Indibiduo autosufiziente eta arrazionalaren ideologiaren arabera gorputz, emozio eta arazoia banatuta datoz eta gainera berauen arteko harremana iherarkikoa da. Arazoia lorifikatzen duen logika kapitalista eta patriarkal honen arabera aritu izan gara urteetan. Gorputzak eta emozioak (are gehiago osotasunean ulertuz), eraldaketa prozesuetan duten garrantzia ahanztuz eta beroni lekuri eman gabe. Aldiz, gure alde korporala, erlazionala eta emozionala ukatzeak ez dakar pertsona eta herriek horiek gabe bizi izatea. Atzera begiratuz gero, uste hori desagertzen duten praktika mordoez beteta daukagu geure historia.

Eraldatzeko eraldatu. Geure buruaren inguruan dantzan: Gure kultura militanteak jendarte honetan hegemonikoak diren oinarri kulturalak ere badituela ulertu eta onartzeak, berauen deseraikuntzarako praktika kolektibo antolatuari leku egitea eraman gaitzake. Izan ere ezker iraultzaile klasikoa oinarri kultural hauetatik at aritu denik ezin esan. Indibiduo autosu-

fiziente eta orojakilearen ideologiak geu ere blaitzen gaitu, ondorioz asko urduritzen gaitu erantzun guztien jabe ez izateak, prozesuen amaiera eta tarteko bideak beti argi ez ikusteak, prozesuen kontrola geure eskuetan beti ez egoteak...eta horrek nola eraiki daitekeen ez dakigula sentitzera, edota militantzia kultura berraztertze beldurra izatera, ezagunak ditugun antolakuntza ereduak gehiegizko atxekimendua izatera eraman gaitzake. Inertzia zaharrek guregan oinarri sendoak dituzte, ondorioz mugikorra den lurrean eraikitzen ari garela onartzeko arazoak ditugu. Aldiz egoerak egungo confort guneetatik irteteko adorea eskatzen digu. Ezin ahaztu nostalgiak kontserbadoreak direla eta ziurgabetasunak sortzaileak ere badirela. "Transformar transformándose" leloa ikur hartuta, geure antolakunde eta praktikek oinarri duten balio sistema eta usteak ikara gabe aztertu, eta besteekiko aurreiritziak gaindituz, ariketa zintzo eta sortzailea egiteko abagunea ere badugu egungo hau. Parez pare dugun herri eta munduak, ardura politikoz jokatu nahi badugu bederen, hori eta gehiago ere behar ditu. Horregatik latzak izan arren, langa gabe amets egiteko eta errezeta berriak frogatzeko ausardiarekin aritzeko garai ederrak ere baditugu.

